

HITZAURREA

Filosofiaren Kontsolamendua, Boezio, VI. mendeko autore latino kristauaren obrak eragin aparta izan zuen Erdi Aroan, eta horregatik, bere interesa, garai hartako intelektual kristauaren egoeraren errainu gisa, ez da gutxitu.

Nahiz eta “generoaren” historia aztarnatu eta Boezioren Kontsolamendua aurreko ereduak erlazioan jar daitekeen, obrari berari bakarrik jaramon eginez, idatzia nekez gertatzen da ulergarri testuingurua, pertsonaia inguratzen duten izaera sozial, kultural eta politikozko inguruabarrekin erlazioan jarri gabe. Horregatik komeni da Boezioren garaiko, V. mendearen amaiera eta VI.aren lehen herena besarkatzen dituen garaiko Italiaren egoera zehaztetik hasia.

Erljio-politikazko egoera

Jadanik IV. mendean Konstantinopla Ekialdeko enperadoreen egoitza bihurtu zen, Erromak Mendebaldeko enperadoreen bizileku izaten zirauen bitartean. Hurrengo mendearen hasieratik, 404an, azken horien egoitza Ravenara aldatu zen, izan ere zingiraz inguratutik eta irispide zailekin zegoelako, gobernuarentzat segurtasunezko aukera baitzen. Ravenako aukera gorabehera, Senatuak Erroman jarraitu zuen aristokraziako zenbait familiaren kontrolpean.

Egoera politikoa aldatu egiten da Romulo Augustulo azken enperadore erromatarra desagertzean. Urte horretan, 476an, jabetzen da aginpideaz Odoaktro, eta une horretatik hasita, Mendebaldeko agintariek –zeinak Odoaktoren antzera jende barbaroengandik datozen-- Ekialdeko enperadorearen ordezkari gisa dihardute. Senatuak, Erroman jarraitzen duelarik, benetako egitekoak bere esku balitu bezalako itxurak egiten segitzen du, Ravenan kokaturiko botere politikoarekiko adostasunean.

Ekialdean eta Mendebaldean bi botere politiko izateak, funtsean parez parekoak baina legez bata bestearen menpekota izaki, zailtasun batzuk sortzen zituen, eta sarritan izaera erlijiosoko auziek areagotu egiten zituzten. V. mendearen amaieraz geroztik, erlijio-auziek tirandura gehitu egiten dute Inperioaren bi alderdietan, Zenon enperadoreak, 482an, Kalkedoniako Kontzilioak (451) erabakitakoaren kontrako formula bat onartzean, zeinean doktrinazko akordio batera iritsi zen elkarte ortodoxoa bere osotasunean.

Beraz, Teoderiko agintera iristean (493), mapa politikoa honela taxutzen da: Ekialdean dinastia “erromatarra”, ortodoxo-katoliko batek, Inperioaren egiazko jabegaitzat jotzen denak dirau; aldiz, Mendebaldean, Teoderiko, ostrogodo eta arriotarrak Ekialdeko enperadorearen erregekide gisa gobernatzen du. Bere erregealdiko lehen urteetan, Teoderikok tolerantziatzko politika bat ezartzen du bere lurraldeko ortodoxo-katolikoekiko, eta horrek mesede egiten die Inperioko bi alderdiek dituzten agintarien arteko harremanei.

Alabaina, 519az geroztik, bi elizen arteko bateratze-ediktu batek Ekialde eta Mendebaldeko fededun ortodoxoen arteko harremanak bigunarazi egiten ditu, aitzitik Ekialdeko botere inperialaren jarrera-gogortze bat gertatzen delarik arriotarrekiko, zeren eta kronologiaren arabera, ediktua eta Justino (518) Ekialdean tronura iristea batera gertatzen baitira, zeinak katoliko zurruna izaki, arriotarren jazarpenari hasiera ematen

dion; horrek pentsarazten die Italiako katolikoei Teoderikok agian errepresaliak hartuko dituela, arriotarra zenez gero. Eta halako erreakziorik gertatzen ez bada ere, egia da Teoderikok jarrera bereziki sentibera hartzen duela senatari noble erromatarren eta Konstantinopla elkarrenganatzeko edozein ahaleginen aurrean.

Kultur egoera

VI. mendearen hasieran kultur loraldi bat gertatzen da. Jadanik pasaturik daude irakaskuntza sekularra eta kristaua kontrajartzen zituzten garaiak. Une hartako intelektualentzat ez dago barne-gatazkarik, IV. mendean gertatzen zenez; era berean onartzen da filosofo grekoengandiko ezagutza eta elizaren lehen gurasoen eztabaida teologikoetatik datorrena. Apaizek eta laiko aristokratek ideiak eta kultur interesak banatu egiten dituzte elkarren artean.

Alexandriako Eskolak hartu du Atenaskoaren lekua. Erroma hezkuntza-gune nabarmena da Italiaren barruan eta hizkuntza grekoa jende askok ezagutzen du, batez ere elizgizon eta laikoen arteko goi-karguetan, Ekialdearekin harremanetan egon beharra baitzegoen, non administrazio-hizkuntza oraindik grekoa zen.

Kristauen aldetik kultura profanoarekiko errezelarik ez izateak, ordurako kristaua ere bazen gizartean erabat integraturik egoteak, esplikatu egiten du garai horretako kristau intelektual handiak botere politikoarekiko lankidetzan bizian ari izatea. Teoderikorekin, 496az geroztik, erromatar familia gailenen aurrean ahalbide bikoitza ageri da: botere politikoari zuzenean atxikitzea, administrazio-karrera bat burutuz, edo botereguneekin hain lotua ez zegoen karrera politiko bat egitea, hau da, Ravenako Aula Regiatik urrunduriko garapena zuena, Erroman; azkeneko horien helburua Senatura iristea izaten zen, eta halakoen baitan kokatu behar da Boezio, bere lehen aldia eta luzeena izan zuen garaian. Aurrenekoen artean ezaugarriena Kasiodoro da, Teoderikorekin administrazioaren arduraduna Ravenan, *Variae* deritzatena jasotako gutuneria ofizialaren idazlea, eta Godoen *Historia* baten egilea hamabi liburutan; liburu horiek ez zaizkigu iritsi eta berorien edukia Joardenesen laburbildumari esker ezagutu daiteke; Teoderiko hiltzean, 526an, Italiara hegoaldean dagoen Vivariumera baztertu zen eta bertan garrantzi handiko monasterio bat sortu zuen kulturaren eta testu klasiko eta kristauen transmisiorako.

Elizgizonek berek ere, nahiz eta zeharbidez, lagundu egiten zuten. Esate baterako, Paviako apezpiku zen Ennodiok Teoderikoren panegiriko ofizial bat paratzen du 506an. Arazoa, beraz, ez dago jadanik eliza eta estatuaren artean, baizik eta inperioaren alderdi bateko gidarien jarrera erlijiosoak bestean izan lezakeen eraginean.

Boezioren bizitza

Boeziori buruz ditugun albisteak oso dokumentu gutxitatik datozkigu: (*Variae*) Kasiodororen administrazio-gutuneria, Prokopioren (VI. m.) *Gerra* Godoen *Historia*, Anonymus Valesianus eta Kotsolamendua I. liburutik.

Boezioren izen osoa Anicius Manlius Severinus Boethius da, Konstantinoren garaietatik kristaua zen aniziotarren familiakoa. 480. urte aldera jaiotzen da, eta oso txikitan umezurtz gelditzean, simmakotarren familian sartzen da Quintus Aurelius Memmius

Symmchusen adopzioz; Rustiziana, bere aitzakakoaren alaba batekin ezkontzen da, horrela IV. mendean erroak zituzten familia handienetako biri atxikirik geldituz.

Ez dugu haren hezkuntza-tokiaren berririk. XIX. mendearen amaieran Atenasko Eskolan ikasia zelakoa defendatzen zen, baina gaur egun hipotesi hori baztertu eta Alexandriako Eskolarekin zuzeneko harremanak izan zituelakoa jarri da haren ordeztu, eta horrek argituko luke Ammoniok beragan filosofikoki izan zuen eragina, izan ere urte haietan bertako zuzendari baitzen, edo bestela izan zuen prestakuntza autodidakta Aristotelesaren Organonaren eskuizkribu ohardunen irakurketan oinarritua. Nolanahi ere, inork ez du zalantzan jartzen neoplatonismoak eta aristotelismoak Boeziorengan izan zuten eragin sakona.

510ean kontsul izendatzen dute, eta ordutik 524an hil zen arte, Teoderikoren zerbitzuan dago. 522an, bi semeak kontsul izendatzen dizkioten arte, segur aski Boeziok magister officiorum kargua onartu izana kokatu behar da; kargu horrek garrantzi handia zuen inperio-administrazioan eta Ravenara lekuz aldatzea eskatzen zuen. Garai horretarako, erromatar Senatuaren barruan, badago jadanik bizantziarren aldeko talde bat. Teoderikok, funtzionario godoen bitartez, Albino senatariak Ekialdeko enperadoreari igorritako gutuneria interzeptatzen du. Boeziok ahaleginak egiten ditu Senatu solidario bihurtu dadin Albinoren jarraitzaileekin, baina porrot egiten du bere ahaleginean eta senatari-batzorde batek Teoderikoren aurrean salatzen du. Handik gutxira auzitara eramaten dute, Teoderiko erregearen aurka atentatzeko asmotan Konstantinoplarekin gutuneria trukatu izanaz salatu izan den Albino senatariaren alde jarri delako. Pavian kartzelaratzen dute eta presondegian egonaldi luze baten ondoren, oinazetu eta exekutatu egiten dute 524an. Ia berehalaxe ematen zaio martiri katoliko kategoria eta urriaren 23a izendatzen zaio heriotza eta berorren ospakizun-eguntzat. Kartzelan zegoela idatzi zuen Filosofiaren Kotsolamendua.

Boezioaren obra

Boezioaren obra, baita haren bizitzako pasarte batzuez eta haren jardura politiko eta literarioaz duen iritziaz Kasiodorok berri ematen digu Anecdota Holderi izenpean ezaguna den eta lehen aldiz 1877an Usenerrek argitaratua den zati batean:

(CChr. 96, p.v) Boethius dignitatibus summis excelluit, utraque lingua peritissimus orator fuit. Qui regem Theodericum in Senatu pro consulatu filiorum luculenta oratione laudavit. Scripsit librum de Sancta Trinitate et capita quaedam dogmatica et librum contra Nestorium. Condidit et carmen Bucolium. Sed in opere artis logicae, id est dialecticae, transferendo ac mathematicis disciplinis talis fuit, ut antiquos auctores aut aequiperaret aut uinceret.

[Boezio goi-karguetan gailendu zen; etorri handiko hizlaria izan zen bi hizkuntzatan (latinez eta grekoz). Teoderiko erregearen laudorio bikaina egin zuen Senatuaren aurrean, haren semeak kontsul izendatutakoan. Liburu bat idatzi zuen Hirutasun santuaz, teologiari buruzko kapitulu batzuk eta Nestorioren kontrako liburu bat. Poema bukoliko bat ere ondu zuen. Baina logikako obra, hau da, dialektikako bat itzultzen, baita matematika-jakintzagaietan ere, hainbesteko trebetasuna erakutsi zuen, non antzinako autoreak berdindu, eta gainditu ere egin zituen.]

Kasiodorok berak beste leku batean (Inst. 2,3,18) adierazten du Porfirioren Isagogeari iruzkin bat idatzi ziola bost liburutan, eta beste iruzkin bat, sei liburutan, Peri Hermeneias-i, biak Mario Viktorinok itzuliak ziren¹. Berak adierazita dakigu Aristoteles eta Platonen obra filosofikoa itzuli eta komentatzeko asmoa zuela.

Matematikei buruzko bi tratatu eta musikako eskuliburu bat ere badaude, eta Erdi Aroan eragin ohargarria izan zuten. Bi kasuetan Nikomako Gerasakoaren eta Ptolomeoren tratatuen bertsioak dira hurrenez hurren. Quadriuium-eko –berak erabili zuen izendapen hau lehen aldiz lau arte liberal zientifikoen multzoari deitzeko-- beste bi arteei, geometria eta astronomiari buruzko haren tratatuak galdu egin dira. Boezioren beraren obratiko beste datu batzuen bidez dakigu Liber de diuisione, De topicis differentiis eta Zizeronen Topica-ri buruzko iruzkin bat ere idatzi zuela.

Horrek guztiak esan nahi du ezin hobeki menperatzen zuela grekoa, oro har, garai hartako intelektual gailen guztiek ere menperatzen zuten bezala.

Boezioren obra aztertzean sortu den arazoetako bat, beraietako batzuen kautotasunarena, bere produkzioaren aniztasunari zor zaio; izaera teologikoa duten tratatuetatik hasi eta entsegu teknikoetarainokoa baita, filosofi obren iruzkin eta bertsioetatik, baita arreta berezia merezi duen obra batetik: Filosofiaren Kontsolamendua deritzanetik ere pasatuz. Nahiz eta gaur eguneko ikertzaileek zalantzan ez jarri Boezioren gurasotasuna izaera teknikoa duten matematika eta musikari buruzko tratatuei dagokienez, ez da gauza bera gertatzen haren teologi tratatuei dagokionez eta, neurri txikiagoan bada ere, Kontsolamendua berarekin ere. Zalantzen arrazoia batzuen eta besteen artean dagoen jarrera-kontrastea bilatu behar da. Bere idatzi teologikoetan onarturiko kristautasunetik kristautasunaren ageriko aztarnarik gabeko jarrera filosofikora igarotzen da Kontsolamenduan.

Izan ere, XIX. mendearen amaieran adituek De Trinitate, Vtrum pater, Quomodo substantiae, de fide catholica, Contra Eutychem idatziak haren obra gainerakoarekin erkatzean beraien gurasotasuna ukatzera eramán zituen, harik eta handik urte gutxira, Kasiodororen gutunak irakurtzeak Boeziorenak zirela berretsi zuen (Usener 1877). Haren tratatu teknikoek dagokionez, XI. mendetik hasita jarri zen zalantzan Boezioren autoretza kristau-fedetik hain urrunduak ziren gauzei lehentasunez jaramon egiten zielako. Izatez, eta gaur egun ikusten denez, erantzukizun pastoralik ez duen garaiko intelektual kristauaren mentalitateari ezin hobeki dagokion portaera da. Boeziok, zehatz esateko, bereizirik dauzka bere idatzietan eta bere bizitzan arrazoiaren eta fedearen esparruak, eta horri esker izan zuen hain abegi ona Erdi Aroko eskolastikoen aldetik

Consolatio Philosophiae

Filosofiaren Kontsolamendua, bada, ez da Boezioren obra bakarra, nahiz eta gehienentzat ezagunena izan. Consolatio izendapen orokorraren pean atzera eramán eta erromatarrek asko landu zuten agerkari literario batekin harremanetan jartzen gaitu, nahiz eta Philosophia hitza gehitzeak sartzen duen zehaztapenak aditzera ematen duen hasieratik beretik bere aurrekoekin alderatuta mugitzen deneko planoan aldatu egin dela.

Bost liburuko obra bat da, aurkezpenean originaltasun handia ageri duena, nahiz eta literatur aurreko formak K.a. I. mendearekin lotura egin arte aztarna daitezkeen.

¹ Poema bukolikoa eta iruzkinak galdu egin dira.

Elkarrietzeta-eran egin dago eta hitz laua eta neurtua darabiltza txandaka: luzera aldakorreko prosazko pasarte baten ondoren, kasu bakoitzean neurri desberdina hartzen duen poema bat dator. Prosazko pasartearen hedadura –pr. bezala izendatuko duguna-- poemena baino handiago izaten da –horiek m. bezala izendatuko ditugu.

Consolatio obraren sinopsia

Porrot-sentipenak eta bizitzarekiko atseginik ezarengatik goibelduriko Boezio batekin hasten da obra, aurrekoaren ondorioz aurkitzen deneko inguruabarrek lur jota baitaukate; handikio apainduriko dama bat agertzen zaio aurrez aurre: Filosofia. Bien artean elkarrietzeta bat sortzen da, bost liburutan zehar luzatzen dena: Filosofiak ahaleginak egiten ditu gauzak ikusteko duen modua erratua dela sinetsarazten eta iraietakoaren balioespen faltuaren ondorio dela. Apreziatio subjektibo horiek alde batera utzi eta Jainkoarekin identifikatu behar den summum bonum-erako bidean jartzen da egin behar duena. Une horretatik aurrerant, Jainkoaren existentzia eta munduaren izaera uztartzeko garrantzi handiko arazo filosofikoak eztabaidatzen dira.

Orain haren argudio eta edukiaren azalpen xeheago bat egitea komeni da.

Lau ataletan banatu ohi da Consolatio-ren edukia. Lehena I. liburuari dagokio eta planteaketa orokor bat hartzen du: eszenategia finkatu eta esku hartu behar duten pertsonaien, Boezio eta Filosofiaren aurkezpena egiten da. Boezio, berak dioenez, kartzelan dago elkarrietzeta gertatzen den tokian eta horren ondorioz, oro har, uste izan da bertan idatzi zuela Consolatio obra, nahiz eta ikertzaile guztiek ez onartu, zeren batzuen iritzian metafora besterik ez baita.

Bertsoz emandako bere pentsamendu goibeltan murgildurik dagoen Boezioren aurrean –Musek ez dute bertan behera utzi--, emakume bat agertzen da haren itxurarengatik begirune berezia sortarazten diona. Pertsonaiaren deskribapenak Erdi Aro eta Errenazimentuko ikonografian izango duen garrantziarengatik, pasarteak bakandurik hartzea komeni da:

“Gauza hauek isilik pentsatzen eta arrangura eta kexuok lumaz idazten ari nintzelarik, nire buruaren gainean emakume bat zegoela iruditu zitzaidan; aurpegi errespetagarria zuen eta begi bizia, gizaki arruntek ohi dutena baino sarkorragoa; eta, hain zegoen indartsu, nekerik gabe eta kolore bizikoa, urte asko izanda ere, txiki-handian bereiztezina baitzen, ezin zitekeela gure garaikidea zatekeenik pentsa. Izan ere, orain gizaki arrunten neurrietara biltzen zen; berehala ematen zuen, ordea, bere buruaren erpinaz zeru-goiak jotzen zituela eta, burua gorago jasotzen zuenean, zeru-goietan sartzen zen, gizonen begietatik ostenduz. Hari mehe-mehez eta ehunki andaezinez artezki josita arropak zituen soinean; berak eginak ziren, gero berak esanda jakin nuenez. Edertasuna utzikeria apur batek kendua zien, pintura ketuen antzera. Grezierazko π bat zuten beheko barrenean erantsia eta θ bat goiko muturrean, (3) eta, bi hizki horien artean, eskailera-mailetan bezala ezarriak, zeinu batzuk beheko elementutik goikora zeramatenak. Baina esku zakarren batzuek urratua zuten noski soineko hura eta ahal zuenak atal zuena kendua zion. Eskuinean liburu batzuk zekartzan; ezkerrean, berriz, errege-makila”.

Letra grekoak Filosofiaren alde praktiko eta teorikoari dagozkio.

Filosofia, deskribatu berria den pertsonaiaren lehen esku-hartzea, Boezioren pentsamenduak hitzez hornitzen diharduten eta aurrean dauden Musei ahakar egiteko da; musek alde egiten dute barrunbetik eta Boezio bakarrean gelditzen da Filosofiarekin (I, pr.2) Hemendik aurrera bien arteko eszena hasten da, prosa eta bertsoaren nahaste txandakatua.

Biak bakarrik gelditzean, Filosofiak malkoak xukatzen dizkio Boeziori bere mantuaz, eta honek supituki bere buruaz jabetu zen argitasun-sentipenaren berri ematen du; puntu honetantxe hasten da elkarrizketa.

Filosofiak adorerik eza aurpegiratzen dio Boeziori, eta honek estakuruekin erantzuten dio. Parte horretan aipatzen ditu dagoen egoerara ekarri duten arrazoi politikoak (pr. 4). Filosofia prest dago laguntzeko eta galdera banaka batzuk egiten dizkio nolako egoera intelektual eta aldartezkoa duen neurtzeko (pr. 4). Haren lehen galdera honako hau da: mundua azarearen eskuetan dagoela uste al duzu, ala badagoela gidatzen duen printzipio arrazional bat? Boeziok bigarren hautakizunari heltzen dio eta horrek ondoren Filosofiak garatuko duen argudiorako bidea urratzen du, elkarrizketa sokratikoetan gertatzen denaren antzera: berak arrazionalki onarturiko auresuposatuarekiko beraren jarrera kontraesanean dagoela sinetsaraztera gidatzen du Boezio.

II. liburuak eta III.aren parte batek (pr. 8raino) fortunak gizakiari ematen dizkion ondasunen balioa aztertzen dihardute. Filosofiak bere aldetik Fortunaren mintzoa sarrarazten du. Prosopopeia horretaz baliaturik, Fortunak aurpegiratzen dio Boeziori haren gain erorarazten dituela erantzukizun guztiak. Bere arrazoiketa gaia lantzen duten filosofi tratatuetan aurkitu ohi dugunaren barruan sartzen da: “Gizakia biluzik dator mundura, fortunak, Boezioren kasuan, gizakiak nahi izan lezakeen guztia eskuratu dio; gero kendu egin dio, hasierako egoeran utzirik. Ez du zertaz kexaturik”. Ondasunen izaera aztertzen da eta beroriek gizakiarekiko duten izaera axolagabea dela ondorioztatzen da. Filosofiak Fortunaren esku-hartze horri erantzuteko aukera ematen dio; eta berehalaxe, elkarrizketa atzera Filosofia eta Boezioren artean gelditzen da, ia hitzaren erabilera guztia Filosofiak egiten duelarik.

Hirugarren atalak IV. libururainokoak, m. 4 hartzen du. Boezio, Filosofiaren hitzek adoreturik, prest dago egiazko zoriontasunera eramango duen bideari ekiteko. Oraindik gertaturik ez dagoenez gero, Filosofiak pixkanaka aritu beharra dauka; hemen hasten da benetan doktrinazkoa den partea. Gizakiak duen helburua zoriontasuna, summum bonum-a atzematea; giza izaerak bere baitan daraman zerbait da hura nahi izateko. Parte honek, aurrekoek baino izaera teorikoagoa duelarik, Filosofiaren esku-hartze luzeak atal elkarrizketarekin txandakatzen dira, horiek bereziki ugariak baitira 9. kapitulu hasita. Hitz neurtuzko parteen luzera gutxitu egiten da, nahiz eta IV. liburua 58 bertsolerroko multzo batekin ixten den.

V. liburuaren amaieraraino iristen den azken parte oinarritzko hiru arazori buruzkoa da: Probidentzia eta Destinoa, Jainkoaren aurrejakintza eta giza aukeramena, eta Unibertsoaren iraunkortasuna, baina ez betierekotasuna. Unibertsoa kontrolatzen duen izaki on baten (rector bonus) existentzia onarturik, galdera hauek egin behar dira: zergatik dago gaizkia? Eta ez hori bakarrik, baizik eta, gaizkia zergatik gelditzen da zigorrik gabe? Bertutea zergatik gelditzen da saririk gabe? Filosofiaren erantzuna: Horrela dirudi, baina ez da horrela. Oraintxe da garai egokia Boezioren gogamenari hegialak ezartzeko, gorantz egin eta sorterri galdua berreskura dezan. Gorputzaren

kartzelan sartutako, bere sorterritik erbesteratutako arimaren metafora neoplatonikoaren jarraipenaren aurrean gaude.

Irakurketa gero eta zailagoa bihurtzen duen abstrakzio teorikoaren maila gero eta handiagoan, V. liburuaren amaierara iristen da. Behin baino gehiagotan esan izan da obra osatu gabe dagoela, gizakia Jainkoarengana itzuliz bururatu beharko bailuke.

Literatur eta filosofi ereduak. Originaltasuna.

Filosofi ereduak

Consolatio-ri buruz egin diren ikerketetako gune gako bat haren iturburuena da, edukia eta formari buruzko zentzu bikoitzean. Lehenei dagokionez, aldi desberdinak izan dira; mendearen amaiera aldera uste izan zen obra greko baten moldaera besterik ez zela (Aristotelesen Protreptikon edo Zizeronen Hortensius-ena) eta Boeziok I. liburuari ezarritako sarrerako aurkezpena eta poema tartekatuak besterik ez zuela originala. Sorburu bakar gisa Porfiriok Platonen Timeo-ri egindako iruzkinean ere pentsatu izan zen eta, alderantzizko muturretik antzinako filosofoengandik hartutako pasarte-bilduma bat ere aipatu zen. Gerora neurri bateraino bazterturik gelditu den bide batetik jotzen zen, ikerturiko obra ataletan zatikatzearenetik, horrela, zeharka bederen, aurreko autoreen obra galduak berreskuratu nahiz.

Auzi filosofiko eta literarioa bateratzen dituen osaera-batasuna jadanik mende hasieran Rand-ek (1904) defendatua izan zen. Azken aldian badirudi bat datozela adituak filosofia grekoaren eragina onartzean, batez ere neoplatonismoarena eta, zehatzago esateko, Proklo eta bere eskola eta Ammniorena. Harmoniazko elkartasunean nabari zaizkio Platon eta Plotino bezalako filosofo grekoen aztarnak, baina baita Zizeron, Seneka eta Agustín bezalako autore latindarrena ere. Haren obraren aurrean hartzen dugun ikuspegiaren arabera, handiagoa edo txikiagoa izango da, halaber, autore batzuekiko edo besteekiko ageri duen ahaidetasuna, zeren Kontsolamendua obraren izaera prosimetroa kontuan izanik, poeta latindarren, adibidez Ovidioren, aztarnak ere nabari baitzaizkio.

Literatur eta filosofi ereduak

Haren literatur kontsiderazioari dagokionez, nahiz eta alderdi filosofikoak baino arreta gutxiago erakarri duen, azken urteotan gero eta garrantzi handiagoz begiratu izan zaiola esan behar da.

Consolatio obra kokatu behar deneko “generotik” has gaitezen. Consolatio latindarra gertatu zaion ezbeharren batengatik hartzailea kontsolatzera zuzendurik dago; baina oso nekez aurkitzen ditugu nor bere buruari zuzenduriko kontsolamenduak –bazen Zizeronek bere alaba Tulia hiltzean idatzirik “kontsolamendua”, gaur galduta dagoena-. Oraindik nekezago aurkitzen dira idazten duenari gertatzen zaizkion ezbeharren aurrean inoren samina eztitzeko ahaleginak egiten dituzten “kontsolamenduak”. Ildo horretatik, Consolatio ad Heluiam-eko Seneka gogorarazten du gehien, izan ere Senekak amari idazten baitio bera Korsikan nozitzen ari den erbestealditik kontsolatzeko. Nolanahi ere, badugu hemen lehen puntu bat, Kontsolamenduen tradizio luzea gorabehera, Boezioren Consolatio obraren originaltasuna nabarmentzen duena.

Senekak hiru kontsolamendu ditu, horietako bi tradizio ohikoenaren barruan sartuak daude: izaki kuttun baten heriotza dela-eta kontsolamendua emateko asmoarekin bi

pertsonari zuzendurik daude. Semea hil zaion Marziaren eta anaia bat galdu duen Polibioren kasuak dira. Helvia bere amari zuzentzen dion kontsolamendua berezia da; Klaudiok erbestera zigortu duen Senekak bera nozitzen ari den egoeratik kontsolatzeko idazten dio amari. Nahiz eta egia izan Boeziok egiteko horren bozeramailetzarako Filosofia sartzearen konbentzioa onartzen duela, begi-bistan dago, Senekarengan gertatzen zenez, berak sinetsarazi nahi dio bere buruari bizi duen egoera ez dela deitoragarria. Bi kasuetan, autore bakoitzak literatur konbentziora jo du. Boeziorengan aurkitzen diren antzeko inguruabarretatik bizitzan igaroak diren pertsonaiak ugari dira. Idatzian zuzenki aipatzen ez diren arren, bidezkoa da Consolatio-ren planteamenduan Sokrates, Zizeron, Seneka edo Ovidio bera bezalako figurek eragina izatea, nahiz eta ahaidetasun handiagoarengatik Sokratesen kasua gailentzen den besteen gainetik. Zizeronek eta Senekak pisu handiagoa dute lehen bi liburu eta erdiko parte kontsolamenduzko eta protreptikoan, Platonek eta Sokratesek gainerakoan. Ovidioren halako eragin bat ere nabari da Kontsolamendua estreinatzen duten distikoetan.

Baina inondik ere ez da literatura latindarrean gertatzen, oraingo honetan bezala, Filosofia, kontzeptu baten pertsonifikazioaren emaitza den fikziozko pertsonaia baten aldetik autoreari zuzendutako “kontsolamendurik”. Litekeena da doktrina filosofikoak kontsolatzeko erabiltzea, baina idazleak hartzaile bati aurkeztuak. Baina oinarritzko puntu batean ere ez du aurrekorik: Courcellek ongi ikusi duenez, Boeziok ez du heriotza onartzeko idazten, igarotako bizitza onartzeko baizik.

Consolatio latindarrak bere izaera filosofikoari literatur izaera gehitzen dio: epistola-era, elkarrizketazkoa edo esposiziozko soila. Horrela, bada, literatur, baliabideen hautespenean datza hain zuzen ere Kontsolamenduaren alderdirik interesgarrienetako bat. Planteamenduak duen originaltasunaz aparte, bada aurreko joerak gogorarazten dituen motiborik, zeinek Erdi Aroan harrera handia izango duten. Alde batetik, alegoriazko pertsonifikazioetara jotzea; bestetik, aurreko elkarrizketaren antzera jokatzeara.

Boezio literatura klasiko greko eta latindarreko literatur prozedurak kristautasunean etxekotu diren garai batekoa da; jakina, literaturari izendatzen zaion helburu desberdinetik datozen moldaera eta aldaketak jasanez. Beraz, Boeziorengan ez du Marziano Kapelaren alegoriazko tradizioak eta Fulgentzio Mitografoarenak (Fabius Planciades Fulgentius) bakarrik pisua, baita literatura apokaliptikoko tradizio kristau-esoterikoak ere.

Marziano Kapela, V. mendeko, *De nuptiis Philologiae et Mercurii*, Erdi Aro osoan zehar gehien irakurri eta iruzkindu den obretako baten autorea da, berea bezalako estiloak sortzen zituen ulertze-zailtasunak gorabehera eta baita horrexegatik beragatik ere. Haren arrakasta bi faktoretan oinarritzen da: lehenik, zazpi arte liberalerik, hau da, gramatika, dialektika, erretorika, aritmetika, geometria, astronomia, eta harmoniari buruzko arauak biltzen dituen eskuliburu moduko bat da; bigarren, eta bereziki, alegori eduki handia du. Zazpi arte liberalen pertsonifikazioak dira Marziano Kapelaren obrako pizgarrietako batzuk. Boezioren baitako Filosofia eta Fortunaren pertsonifikazioek neurri bateraino badute mende bat lehenago hasitako joera horren eragina. Fulgentziok, Marziano Kapela bezala V. mendekoa denak, horrek ere alegorizazioaren prozedurara hartzen du, batez ere Mitologiarum libri tres bere obran.

Aurreko horiei, esan dudanez, tradizio “apokaliptikoa” gehitu behar zaie, izan ere literatur ikuspegitik alegoriaren ahalbidea sortzen baitu. Hermes Trimegisto, Hermasko

Artzainak, bi mende lehenago, sarrera ematen diete protagonista lur honetako planotik naturaz gaidikora pasarazten duten ikuspenei. Baliabide onartzeak ez du hain bitxi bihurtzen Filosofia Boezio erdiratu baten aurrean ikustea, ezta berori idazlearen gidaritza espiritualetan ikustea ere.

Obrari halako kutsu berritzaile bat ematen dioten faktore-multzo horren barruan azpimarratu beharreko beste alderdietako bat barne-elkarriketarekiko bere hurbiltasuna da. Nahiz eta formalki Filosofia izan Boezioren elkarriketakide, bere depresioa desegiten duten argudioak ekarri, Kontsolamendua jasotakoak, zeharka bada ere, San Agustinek ere lehen aldian sortutako prosa-mota berria, Aitorkizunak eta Bakarriketak gogorarazten ditu. Nahiz eta egia izan zalantzan jarri ere egin dela Boeziok Agustinen obra horietako batzuk ezagutu ere egin izana, badirudi orain behin eta berriz esaten dela ezagutu ez ezik, jakinaren gainean erabili ere egin zituela, eta hori Filosofiaren Kontsolamendua-n islaturik legoke. Bi autoreen obren arteko diferentzia sakona, besteak beste, bien artean mende bateko aldea egoteari zor zaio; kristautasuna, Agustinentzat konbertsioan gailurra harrapatu zuen etengabeko borroka, Boezioentzat jaiotzaz lortutako gertakaria izan zen. Agustinen jarrera pertsonal eta suharra kontrastean dago gertakari batzuen aurrean Boeziok ageri duen jarrera arrazional eta intelektualarekin. Biek komun duten neoplatonismoa, gorputzean kartzelaturiko arimaren metafora bezalako puntu hain elementaletan hautemangarri dena, Agustinentzat aitorkizun bezala agertzen da formalki, Boezioentzat tratatu teologiko gisa. Berriz ere, lehen aipatzen genuen arrazoia eta fedearen arteko bereizketa horren aurrez aurre aurkitzen gara.

Beraz, tradizio ugari enuntziatuaren mailan bateratzen dituen obra baten aurrean gaude: barne-elkarriketa, literatura profano eta apokaliptikoen tradizioa alegoriaren erabilera. Baina areago oraindik, aurkezpen formalak beste ezusteko bat dakarkigu, zeren eta erabilitako literatur eredua konposizio-mota latindar peto-petoa baita –satira menipoarra² begiztatzen baita, nahiz eta jatorriz agian grekoa izan den--.

Varronen garaietatik datorren genero horren lanketa diatribarekiko erlazioan jarri ohi da, Menipo Gadarakoaren aipamenaren indarrez. Varronen obratik zati ugari ditugu oraindik ere, nahiz eta aski ez diren haren ehundura zehazki nolako izan zen jakiteko. Izaera kritikoa duten konposizioak dira, beren aurkezpenean prosa eta bertsoa nahasten dutenak. Genero horretako pieza osoen artean Senekaren Apokolokinthosis bakarrik daukagu, eta lehen aipaturiko Marziano Kapelaren obra bera. Petronioren Satyricon ere genero berari egozten zaio, eta hori ere ez dago osorik, jakina denez. Guztiek prosimetrona dute komunean eta, Marziano Kapela eta Fulgentzio Mitografoa alde batera utzirik, baita umorea, ironia eta parodiaren erabilera ere, Boezioengan aurkitzen ez ditugun faktoreak izaki horiek. Beraz, Consolatio obrari buruzko aipamenetan per satyram konposizio-prozeduraz hitz egiten zaigunean, satira erromatarrek bere-berea duen prosa eta bertsoa nahasterik sortzen duen aniztasun horren aipamen bezala ulertu behar da, Marziano Kapelaren baitan gertatzen denez.

Barne-gogoeten azalpen baten ezaugarria duen aurkezpenaren azpian, pertsonaia alegorikoen ikuspenaren bitartekaritza, prosa eta bertsoaren nahaste bat formalki erabiliz, Consolatio literatura latindarreko obrarik originalenetako bat da. Bere edukiak oraindik arazo bat baino gehiago du eta adituentzat interesgune izaten jarraitzen du.

² Genero greko gisa izan zezakeen existentziaz izena beste aztarnarik ez zaigu gelditu.

Carmen Codoñer

Universidad de ~~Salaman~~Salamanca

Bibliografía

Bark, W., "The legend of Boethius' Martyrdom" Speculum 21, 1946, 312-317. In Boethius. His life, thought and influence (ed. M. Gibson), Oxford, Blackwell, 1981.

Courcelle, P., "Boèce et l'École d'Alexandrie", Mélanges de l'École Française de Rome 52, 1935, 185-223.

Courcelle, P., Les lettres grecques en Occident. De Macrobie à Cassiodore. Paris, de Boccard, 1948. Esp. orr. 257-312

Courcelle, P., Historie littéraire des grandes invasions germaniques, Paris, Etudes Augustiniennes, 1964 (3).

Courcelle, P., La consolation de Philosophie dans la tradition littéraire. Antécédents et posterité de Boèce, Paris, Etudes Augustiniennes, 1967.

Crabbe, A., "Literary design in the De Consolatione Philosophiae" in Boethius. His life, thought and influence (ed. M. Gibson), Oxford, Blackwell, 1981 orr. 237-274

Curley, Th. F., "The Consolation of Philosophy as a work of Literature", Amer. Journ. Philol. 108, 1987, 343-367.

De Vogel, C.J., "Boethiana I", Vivarium 9, 1971, 49-66

Gegenschatz, E., "Die Freiheit der Entscheidung in der "Consolatio Philosophae" des Boethius", Mus. Helv., 15, 1958, 110-129

Gruber, J., "Die Erscheinung der Philosophie in der Consolatio Philosophae des Boethius", Rhein. Mus. 112, 1969, 166-186.

Gruber, J., Kommentar in Boethius "De Consolatione Philosophiae" Berlin-New York, 1978.

Kirby, H., "The scholar and his public" in Boethius. His life, thought and influence (ed.M. Gibson), Oxford, Blackwell, 1981, 44-69.

Klingner, F., De Boethii Consolatione Philosophiae, Berlin 1921.

Lerer, S., Boethius and Dialogue. Literary method in the Consolation of Philosophy, Princeton University Press, 1985.

Rand, E. K., "On the composition of Boethius' Consolatio Philosophiae", Harv. Stud. Class. Philol. 15, 1904, 1-28.

Reiss, E. "The fall of Boethius and the fiction of the Consolatio Philosophiae", Class. Journ. 77, 1981-82, 37-47.

Shanzer, D., "The death of Boethius and the "Consolation of Philosophy", Hermes 112, 1984, 352-366.

Shiel, J., "Boethius' Commentaries on Aristotle", Mediev. Renaiss. Stud 4, 1958, 217-244.

Shiel, J., "A recent discovery: Boethius' notes on the prior analytics", Vivarium 20, 1982, 128-139.

Silk, E.T., "Boethius' Consolatio philosophiae as a sequel to Augustine's Dialogues and Soliloquies", Harv. Theol. Rev. 32, 1939, 19-39.

LEHENENGO LIBURUA

I

Garai batean bertsoak pozik egiten nituen hau! orain negarrez kantatzera behartua nago. Hona, kamena samingarriek esaten didate zer idatzi eta beren zinezko malkoz bustitzen didate aurpegia. Ez zuten behinik behin nire bidelagun izateko beldurrik izan. Lehen, gaztaro lerden eta zoriontsuan, aintza ekarri zidatenek gaur kontsolatu egiten naute nire zahartzaro tristetan.

Iritsi da, izan ere, ustegabeen, nahigabeek azkartuta, zahartzaroa, eta urteak eta urteak sartu zaizkit barruan minaren aginduz. Behar baino lehenago ari zaizkit ile zuriak buruan zabaltzen eta dardar daukat, gorputz ahituan lasai-lasai eginik, larru-azala. Zorionekoa heriotza, ez baita gizakiaren alaialdiko urteetan etortzen; bai, ordea, askotan zoritxarrean dagoenak deituta. Jess! zeinen entzungor alde egiten duen oinazetan dagoen honengandik eta nolako krudeltasunaz uko egiten dion negarrez dauzkadan begiak ixteari.

Asturu maltzurra² bere ondasun ustelkorrez neure alde neukanean, ez nuen ia ordu goibel bat igaro. Orain, gezurti hark bere arpegi iluna okertu didanez geroztik, kupidarik gabe luzatzen dizkit atsegirik gabeko egunak. Zergatik aurpegiratu zenidaten, lagunok, hainbeste aldiz neure zoriona? Erori dena ez zegoen zimendu sendoen gainean tinko.

I

Gauza hauek isilik pentsatzen eta arrangura eta kexuok lumaz idazten ari nintzelarik, nire buruaren gainean emakume bat zegoela iruditu zitzaidan; aurpegi errespetagarria zuen eta begi bizia, gizaki arruntek ohi duten baino sarkorragoa; eta, hain zegoen indartsu, nekegabe eta kolore bizikoa, urte asko izanda ere, txiki-handian bereizezina baitzen, ezin zitekeela gure garaikidea zatekeenik pentsa. Izan ere, orain gizaki arrunten neurrietara biltzen zen; berehala ematen zuen, ordea, bere buruaren erpinaz zeru goiak jotzen zituela eta, burua gorago jasotzen zuenean, zeru-goietan sartzen zen, gizonen begietatik ostenduz. Hari mehe-mehez eta ehunki andegaezinez artezki jositako arropak zituen soinean; berak eginak ziren, gero berak esanda jakin nuenez. Edertasuna utzikeri apur batek kendua zien, pintura keetuen antzera. Grekerazko Π bat zuten beheko barrenean erantsia eta Θ bat goiko muturrean³, eta, bi hizki horien artean, eskailmailetan bezala ezarriak, zeinu batzuk beheko elementutik goikora zeramatenak. Baina esku zakarren batzuek urratua zuten noski soineko hura eta ahal zuenak ahal zuena kendua zion. Eskuinean liburu batzuk zekartzan; ezkerrean, berriz, errege-makila.

Nire ohearen inguruan musak ikusi zituenean, ni negarrez eta haiek nire oinazeak adierazteko hitzak eskaintzen, begiak sutan, esan zuen: "Nork utzi die emagaldutxar itxurazale hauei gaixo honengana hurbiltzen? Honen minarentzat sendagairik ez izateaz gain, oinazea handitu egingo baitiote beren eden gozoaz. Hauek dira, izan ere, adimenaren uzta naharoa grinaren emari antzuz itotzen dutenak eta gizonen buruak askatu ez baizik gaitzen mendean egotera ohitzen dituztenak. Eta, ohi duzuen bezala, losintxaz gizaki ezjakinen bat zuenganatzea ez litzaidake aintzat hartzekoa irudituko; horrek ez bailioke nire lanari inolako kalterik egingo. Baina hau, Elea eta Akademiako ikasketek elikatu duten hau?⁴ Zoazte hemendik gizona galbidean jartzeko bezain gozozario zareten Sirena horiek! Utzi niri gizon hau neure Musekin sendatzen!"

Talde hark bere burua horrelako irainekin laidotua ikusi zuenean, lotsak gorri-gorri, goibel eta lurrera begira alde egin zuen etxe hartatik. Baina ni, begiak malkoz lausotukak izaki, ez bainintzen hain aginte handiko emakume hura zein izan zitekeen ezagutzeko gauza, harri eta zur lurrera begira eta isilik gelditu nintzen, hark zer egingo zain. Orduan hurbildu eta ohearen ertzean eseri zitzaidan eta, tristurak goibeldutako aurpegia ikusi zidalarik, nire animaren artegatasunagatik arrengruraka hasi zen honako bertso hauek kantatuz:

II

O zeinen aztoratua dabilen adimena leize-zuloaren hondoraino amilduta! Itsu-itsuan kanpoko ilunpeetara doa, lurreko gauzen

irrikak handituta, neurri gabe hazi baitzaio ezinegon kaltegarria. Garai batean askatasun oso-osoa zuen eta, ortziko bidezidor guztietara jarria zegoenez, ederki ikusten zituen eguzkiaren argi zuri-gorria eta ilargi hotzaren aldiak; menderatua zuen eta zenbakitan neurtua zein izar ibili ohi ziren beren joan-etorri erratuetan galdurik. Bazekien zergatik harrotzen dituzten haizeen orroek itsasoko urak; zein den lur egonkorra jirarazten duen espiritua edo zergatik jaiotzen den ekialdetik gero Hesperian⁵ hondoratuko den eguzkia; nork epeltzen dituen udaberriko egunak, lurra lore eta larrosaz apaintzeko; nork eman dion urtearen bukaeran udazkenari mahatsa ugari ekartzeko indarra. Bazekien eta ohituta zegoen izadiaren ezkutuko arrazoiak bertsoan azaltzen. Orain hementxe dago adimenaren argia itzalita eta, lepoan katea astun bat bailuen, zamapean buru makur, ai! aurpegia derrigorrean lur zozo honi begira.

II

"Baina sendatzeko ordua da, esan zuen, ez lantuetan aritzekoa". Orduan bizi-bizi begiak niregana zuzendu eta, "Zu

al zara, galdetu zuen, nire bularretako esnea edan eta nire janariaz elikatuta indar handiko gizon egin zinen hura? Halako armak eskaini nizkizun, irmotasun garaiezinaz zainduko zintuzketela, zerorrek muzin egin izan ez bazenie. Ezagutzen al nauzu? Zergatik zaude isilik? Lotsatuta ala harrituta? Nahiago nuke lotsagatik balitz, baina, dakusadanez, harridurak hartua zaude". Eta ez bakarrik isilik, are gehiago, mutu eta hitzik gabe ikusita, leunkiro eskua bular gainean jarririk, "Ez dago inolako arriskurik, esan zuen, lozorroan dago; liluratutako anima guztien gaitza. Bere buruaz ahaztuta dago, baina azkar suspertuko da ezagutzen banau. Horretarako gai izan dadin, garbi diezaizkiodan gauza iragankorren ilunak apurren bat lausotutako begiak". Hori esanez, soinekoaren ertza hartu eta begietako malkoak lehortu zizkidan.

III

Orduan, iluna uxatuta, lehengo indarra eta argia itzuli zitzaizkidan begietara. Mendebaldeko haizearen bultzadaz hodeiak multzokatuta daudenean eta zerua laino eta euriz beteta, eguzkia ezkutuan egon ohi da eta gaua datorkio lurrari gainera izarrak agertu aurretik. Baina, orobat, Traziako leizetik datorren Boreasek⁶ jo eta giltzapean dagoen eguna zabaltzen duenean, distira egiten du bat-batean eguzkiak eta bere aurpegiaz kolpatzen ditu begi mirestuak.

III

Era horretantxe, goibeltasunaren ilunak uxatuta, zeruko argia ikusi nuen eta, adimena berreskuratuz, sendatzera zetorkidanaren aurpegia ezagutu. Beraz, begiz begi so jarri nintzaionean, neure inudea ikusi nuen, nerabe-aroaz geroztik hainbeste bider bere etxean hartua ninduen Filosofia. "Zergatik etorri zara, galdetu nion, bertute ororen irakasle zaren hori, goiko zeruetatik erbesteko nere bakardade honetara? Nire lagun izan nahi al duzu gezurrezko salaketak ekarritako estualdian?"

"Zer, esan zuen berak, utzi egingo al zintudan, bada, ene ikasle hori, eta nire izenarengatik hartu duzun zama hori eramaten ez al nizun lagunduko? Ez zen zilegi Filosofiak errugabea bidelagunik gabe uztea; nire aurkako salaketa gezurrezkoen beldur izan behar al nuen, bada, lehen ere horrelakorik gertatu ez balitz bezala? Zer uste duzu, oraingoa dela gaizkileen artean jakinduriak aurkitzen duen arriskua? Ez al nintzen lehen ere, Platonen garaiak baino lehenagotik, askotan aritu eroen ausarkeriaren aurka borrokan eta ez al zuen, Platon bizi zela, Sokrates haren maisuak nire laguntzaz zuzenkontrako heriotza garaitu? Gero, epikurotarrek, estoikoak eta gisa horretako jendilaia⁷ Sokratesen ondareari atzaparrak nola erantsiko zebiltzan, eta ni garraisi batean nengoen, harrapakin bezala bainerabilten, batek tira eta besteak saka; neure eskuz ehotako soinekoa urratu zidaten eta, puskak hartuta, erabat beretua nindutelakoan, alde egin zuten. Nire jantziaren arrasto batzuk erakusten zituzten eta ezjakin asko zoro-zoro okerreko bideetara lerratu zen haiek nire senitartekoak zirelako ustean.

Zeren, Anaxagorasen erbesteratzearen, Sokratesen edenaren eta Zenonen oinazeen⁸ berririk izan ez bazenu ere, estranjerian gertatuak baitira, Kanio, Seneka eta Sorano ezagut zenitzakeen, ez baitira aspaldikoak edo oroitzapenik utzi gabekoak. Nire zaletasunak eta, nire ohituretan heziak izan zirenez, gaizkileen inolako antzik ez edukitzeak eraman zituen hondamendira, eta ez beste ezerk. Ez zaitez, beraz, harri, bizitzako itsasoan uhinek astintzen nautenean, nire asmo nagusia gaiztoentzat desatsegina izatea baita. Horien multzoa, handia izanik ere, mespreziagarria da, gidaririk gabe baitabiltza batera eta bestera, begirunea galduta, ezjakintasun harroaren mendean. Inoiz, gure aurka borrokatu nahian, eraso egiten digutenean, gure gidaritzak gotorlekuratzen ditu bere taldeak, beste horiek harrapakintxo hutsal batzuk lapurtzen ari diren bitartean. Guk, orde, iskanbila eta amorrazio hartatik libratuta, erokeriak garaitu ezin dituen murruek babesean, barre egingo diegu huskeriarik hutsenak ere harrapatzen ari direnei.

IV

Bere barruko bakea galdu gabe Patu harroa hankapetzen dakiena eta zorionean bezala txarrean ere zutik aurpegi eman ahal izan duena ez dute makurtuko itsaso haserretuaren olatu mehatxukorrek ezta Vesubioari galgak hautsita darioten su-garrek ere, eta ez dute mugituko dorre garaiei jazartzen dakiten tximista irazekiek⁹.

Zergatik hainbeste harritu lapurretan ari diren jauntxo anker indargabeen erasoengatik? Ez etsi, ez beldurtu, armarik gabekoa eta ezindua duzu ahalgabearen haserrea. Baina beldur-ikararen menpean, baretu ezinik dabilenak edo, irritsez bere burua galtzeraino beteta, finkotasunik gabeko gauzak irrikatzen dituenak galdu du bere ezkutu babeslea eta arrastaka eramango duen katea ezarri dio bere buruari.

IV

"Entzun al dituzu hitz horiek?, esan zuen. Sartu al zaizkizu espirituaren barruan ala astoa liraren soinua entzunda bezain sorgor geratu zara? Zergatik negarrez? Zergatik malko jario?

Εξάνδα, μη κενθῇ νοῶ

Sendatu nahi baduzu, zauria agerian jarri beharko duzu".

Orduan nik, nituen indar guztiak bilduta: "Oraindik ere azalpen beharrean al zaude? Ez al dago aski agerian jo nauen zoritxarraren ankerra? Ez al zaitu hunkitzen leku honen itxurak berak? Hau al da gure etxean zeure egoitzatarako aukeratu zenuen liburutegia? Hemen aritu al zinen hainbeste aldiz, nire ondoan eserita, gizonen eta jainkoen jakindu-

riari buruz solasean? Hau al zen nire itxura eta planta izadiaren ezkutupekoak arakatzen nituenean, zeure makiltxoarekin zeruko izarren bideak erakutsi zenizkidanean, nire ohiturak eta bizimodu osoa zeruko ereduen antzera eratzen zenituenean? Hau al da zuri jarraituz irabazitako saria? Alabaina, zuk esan zenuen Platonen ahotik harako hura:

zorionekoak izango zirela herriak filosofoek gobernatzen bazituzten edo gobernariak filosofo bilakatzea gertatuko balitz. Zerorek adierazi zenuen, gizon haren ahoz, jakintsuek hartu behar zutela herrietako agintea, gobernua hiritar gaizto eta lazoen eskuetan uzteak zintzoei hondamendia ekar ez ziezaien.

Horrela, beraz, nik, zure erakutsiei jarraiki, aisialdietan zuregandik isilpean ikasitakoak herriaren gobernura eramanez nahi izan nituen. Zu zeu eta zu jakintsuen adimenean txertatu zaituena lekuko zatzaizkidate ez ninduela agintera guztien onaren zaletasunak beste ezerk eramanez. Hortik sortzen zitzaizkidan gaiztoekiko ezin konpondu larri eta saihestezinak eta, nire kontzientzi askatasunaren ondorioz, zuzentasunaren alde ateratzeagatik, jasan izan dut, aintzakotzat hartzeke jasan ere, boteretsuek egindako hamaika irain.

Zenbat aldiz gogor egin nion Kanigastori, herritar ahulen baten ondasunei erasotzen zienean! Zenbat oztopo jarri Triguila¹⁰, errege-etxeko arduradunari, hasia edo burutua zuen zuzenkontrakoren bat gauza ez zezan! Zenbat aldiz babestu nituen arriskutik, neure agintearen itzalpean, kanpotarren urre-gose zigorgabeak milaka gezur gaiztoz salatutako errukarriak! Ez ninduen inoiz inork neure zuzenbidetik okerbideratu. Probintzietako biztanleen ondasunak inoren lapurretak edo zergek xaututa ikusi ditudanean, kaltetuek hainbateko mina hartu izan dut.

Gosete handi hura gertatu zenean, Campaniako probintzia bahituraren kariaz miseria gorrian gelditzeko arrisku larrian ikusirik, guztion onaren izenean, pretorioko prefektuaren aurka liskartu nintzen eta, errege jakinaren gainean jarritz, auzia irabazi egin nuen, bahitura buru ez zedin lortuz. Palatinoko txakur gosetien ahoko zulotik libratu nuen Paulino kontsula, beren ustez haren

ondasunak ia-ia irentsiak zituztenean. Albino kontsulak frogarik gabeko salaketaren zigorrak jasan ez zezan, Zipriano haren salatzailearen gorrotoari aurre egin nion. Ez al dira aski nire aurka sutu ditudan handizkien haserreak? Alabaina, besteek babes hobia eskaini behar zidaten zuzenaren maitasunez neure buruarentzat gortesauen artean babes bila ibili ez nintzen honi. Eta nork salatuta zigortu naute? Salatzaileen artean Basilio da bat; errege-etxetik bota egin baitzuten, bere zorren handiak behartu zuen ni salatzeraz.

Opilonek eta Gaudentziok, berriz... Beren konta ezin ahala lapurretarengatik erbeste-zigorra ezarri zien erregeek, baina ez zuten obeditu nahi eta jauretxe baten babesera bildu ziren. Erregeek, hori jakinik, agindu zuen, izendatutako egunean Ravenatik joaten ez baziren, bota zitzatela hiritik, lotsa haien kopetan burdina gorituz markatuta. Jaso al zezaketen mehatxu zorrotzagorik? Eta egun hartan bertan agertu zuten, eta onartu zieten, nire izen onaren aurkako salaketa. Zergatik, ordea? Nire jokaerak merezi ote zuen horrelakorik? Salatzaile justu bihurtu ote zituen ezarri zitzaaien zigorrak? Horrela, beraz, errugabea salatua izateak ez zuen Patua lotsatu, eta are gutxiago salatzaileen bilaukeriak. Ba al dakizu zein den aurpegiratu didaten gaiztakeria? Senatua salbatu nahi izan omen nuela. Jakin nahi nola? Senatuaren traizioa frogatuko zuten agiri batzuk eskuartean zituenari haiek aurkeztea eragotzi omen nion.

Zer derizkiozu, neure irakasle horrek? Neure hoben hori ukatu egin behar al nuen, zuretzat lotsakizun ez izatearren? Egia esan, horixe nahi nuen eta horixe nahi izango dut beti. Aitortu? Igaroa zen, ordea, salatzaileen axioa galarazteko aukera. Txarkeria deitu behar ote diot, bada, erakunde haren ona nahi izateari? Hark bere erabakiarekin niri egin zidanak bai merezi zuen izen hori. Baina beti bere buruari gezurretan ari zaion ezjakintasunak ezin ditu gauzen balioak aldatu eta ez dut uste, Sokratesek irakatsitakoari jarraituz gero, egia ezkutatzea edo gezurra ontzat ematea zilegi zaidanik. Dena den, gauzak

nolanahi direlarik ere, auzi horren erabakia zure eta jakintsuen eskuetan uzten dut. Baina nire ondorengoei gertaera hauen egia ezkuta ez dakien, idatzita utziko ditut gerorako.

Izan ere, zer esan daiteke erromatarrentzat askatasuna eskatzen omen nuela eta gezurrezko gutunez nire aurka egin duten salaketaz? Garbi aski azalduko zen hori guztia gezurra zela salatzaileen beren aitortzaz, edozein auzitan horrexek du eta indarrik handiena, baliatzen utzi izan balidate. Izan al dezaket era honetan askatasunaren itxaropenik? Nahiago nuke esperantza apurren bat balego! Kanioren hitzekin erantzungo nukeen. Germanikoren seme Gaio Caesarek esan zionean "nire aurkako azpi-jokoen berri bazenekien zuk" eta besteak honela erantzun: "Nik jakin izan banu, zuk ez zenukeen jakingo". Arazo honetan, saminak ez ditu lausotu nire zentzumenak, arranguratan ibiltzeraino, gaizkileek bertutearen aurka matxinada gaiztoak antolatuta izanak, espero zutena lortu izanak baizik, horrexek utzi nau sor eta lor. Zeren, gauza txarrak nahi izatea gure ahuleziaren hutsegitea izango da beharbada, baina errugabearen aurka gaizkileari gogoak ematen dion guztia Jainkoaren begien aurrean gertatzea izugarrikeria da. Horregatik galdetu zuen zure umeetako batek¹¹: Jainkorik baldin bada, nondik dator gaizkia? Eta nondik ongia, Jainkorik ez baldin bada? Bidezkoa da gizon zintzo guztien eta senatu osoaren odola eskatzen duten gaizkileek nire hondamendia nahi izatea, zintzoen eta senatuaren aldeko ikusten baininduten. Baina senatoreengandik ere horrelako tratua merezi ote nuen? Gogoan edukiko duzu, zerorrek aurrez aurre adierazten baitzenidan zer esan eta zer egin, gogoan edukiko duzu, diot, Veronan errege bere aurkako iraina, Albinoren bakarraren errua zena, senatu osoari egotzi nahian zebilenean, neure burua arriskuan jartzen nuela jakinik ere, senatuaren errugabetasunaren alde atera nintzela. Badakizu hauek denak egia hutsa direla eta ez naizela horregatik inoiz harrotu.

Moteldu egiten baita ongi egin izanaren barne poza egindakoaren saria arrandikeriaz kanpotik jasotzen denean. Baina ikusten duzu nolako saria izan duen nire errugabetasunak: benetako bertuteari dagokion saria jaso orde, egin gabeko hobenaren zigorpean nago.

Eta noiz gertatu da, norbaitek gaizki egin duela aitortuta, epaileak zorroztasunean bat etortzea eta inor ere ez kupitzea, gizakiaren burua ahula dela edo Patua hilkor guztientzat aldakorra dela pentsatuz? Jauretxeren bati su eman nahi izan banio edo

apaizak sakrilegioz ezpataz akabatu, gizon-emakume zintzo guztien heriotza prestatzen aritu izan banintz, aurrez aurre eta aitortu eta frogatutako erru baten epaia hartuko nukeen. Baina orain, ia bostehun mila pausutara nagoela, niri entzun gabe eta inoren babesik gabe, ondasun guztiak kendu eta heriotz zigorra ezarri didate senatuaren aldeko jaieran bizi izateagatik. Mereziko luke, bada, senatuak hori krimentzat inori ez egozte. Salatzaileak berak ohartu ziren zenbateko ohorea zen horrela salatua izatea eta, gezurti haiek, hoben horri beste gaiztakeria bat erantsiz, esan zuten, dedu hura lortzearren, neure kontzientzia sakrilegioz zikindu omen nuela. Zuk, ordea, neure barruan egoitza zenuen horrek, uxatua zenidan nire animatik gauza galkor guztien irrika, eta ez zegoen sakrilegioentzako lekuri zure begien aurrean. Nire belarri eta adimenean egunero isurtzen zenuen harako Pitagorasen esaldi hura: $\epsilon\pi\omicron\nu\ \theta\epsilon\omega$ Bidegabekeria zen nik espiritu zirtzil batzuei laguntza eskatzea, zuk jainkoen antzeko¹² egiterainoko zintzotasunera bideratua nendukazun eta. Bestalde, nire etxe garbiak, tatxarik gabeko lagunek, aitaginarreba santu eta zu bezain errespetagarriak babesten naute horrelako gaiztakeriaren susmotik beretik ere. Baina, izugarria da, zuregatik egozten didate hainbeste handiko txarkeria, eta, are gehiago, aztikeriatik hurbilago omen nagoela zure erakutsiak eta ohiturak barneratuak ditudalako. Horrela, beraz, zuri izan dizudan jaierak niri mesederik ez egitea aski ez dela, zu ere zauritu egin zaitu nire aurkako erasoak. Nire zoritxarrak beste honetan jotzen du, berriz, goia:

askok ez dituela gauzak duten baliotik neurtzen, baizik eta ondore onaren arabera juzgatzen, eta, horrelakoen ustez, arrakasta lortzen duten ekintzak bakarrik direla zentzuzkoak. Horregatik, besteren estimua da dohakabeak galtzen duen lehen ondasuna. Tristura ematen dit herriaren era guztietako zurrumurruak eta esames nahastuak gogora ekartzeak. Hauxe da zoritxarraren azkeneko zama: dohakabeari hobenen bat egozten zaionean, neke horiek guztiak merezi dituela iruditzen zaio jendeari. Niri ondasun guztiak kendu dizkidate, karguetatik jaurtiki naute, izen ona lohitu didate, eta guztia, zintzo ibiltzeagatik.

Eta begien aurrean daukadala iruditzen zait: gaizkileen lapur-zuloak pozez gainezka daude; dongeetan dongeenak zapokeriaz salaketa berriak asmatzen dakuskit eta zintzoak neurearen antzeko zoritxarraren beldurrez. Gaizkileak, saria irabazteko itxaropenez, edozein txarkeria egitera ausartzen dira, errugabeak, segurantza galduta ez ezik, beren burua babesteko eskubiderik ere gabe aurkitzen diren bitartean. Horregatik pozik deadar egingo dut:

V

Zeru izarratuaren sortzaile hori, zuk, betiko jauralkian eserita,¹³ ortziari jirabira azkarrak eragiten dizkiozu eta izarrak zeure legepean jarriak daukazzu. Ilargiari, ilbetekoan bere anaiaren argi guztiaz agerian dagoela, izar txikiagoak ezkutarazten dizkiozun bezala, gero, ilberriko motelaldian Feborengandik hurbilagoz, argi guztia galarazten diozu. Zure eraginez Venusek, gaulehen ilunean argi

eginez, aurrean eramaten ditu beste izar indargeak, eta gero, Febo ateratzean, berriro gidak aldatu ohi ditu eta zurbildu egiten da. Neguko hotzak zuhaitzei hostoak kentzen dizkienean, eguna moztu egiten duzu eta udako beroa etortzean gaueko orduak azkarragotzen dituzu. Zure indarrak bere mendean dauzka urtearen aldiak, eta horrela, Boreasen haizeak eramandako orri leunak Zefirok berriz ekarriko ditu eta, Arturok hazitan ikusitako laboreak handitutakoan, Siriok berotuko. Ez dago ezer zure lege zaharretik aske, ezta ere zuk jarritako lekuan bere eginkizuna betetzen ez duenik. Gauza guztiak xede jakinez gobernatzen dituzun horrek, gizakien egintzak bakarrik ez dituzu merezi duten eran gidatu nahi. Zergatik egiten du hainbeste jirabira Patu labainkorrak? Errugabeari ezartzen dio hobenak merezi duen zigorra; gaiztoak, berriz, jauralki jasoan daude lasai jarrita, zuzenkontra ohitura guztiak eta zintzoen lepoak zapalduz. Bertutea

ilunpe ezkutuan dago eta zuzenak jasaten du gaizkileen txarkeria. Ez gezurrezko zinak ez egi itxurako iruzurak kalterik egiten die. Baina, beren indarrez baliatu nahi dutenean, herri asko menedean dauzkaten erregeak ere menderatzen dituzte pozik asko.

Begiraiozu mundu triste honi, zein baitzara ere izadiaren legeak ezartzen dituzun hori. Gu gizonok, zure lanaren zati hutsal baino gehiago garenok, Patuaren itsasoak astintzen gaitu. Zuk, izadiaren gidari horrek, kateatu olatu harrotuak eta lotu tinko lurra zeru handia zuzentzeko daukazun lege iraunkor beraz.

V

Nik arregura hauek guztiak oinaze batean azaldu nizkiolarik, hark aurpegi atseginez eta nire kexuez kupitu gabe esan zuen: "Zu goibel eta negarrez ikusi orduko ohartu nintzen erbesteratutako dohakabe bat zinela. Baina ez nukeen zure erbestealdia hain luzea izango zenik jakingo, zerorrek esan ez bazenit. Hala ere, ez zaituzte aberritik bota; urruti zaude, besterik ez. Baina, zeure burua erbesteratutzat hartzea nahiago baduzu, zu zeu atzerriratzen zara. Ez baitu inork zilegi zuri horrelakorik egitea. Zein herritako jatorrikoa zaren gogoan baduzu¹⁴, ohartuko zara ez dutela, garai batean Athenas bezala, herritar soilek gobernatzen.

εἰς κοιρανὸς ἐστίν, εἰς βασιλεὺς

herritarren erbesteratzeak ez baizik eta ugaritzeak pozten duena. Horren mendean egotea eta horrek agindutakoa betetzea

da askatasunik handiena. Ez al duzu zeure herriko lege zahar haren berririk?¹⁵ Lurralde hura bere bizilekutarako aukeratu duena ez daukatela, alegia, handik jaurtikitzerik. Murruarte

haien babesera biltzen denak ez baitu erbesteratua izateko beldurrik. Era berean, han bizi izaten jarraitu nahi ez duenak eskubide horiek galdu egiten ditu. Ez dit, beraz, leku hau ikus-teak zirrararik egiten, zure aurpegiak baizik. Eta liburutegiko pareta beiraz eta boliz jantzitakoak baino nahiago dut zure adimeneko egoitza, hortxe baitaukat jarrita, ez liburu-mordo bat, liburuak estimagarri egiten dituen baizik, hau da, haietan ezarri nituen pentsamenduak. Zuk denen onerako saiatuz egin dituzun merituei buruz egia batzuk esan dituzu, baina ezer gutxi hainbeste handiko ongiak egina izateko. Guztien jakinekoa dena besterik ez duzu aitatu zure aurka egiaz edo gezurrez egindako salaketei buruz. Salatzaileen txarkeria eta iruzurrez beharbeharrezkoa besterik ez duzu azaldu, dena dakien herriaren ahoz barra-barra eta hobeto zabal daitezen. Senatuaren zuzenkontrako jokabidea ere bortizki gaitzetsi duzu. Niri jaurtikitako irainak min eman dizu, eta deitoratu duzu nire izen onari egindako laidoa. Azkenik, Patuaren aurka sumindu zara eta, sariak merituen heinean ematen ez direlako arreguratu ondoren, Musa haserretu baten gisan, lurra ere zeruan dagoen bakeak goberna dezala eskatu duzu. Baina hainbeste min, tristura eta haserrek hartua zauzkatenez, zauden egoera horretan, ez lizukete onik egingo sendagai indartsuek. Beraz, arinxegoak erabiliko ditugu, suminaren bortitzak gogortutako handitu hori erremedio sendoagoak hartzeko moduan biguin dezan nire esku leunak.

VI

Karramarroaren konstelazioa Feboren izpi biziek berotzen zutenean hazia ildo elkorretan erein zuena, Zeresengan jarritako itxaropenak hutseginda, basora doa, aritzaren azpira, ezkur bila. Ez joan inoiz baso gorrilunera liliubel bila ipar-haize zakarrak landa astintzen duenean, ez ibili udaberrian esku lehiatsuz ahienak estutzen, mahatsa bildu nahian; udazkenean ematen ditu bere opariak Bakok. Jainkoak berari derizkion eran ezarri dio sasoi bakoitzari bere eginkizuna, eta ezin eraman du berak ezarritako ordena azpikoz gain jartzerik. Horrela, ez du atarramendu onik izaten gauzen berezko martxa aldatzen duenak.

VI

"Utziko al didazu, beraz, lehenbizi galderatxo batzuen bitartez zure adimenaren egoera aztertu eta arakatzen, nola senda zaitzakedan jakiteko?" "Nahi duzun galderak egin, esan nuen, nik erantzungo dizut". Orduan berak: "Zer uste duzu, mundu hau inolako araurik ez duten halabeharrek darabilkitela eta ez dela hori guztia gidatuko duen adimenik?" "Ez nuke inolaz ere pentsatuko, esan nion, horren zuhur dabiltzan gauzak arau gabeko halabeharrez mugitzen direnik; badakit egin zituen Jainkoak berak gidatzen dituela eta ez da iritsiko ni uste horretatik aterako nauen egunik".

"Halaxe da, esan zuen berak. Horixe kantatu duzu arestiko bertsoetan, eta lantuek jo dituzu Jainkoaren zaindaritzapetik gizakiak bakarrik daudelako baztertuak, baina ez duzu zalantzarik beste gauza guztiak adimen batek darabiltzala. Sor eta lor nago, ordea, zu, hain pentsamendu sanoen jabe zaren hori, honen gaixo ikusita. Azter dezagun sakonago; hemen zerbait falta dela sumatzen dut.

"Esaidazu: mundua Jainkoak gidatzen duela zalantzarik ez baduzu, zeren bitartez gobernatzen duen ba al dakizu?" "Ez dut ia-ia, esan nion, zure galdera hori ulertzen; ezingo dizut, beraz, erantzun". "Oker ote nengoen, arestian, pentsatuz hemen badela zer edo zer zuri artegatasunaren gaitza hesian egindako zirrikitu batetik bezala espirituan sartu dizuna? Esaidazu: gogoan al duzu munduaren helmuga zein den edo izadia bere osoan norantz doan?" "Bai, hori banekien, baina tristurak kamustu egin dit oroimena". "Badakizu gauza guztiak nondik sortuak diren, ezta?" "Badakit: erantzun nion, Jainkoarengandik". "Nolatan, beraz, hasiera ezagututa, munduaren helburua zein den jakin ez? Horrelakoxea da artegatasunaren eta nahasmenduaren indarra: gizona bere onetik ateratzeko gauza dira, baina ezin dute errotik atera eta erabat berenganatu.

Hara beste galdera bat: ahaztu egin al zara gizakia zarela?" "Nola ahaztuko nintzen?" "Esango al didazu, beraz, gizakia zer den?" "Zer galdetzen didazu: animalia adimendun eta hilkorra naizela ba ote dakidan? Hori badakit, eta aitortzen dut". "Eta ziur al zaude beste zerbait ere ez zarela?" "Ezta ezertxo ere".

"Badakust, esan zuen, zure gaitzaren jatorria beste bat dela; eta huraxe izaki indartsuena: zer zaren ahaztu egin zaizu. Horregatik, argi eta garbi ikusi dut zure gaitza nondik datorren, eta baita sendatzeko bidea ere. Zeure buruaz ahaztu egin zara eta, horrela nahastuta, kexu zara ondasunak kendu eta erbusteratu zaituztelako. Gauza guztien helmuga non dagoen ez dakizulako, uste duzu gizon gaizkile eta ahaltsuak direla zoriondun. Bestalde, ahaztu egin zaizu mundua noren aginduz gobernatua dagoen eta patuaren gorabehera horiek inoren gobernurik gabe gertatzen direlakoan zaude. Horrelako egoera batek gaitza ez ezik heriotza ere ekar dezake. Emaizkiozu eskerrak osasun-emaileari oraindik bere eskuetatik erabat utzi ez zaitulako. Eskura daukazu zeure osasunarentzako sendagairik bikainena: munduaren gobernuaren noren ardurapean dagoenari buruz iritzi zuzena duzula, ez baituzu uste asturu burugabearen mendean dagoenik, Jainkoaren adimenaren baitan baizik. Ez izan, beraz, beldurrik; txinpart txiki horretatik bizia emango dizun beroa sortuko baita. Baina ez da oraindik sendabide sendoagoen garaia iritsi. Eta gauza jakina da adimena gezurrezko iritziz betetzen dela bere izatez egia dena baztertzen duenero, eta iritzi oker horiek dakarten asalduaren lausoak begien bista nahasten duela; beraz, zure adimena poliki-poliki txaplata txiki eta leunez gozatzen saiatuko naiz, gezurraren ilunpea uxaturik, benetako argiaren distira berrezagut dezazun.

VII

Zeruko izarrek ezin eman dute argirik hodei beltzek estaltzen dituztenean. Hego-haize nahastuak itsasoko uhinak harrotzen dituenean, ordura arte egun lasaien pareko ur garden eta laua zena,

hondoko lohiak arretuta, ilun azaltzen da bat-batean. Mendi-goietatik behera datorren ur-jauziak askotan jotzen du haitzetik libratutako harria. Zuk ere egia begi argiz ikusi nahi baduzu eta bide zuzenetik ibili, utzi alde batera alaitasuna, uxatu beldur-ikara eta urrundu itxaropena eta nahigabeak. Adimena, horrelakoen mendean dagoenean, ilunpean eta hedez lotua baitago.

BIGARREN LIBURUA

I

Horiek esan ondoren, isildu egin zen une batez, eta, isilaldi horrekin nire arreta suspertu zuenean, honela jarraitu zuen: "Zure nahigabearen arrazoia eta zioa ondo ulertu baditut, lehengo zoriona galdu izanak eta hartara itzuli nahiak zauzka minduta; Patuaren aldaketa horrek, edo aldatu delako usteak, nahastu dizu espiritua. Ezagunak ditut sorgin haren gezurrezko trikimailuak eta badakit atzipetu nahi dituenen zein balaku leunak egin ohi dizkien gero ustegabeen bazter utzi eta jasanezinezko oinazetan murgiltzen dituen arte. Eduki gogoan nolakoa den eta nola jokutzen duen, eta ohartuko zara ez dizula ezer eman ezta ere ezer kendu; baina ez dut hori zuri gogorarazten ibili beharrik. Bazenekien, izan ere, zeure alde balakari zeneukanean hari hitz ausartez gogor egiten; eta nire jauretxean ikasitako argudioz ekiten zenion. Baina gauzak bat-batean aldatzeak beti jartzen du anima zalantzan; zu ere horrelaxe zaude, oreka apur bat galduta.

Edari gozo eta atseginen bat hartzeko garaia duzu, ordea, eta horretxek prestatuko dizu barrena sendagai indartsuagoak irensteko. Betor, beraz, Erretorikaren aholku limurikorra, gure aginduak bazter uzten ez dituenen bakarrik bide zuzenetik ibiltzen den hura, eta, harekin batera, abes ditzala gure etxean hazitako Musikak kantu arin zein benazkoak.

Zerk eraman zaitu, gizona, tristura eta lantuetara? Gauza berri eta ezohizkoren bat ikusi bide duzu. Zure zoria aldatu egin delakoan zaude, baina oker; beti berdin-berdin jokatu izan du Patuak zurekin, berak ohi duen aldakortasunez. Gaur bezalakoxea zen gezurrezko zorionaren beitarekin balaguz limurtu zintuenean. Ohartu zara jainko itsu horrek bi aurpegi dituela. Beste askorentzat oraindik ere ezkutuan dagoena zuk argi eta garbi ikusi duzu. Haren ohiturak onesten badituzu, ez kexa; eta, haren maltzurkeria gorroto baduzu, mesprezia ezazu bera, eta gaitzetsi haren jolas kaltegarriak. Izan ere, gaur hainbeste handiko nahigabea ekarri dizun hark berak eman behar zizukeen lasaitasuna. Bazter utzi zaitu, ez baitu inork ziur egon behar hark ez duela zokoratuko. Zer uste duzu, estimatzekoa dela ihes egiten duen poza? Nola maite izan dezakezu une bateko zoriona, iraungo duela inolako segurantzarik ez izanda eta alde egitean negarrez utziko zaituela jakinaren gainean? Nahita ere ezin eutsi badiozu eta ihes egitearekin zoritxarra badakar, ez al du iheslari hark beti gero etorriko den ondikoa iragartzen? Ez da aski begien aurrean dagoena soilik ikustea; zuhurak gauzen geroa neurtzen daki, eta Patuaren aldakortasunaz ohartzeak berak izu-indarra kentzen die haren mehatxuei eta irrikagarritasuna haren goxokeriei. Azkenik, behin Patuaren uztarpean jarritz gero, haren alorretan gertatzen den guztia lasai hartzea komeni da.

Ez al litzateke zuzenkontrakoa hura zeure jabe aukeratu eta gero haren joan-etorriak zuk erabakitzea? Eta, era horretan, ez al zenuke aldatu ezin duzun zoria gaiztoagotuko? Haize-ohiala haizearen baitan jarrita, ez zara nahi duzun lekura joango, haize-boladak zaramatzanera baizik; hazia ereiten duzunean, zerorrek bilatu beharko duzu urte murriz eta oparoen arteko oreka. Patuaren mendean jarri al duzu zeure burua? Jabe horren aginduetara egon behar. Jiraka dabilen gurpil horren oldarrari kontra egin nahi diozula? Baina burugabeetan burugabeen horrek ez al dakizu gelditzera egingo balu, bere izateari berari utziko liokeela?

I

Patuak, Euripo harroaren antzeko jarrita, bere esku burgoiz gertaeren martxa aldatzen duenean, artean beldurgarriak ziren erregeak zapaldu egiten ditu eta garaituen buruak itxuraz bakarrik jasotzen ditu iruzurti hark. Ez baititu dohakabeen negar-zotinak aintzakotzat hartzen; are gehiago, barre egiten die berak eragindako malkoei. Horrelaxe jolasten da, horrelaxe azaltzen du bere indarra eta bere ahalmenaren harrigarria erakusten, ordu beteren buruan norbait orain lurjota uzten eta gero alai jartzen duenean.

II

Gauza batzuk hizketatu nahi ditut zurekin, Patuaren beraren berbaz baliatuz. Zerorrek esango didazu zuzen ari den ala ez. "Gizona, zergatik ari zakizkit egunero kexuka? Zuzenkontrakoren bat egin al dizut? Zer ondasun kendu dizut nik? Zerorrek aukeratu epailea, ohorea edo ondasunak ebatsi dizkizudalako auzitara eraman nahi banauzu, eta, gizakiak horiek

bereak izan ditzakeela frogatzen baduzu, pozik aitortuko dizut eskatzen duzun hori zeurea duzula.

Izadiak amaren sabeletik atera zintuenean, esku hutsik eta larrugorri jaso zintudan eta neure epelaz berotu, zuri nizun maitasunak eskura dauzkadan aberastasun guztien ugaritasunaz inguratu zintuen eta bigunegi hezi zintudalako zaude gaur kexu nire aurka. Egun neure eskuetatik utzi nahi zaitudala? Eskerrak eman behar zenizkidake orain arte

besteren ondasunez gozatu zarelako; ez duzu zeurea galdu bazenu bezala arregaraka aritzeko eskubiderik. Zergatik lantuak? Nik ez dizut ezer bortxaz kendu. Ondasunak, ohorea eta horrelakoak denak nereak dira, ni nagusi ezagutzen nauten jopuak; neu natorrenean, haiek ere bai nirekin batera; nik aldegin ez gero, haiek ere joan egiten dira. Beldurrik gabe esan dezaket: ondasunak galdu dituzulako kexu zaude, baina zureak izan balira, ez zenituzkeen galduko. Nik bakarrik ote daukat, bada, neure eskubideak erabiltzea debekatuta? Zeruak haizu du egun argitsuak ekartzea gero gauaren iluntasunez estaltzeko. Haizu du lurak bere azala lore eta fruituz edertu eta hala berean hodei eta hotzez itsustea. Haizu du itsasoak ur barez irribarretsu azaltzea, gero ekaitz eta olatuz beldurgarri agertzeko. Eta gizakiaren irrika aseeginak nire ohituretan arrotza den iraupenera behartuko ote nau? Hauxe da nire indarra, jolas horretan nabil etengabe; jira arinak eragiten dizkiot neure gurgilari; poz ematen dit goi eta beheak azpikoz gaineratzeak. Igo, nahi baduzu, gurgil horretara, baina baldintza batekin: nire jokaerak eskatu bezain laister, irainik egiten dizudala pentsatu gabe, jaistekotan. Ez al duzu, bada, nire ohituren berririk? Ez al dakizu lehenxeago Ziro beldurtzen zuen Kreso errege dohakabea suari eman ziotela, eta zerutik bidalitako euriak salbatu zuela? Ahaztu al zaizu Paulok errukizko malkoak isuri zituela berak gatibu hartutako Perseo erregerengatik? Zer deitoratzen dute tragediek, beren uluetan, araugabeko oldarrez eraitsitako erresuma zoriontsuak besterik? Ez al zenuen ikasi umetan Jupiterren jauretxean bi upela zeudela, $\delta\omicron\iota\omicron\nu\zeta\pi\iota\theta\omicron\nu\zeta\tau\omicron\nu\mu\epsilon\nu\epsilon\nu\alpha\kappa\alpha\kappa\omega\nu\tau\omicron\nu\delta\epsilon\tau\epsilon\rho\omicron\nu\epsilon\alpha\omega\nu$ 16 Zer gertatzen da, beraz, ondasunetatik gehiago hartzen baduzu? Zer zuregandik erabat aldentzen ez banaiz? Zer nire aldakortasun hau bera zuretzat aldi hobeak itxaroteko arrazoia baldin bada? Dena den, ez ezazu adorea gal eta, beste guztiak bezalakoa zarenez, ez opa zeure buruari eskubide berezirik.

II

Ugaritasunak, mukuru betetako adarretik eskua atera gabe, ondasunak itsasoak bere olatu arroez dakartzan hondar-aleak eta gau argian ageri diren izarrak baino ugariago banatuko balitu ere, ez lirateke isilduko gizakien kexu eta negarrak. Jainko eskuzabalak eskariak entzun eta gizonen irrikak urrez eta ohorez beteta ere, emandakoa gutxi irudituko baitzaie eta, lortutakoa tirria basatiz irentsita, ahoko zuloa zabalik, gehiago eskatuko dute. Zerk galgatuko du lotura guztiak puskatu dituen zalekeria, emandako oparien uholdeak egarria biziagotu egiten baitio. Ez da inolaz aberats izango beti bere buruari txiro iritzirik, etenik gabe kexu eta negar dagoena".

III

"Patuak bere alde horrelako gauzak esango balizkizu, erantzunik gabe geratuko zinateke; baina, zeure arrangura horiei eusteko moduko arrazoirik baduzu, esaidazu zein den. Entzungo dizut". Nik orduan: "Distira handiko hitzak dira horiek eta Erretorika eta Musikaren ezti gozoan bilduta daude; entzuten diren bitartean bakarrik ematen dute atsegin. Horiek baino sakonagoa da, ordea, dohakabearen samina. Beraz, hitz horien hotsa belarrietan isiltzen denean, larriagotu egiten da animaren nahigabea". "Halaxe da", orduan berak. "Hau ez baita zure gaitzak behar duen sendagaia; zure oinaze iraunkorra arintzeko lehen erremedio bat besterik ez da. Garaia etortzean, emango dizut barrenago sartuko zaizun zerbait. Etzazu, ordea, zeure burua errukarritzat jo. Ahaztu egin al zazizkizu lehengo zorionaldiak?"

Ez dut aitatu nola, aitarik gabe geratu zinelarik, handizkiek beren ardurapean hartu zintuzten eta nola hiriko jauntxoan arterako, ahaidearterik jasoenerako, aukeratua izan zinen; itunkide baino lehenago hasi zinen horrelakoen adiskide izaten. Nork ez zuen uste gizonik zoriontsuena zinela, hala zure aitagin-amaginarreben jasotasunarengatik nola emaztearen itzalorengatik eta ondorengoz mutikoak izateko zoriarengatik? Isilpean utziko ditut, gauza arruntak baitira, gaztetxo zinela hartu zenituen ohoreak¹⁷, helduei ukatzen zaizkienak; zure zoriona erpinera eraman zuenaz mintzatu nahi nuke. Ondasun iragankorren jabe izateak inolako poztasunik baldin badakar, ezaba al dezake zoritxarraren zamak, denik handiena izanda ere, zure bi semeak kontsul eginda, senatoreen erdian, jendearen goraka-oihuen artean etxetik ateratzen ikusi zenitueneko poza? Senatuan haiek beren aulki kuruletan eserita zeudela zuk egindako hitzaldiarengatik errege zure adimena eta etorria goraiatu zituen; zirkoan,

berriz, bi seme kontsulen erdian herriaren itxaropena asebate zenuen zeure hitzen ederraz. Ez zenion, noski, Patuari goralmenik ukatuko berak gozatu zintuenean, haren ederra zeurekin zenuenean? Partikular bati inoiz eman zaion saririk jasoena eskuratu zizun. Harekin orain arteko kontuak garbitzen hasi nahi al duzu? Hauxe da begi makurrez begiratzen dizun lehenengo aldia. Alderdi atseginen eta goibelen zenbatekoak erkatzen badituzu, ezingo duzu ukatu oraindik ere zoriondun zarela. Baina, lehengo zorion-itxura hark ihes egin dizulako, dohakabe zarela uste baduzu ere, ez duzu goibeltzeko arrazoirik, oraingo negarbide horiek ere joango baitira. Lehenengo aldiz, ustegabeen eta arrotz al zaude bizitzako pasadizo horretan? Zer uste duzu, giza bizitzan ezer iraunkorrik badela, gizakia bera une batetik bestera deusezten da eta? Zeren, inoiz Patuaren emariak iraun badezakete ere, bizitzako azken eguna, luzaroen jota, zorion horren heriotz eguna da. Ondorioz, bost axola hiltzean zuk zeuk Patua uztea ala hark zu zapuztu eta aldegitia.

III

Febo bere koadriga zuri-gorritik eguratsera argia zabaltzen hasten denean, izarrek beren aurpegi zuriak ezkutatu egiten dituzte gar haien indarrak itsututa. Basoa udaberriko haize epelaren arnasak eraginda lorez jantzita dagoenean, Austro lainotsuak bere enbat kaltegarria bota-

tzen badu, akabo zuhaitzen edertasuna. Askotan itsasoa miragarri egon ohi da

bare-bare, baina, iparrak jotzen duenean, olatu apartsuz astintzen ditu urak. Munduaren itxura hain mudakorra baldin bada, hainbeste handiko aldaketak jasaten baditu, zaude zu zeure fedea gizonen zorion iheskorrean jarrita, fida zaitez ondasun galkorretan. Hauxe dago betidanik legez ezarria: sortutakorik ezer ez dela iraunkor.

IV

Nik esan nion: "Egia diozu, bertute guztien ama horrek, eta ezin uka dezaket, oso azkar etorri zitzaizkidala bata bestearen ondoren ondasunak. Baina horrexek berak ematen dit minik biziena. Izan ere, zorigaiztorik gaiztoena lehen zorientsu izanak ematen du". "Zeure iritzi okerrean ondorioz minduta bazaude, ezingo diozu egoera horren errua kanpoko gauzei egotzi. Halabeharrezko zorionaren izen hutsalak limurtzen bazaitu, komeni da orain zenbat ondasun eta zeinen handiak dituzun neurekin batera aztertzea. Beraz, zeure altxorrean gehien estimatzen zenuen ondasuna oraindik ere, Jainkoak hala nahita, bere osoan zeurekin badaukazu, zuzena al da zorritxarrengatik arreguratzea zenuen gauzarik onena oraindik ere eskura duzula?

Bizirik eta sasoi oneko dago Simmako zure aitaginarreba, gizadi osoaren aintzarik distiratsuena den hura, gizon zintzo eta jakinduriaz betetakoa, zuk zalantzarik gabe bizitzaren truke erosiko zenukeen ohorea; eta hura, bere nekeak ahaztuta, zuri egin dizkizuten irainengatik nahigabetuta dago. Bizi duzu emazte garbia ere, erabidea bera baino ere erabidetsuagoa eta,

haren dohain guztiak hitz batean esateko, aitaren antz-antzekoa. Bizi da, diot, eta, bizitza hau gorroto izanik ere, zuregatik bakarrik bizi da; badakit, hala ere, zure zoriona gauza batek iluntzen duela, emaztea zu galtzeko beldurrez negarrez eta malko-oinazetan egoteak.

Zer esan dezaket zure seme kontsulei buruz, beren gaztetasunean ere ageri baitute aitaren eta aitonaren buru-argitasuna? Eta, gizakiaren ardura nagusia biziari eustea denez, zorientsu izango zara zeure ondasunak ezagututa, oraindik ere eskuan baitituzu denon aburuz bizia bera baino ere estimagarriagoak direnak. Beraz, xukatu malko horiek! Ez zaituzte egundaino Patuak ahaide denok batera eta erabat bazter utzi, eta zuk ez duzu ekaitz pairaezinik jasan; oraindik ere finko daude aingurak eta ez zaizu egun kontsolamendurik falta, ezta gerorako itxaropenik ere".

"Eta daudela, arren, aingura horiek finko, esan nuen; salbatuko bainaiz haiek huts egiten ez didaten bitartean, etorkizuna edozein delarik ere. Baina ikusten duzu zenbat murriztu den nire aintza?" Berak orduan: "Apurren bat aurrera egin dut, orain ez baitzaude zeure zoriarekin erabat arreguratsu. Baina zure bigunkeria ezin eraman dut; zure zoriona bete-betea ez delako hainbeste zotin eta erosta! Zein da bere egoerarengatik inolako kexurik ez izateko bezain zorientsu? Halamoduzkoa baita gizonaren zoriona, ez baita oso-osorik etortzen eta ez baitu betirako irauten. Urlia diruz gainezka dago, baina lotsa ematen dio bere odol nahastuak; sandia ohore eta ospe handiaren jabe da, baina hain dago eskuartekoz urri, nahiago lukeela ezezaguna izan. Berendia bat bezala besteez ondo hornituta dago, saminduta, ordea ezkongai dagoelako. Beste bat ezkondata dago eta pozik, baina, ondorengorik ez duenez, beste baten oinordekoarentzat ari da ondarea hazitzen. Zenbait alai zegoen seme-alabak izatearekin, baina bere umeen txarkeriak malkoak isurarazten dizkio. Nekez izango da inor bere zoriarekin konforme dagoenik. Denek dute nahigaberen bat; zoriona dastatu ez duenak ez du ezagutzen eta frogatu duenak arbuia egiten du. Bestalde, pentsa ezazu zorientsuenak direla sentiberenak ere eta, gauza guztiak berek nahi bezala gertatzen ez bazaizkie, ezbeharretara ohituta ez daudenez, zoritxarrik

txikienak ere eraitsi egingo dituela; edozein huskeria aski da dohatsuenei zoriona kentzeko. Ez al derizkiozu askori eta askori zeruan dagoela irudituko litzaiokeela zure zorionaren hondakinetatik zatitxo bat emango balitzaio? Zuk erbeste deitzen duzun leku

hau bera aberria da hemengoentzat¹⁸. Beraz, miseria norberak hala uste duenean da miseria; alderantziz, guztia eramaten dakiena beti da zoriontsu. Nor da aztoratzen denean bere egoera aldatu nahi ez izateko bezain zoriontsu? Zenbat nahiagabez ez dago zipristindua gizakien zorion gozoa? Bai, zorionean gozatzen dena pozik dago, baina zorion hori ezin gerarazi du alde egin nahi dionean. Argi dago, beraz, zeinen urria den gizonaren zoriontasuna; izan ere, patxada onekoari ere ez dio betirako irauten eta estu-larria ez du erabat gozatzen.

Zergatik zabiltzate, bada, gizakiok, barruan daukazuen zoriona kanpoan aurkitu nahian? Ezjakintasunak eta uste okerrekin nahastuta zauzkate. Hitz gutxitan azalduko dizut zorionaren funtsa zertan datzan. Ba al dago zuretzat zeure burua baino estimagarriagorik ezer? "Ezer ez", esango didazu. Beraz, zeure buruaren jabe bazara, galdu nahiko ez duzun eta Patuak ere ezin kenduko dizun zerbaiten jabe zara. Eta zoriona asturuzko gauza horietan ezin egon daitekeela jabetzeko, hauxe pentsatu: burua bizkar gainean duen ororentzat ondasun gorena zoriona bada eta ken daitekeenari ondasun goren deitu ezin bazaio, bestela ez bailitzateke ondasun goren izango, begien bistakoa da Patu aldaberak ez dezakeela zorionik eman. Bere burua horrelako zorion aldakorren eskuetan jartzen duenak badaki ala ez daki Patua aldabera dela. Ez badaki, nolako zoriona aurki dezake ezjakintasun itsuan? Baldin badaki, ezinbestean egongo da galdu dezakeela dakien hura noiz galduko beldurrez; eta kezka horrek

ez dio zoriontsu izaten utziko. Agian uste izango du behin galduz gero ahaztu egingo duela; ez du asko balio horren lasai gal daitekeen zorionak. Badakit, gainera, arrazoi askoren indarrez barneratua daukazula eta ondo sinetsia gizakiaren espiritua hilezkorra dela, eta badakizu zorion iragankorra gorputza hiltzearekin batera amaitzen dela; ezin zalantzan jar dezakezu, hortaz, heriotzak, zoriona ken dezakeenez, gizadi hilkor osoa zoritxarraren amildegian behera botako duela. Badakizu, alabaina, asko eta asko ibili direla zorionaren bila, horretarako ez bakarrik beren bizia osorik emanez, baita oinaze izugarriak jasanez ere; nola egin ditzake zoriontsu bizitza honek, berau bukatzeak zoritxarreko egiten ez baditu?

IV

Bere egoitza oinarri sendoaren gainean ezarri eta, irmotasun hartan babestuta, haize-enbat zaratsuei eta itsasoko olatuen mehatxuari gogor egiteko beldurrik gabe bizi nahi duena izan bedi zuhurra eta ez bedi mendi-gainetan edo hondar higikorretan ibil, zeren, haiek Auster indartsuaren erasopean baitaude eta hauek, beren loturarik ezean, ez baitira inolako zamari eusteko gai. Ihes egizu etxe atseginaren arriskutik eta eraiki zeure egoitza harkaitz apal eta sendoaren gainean. Haizeak olatuak harrotuko ditu eta jo-ko dute itsasoko hondakinek harkaitza,

baina zuk, zeure hesi sendoaren babespean zoriontsu, barre egingo diozu eguratsaren haserreari eta patxada ederrean igaroko duzu zeure denbora.

V

Baina, nire arrazoiak ukendua jada zure baitara sartu denez, indar handiagoko argudioak erabiltzeko garaia dela deritzot. Egin dezagun Patuaren dohainak ez direla iragankor eta aldi baterakoak, zer dute horiek inoiz zeure egin dezakezun edo, ondo aztertuz gero, hutsal aurkituko ez duzunik? Zergatik dira aberastasunak desiragarriak, berez ala zuek estimatzen dituzuelako? Zer da hobe, urrea edo pilatutako txanponak? Hauek zabal-zabal daudenean distira haundiagoa dute bilduta daudenean baino; zikoizkeriak gorrotoa dakar, eskuzabaltasunak, ohorea. Bestalde, ezin norberarentzat gorde besteri ematen zaiona; beraz, besteri eman arau norbera gabe geratzen denean da dirua baliotsua. Mundu guztian zabalduko dagoena bakar baten eskuetan bilduko balitz, besteak txiro bihurtuko lirake. Hara: zure ahotsak, osorik jarraituz, askoren belarriak betetzen ditu aldi berean, baina aberastasuna ezin askoren eskuetara iritsi urritu gabe. Ondasunak banatzen direnean, ordea, ezinbestean txirotuko dira haiez gabetutakoak. O aberastasun mehar eta ezereza, ezin asko izan guztiaren jabe, eta ezin osorik bakarraren eskuetan bildu besteak txirotu gabe!

Harri bitxiak distirak xarmatzen dizkizula begiak? Dizdiz horretan baliotzen ezer badago, harri horien argia da, ez gizakiarena; asko harritzen nau gizakiak harri bitxiak hainbeste miresteak. Zer du, bada, animarik gabekoak eta mugitu

ezin denak bizidun eta adimendun bat harritzeko modukorik? Harri horiek, berez direnari eta bitxilarien lanari esker, badute edertasun-apur bat, baina, zuek baino maila apalagoak direnez gero, ez dute zuek miresterik merezi. Landaren edertasunak zoritzen zaituela? Zergatik ez, lan bikain baten zati polit bat da eta? Itsaso barearen irudiak poztu egiten zaitu eta hala berean xarmatzen zeruak, izarrek, eguzkiak eta ilargiak. Horietako ezeren jabe al zara? Ausartzen al zara horien edertasunaz harrotzera? Zu apaintzen al zaituzte udaberriko loreak? Edo zuk ekartzen al duzu udako fruituen ugaritasuna? Zergatik zure pozaldi hutsal horiek? Zergatik hartzen dituzu kanpoko ondasunak zureak bailiran? Patuak ez du inoiz zure egingo izadiak zure baitan jarri ez duenik ezer. Lurrak emandako fruituak bizidunak elikatzeke dira zalantzarik gabe. Naturaren beharrak asetzea ondo dago, baina zertarako da ondasunak gainezka nahi izatea? Gauza gutxi eta xumeak aski ditu naturak; behar duen baino gehiago ematen badiuzu, edo gehiegizko horrek kalte egingo dio edota ez zaio atsegin izango. Arropa dotoreen ugariak inor edertzen duela uste al duzu? Zure iritzirako arropa begien gozagarri denean, oihalaren bikaintasuna edo egilearen artezia mirestuko duzu. Mirabe asko izateak ematen al dizu zoriona? Mirabeak ohitura makurrekoak badira, zama kaltegarria etxerako eta etsai gaiztoak nagusiarentzat; zuzenak badira, berriz, zer eskubide duzu zuk besteren zuzentasuna zeure ondasunen arteko jotzeko? Ondorioz, zure aberastasun uste dituzun horietan guztietan ez dago bat ere argi eta garbi zeure duzunik. Eta horiek guztiek ez baute irrikatzea merezi duen edertasunik, zer dela eta poztu horien jabe izateagatik, edo galtzeagatik mindu? Zeren, beren izatez ederrak badira, zer ikusteko duzu zuk edertasun horrekin? Berez lirake gustagarriak, zure ondasunen artean ez egonda ere.

Ez dira ederrak zure altxorrera iritsi direlako; alderantziz, ederrak iruditzen zitzaizkizulako nahi zenituen zeure gordailuan jaso. Zer nahi duzue Patuari hainbesteko iskanbilarekin deika aritzeko? Oker ez banago, txirotasuna uxatu aberastasunen ugariaz. Baina alderantziz gertatzen zaizue, eskuartekoa ugari behar baita aberastasunak zaintzeko. Ondo egia da gauza askoren premian dagoela asko duena; ezer gutxi falta du, ordea, ondasunen neurria naturaren beharrianetan jarria daukanak, eta ez behar ez direnen irrikan. Ez al daukazue barruan ezer? Ez al duzue zuen baitan inolako ondasunik, ongiaren bila kanpoan eta zuengandik aparteko gauzen artean ibiltzeko? Jainkozko animalia adimendun batek animarik gabeko eta alferrikako ondasunen jabe izatea beste ohore eta aintzarik ez dagoela pentsatzeraino azpikoz gaineratu al dira gauzak? Dutenarekin konforme daude beste izaki guztiak; zuek, ordea, zuen adimenari esker jainkoaren antzeko zareten horiek, huskeriatan bilatzen dituzue zuen izaera jasoaren apaingarriak; eta ez zarete ohartzen zenbateko iraina egiten diozuen zeuen egileari. Hark gizakia lurreko gauza guztien buru izatea nahi zuen; zuek, ordea, izakirik apalena baino beherago jarri duzue zeuen ohorea. Gauza batek beronen jabeak baino gehiago balio badu, gauzarik hutsalenak ondasuntzat dauzkazuenean, gauza horiek zeuen buruak baino estimagarriago egiten dituzue. Ondo merezita gertatzen zaizue hori. Halakoa baita gizakiaren izaera: bere burua ezagutzen duen heinean gauza guztien gainetik dagoen bezala, bere buruaren ezagutza galtzen duenean, abereak baino beherago jausten da. Beste izakiek, izan ere, berezkoa dute beren burua ez ezagutzea, baina gizakiarentzat hori akatsa da. Beraz, askoz ere argiago ageri da zuen burugabekeria zerbait beste zerbaiten edertasunaz apain daitekeela uste izatean. Hori ezinezko baita. Zerbait eraskinen batengatik goraipatzea eraskin hura laudatzea beste da; estali edo ostendu den hark, ordea, bere itsusitasunean jarraitzen du. Eta ez dut uste bere jabeari kalte egiten dion ondasuna ona denik. Gezurra al diot? "Ezta inolaz ere" esango didazu.

Bada, aberastasunek gehienetan kalte egiten diete beren jabeai; gaizkilerik gazkileenek, eta horregatik berarengatik besterenaren zaleenak, beren burua bakarrik jotzen baitute urrea eta harri bitxien jabe izateko nor. Zu gaur ezpata eta azkonaren beldur zara, baina, bizitza honetako bideetan esku hutsik sartu izan bazina, kantari arituko zinateke lapurraren aurrean. Bai bitxia lurreko aberastasunek ematen duten zoriona, horiek zeuronganatu bezain laster galtzen baituzue patxada¹⁹.

V

Zorionekoa lehengo garai hura, luxu hutsalak hondatu gabeko gizona bere lurrarekin pozik zegoenekoa. Gosea ezkurrez asetzen zuten. Ez zekiten Bakoren emariak eztiarekin nahasten ezta ere Ekialdeko zeta distiratsuak Tiroko purpuraz tindatzen. Belarrezkoa zuten ohatze osasungarria, erreko ur lasterra edari, eta pinu garaiek ematen zieten itzala. Itsasoko bideak artean urratzeke zeuden eta gizakia erbesteko hondartzetara jenero bila joan gabea zen. Ez zen gerrarako turutaren hotsik entzuten eta ez zituen gorrotoak ixuritako odolak lur malkarrak busti eta asetzen.

Zergatik eramango zuen etsaien herrak gizona iskiloak hartzera, ikusten zuen eta zauri mingarriek eta odolak ez zutela ordainetan inolako mesederik ekartzen? Ai, gure egun hauetan ere antzinateko ohituretara itzuliko bagina! Baina Etnaren sua baino ere biziagoa da aberastasunen irrika. Ai, nor izan ote zen ezkutuko errearen eta harri bitxien guraz lezoin arriskutsuak ebaki zituen lehena?

VI

Zer esango dut ohoreei eta aginteari buruz, zuek, benetako ohorea eta indarra zer diren jakin ezean, zeruaren pareko egiten baitituzue? Gaizkileen eskuetaratu balira, ez da Etnak jaulkitako surik, ez uholderik horiek hainbesteko kalterik egin dezakeenik. Gogoan edukiko duzu, noski, zuen aurrekoek, kontsulen harrokeria dela medio, kontsulen agintea, askatasunaren oinarri zena, suntsitu egin nahi zutela, lehen, harrokeria berberarengatik errege-titulua Erromatik kendu zuten bezala²⁰. Baina, oso gutxitan gertatzen den bezala, agintea zintzoei ematen zaienean, ez al da horiengan zuzentasuna estimatzen, eta ez beste ezer? Horrela, bertuteak ez du bere izen ona agintetik jasotzen, alderantziz baizik, aginteak ohorea bertutetik. Azken finean, zer da hainbeste estimatzen duzuen eta zuen begietarako hain ederra den botere hori? Ez al zarete ohartzen, animalia lurtarrok, nori aginduko diozuten? Saguen

artean bat eskubide eta agintea bereganatu nahian ikusiko bazenute, a zer nolako algarak egingo zenituzketen! Begiraiozu zeure gorputzari; aurki al daiteke gizakia baino ahulagorik ezer? Eulitxo baten koska edo hartxo bat barruan sartzea aski baitu hiltzeko. Eta nork izan dezake inor gorputzean edota gorputza baino maila apalagokoak diren ondasunetan ez bada menderatzeko ahalmenik? Ispiritu askeari agindurik emango ote diozu? Ez duzu bere arrazonamenduan sendo eta lasai dagoen adimenik mugituko. Tirano batek uste izan zuen gizon aske bat oinazearen bitartez matxino batzuk salatzeraz behartuko zuela; gizon hark, ordea, bere mihia hortzez moztu eta tirano ankerrari aurpegira bota zion; horrela, tiranoak bere ankerkeriaren tresna uste zituen oinazeak bertuterako bide izan ziren zintzoarentzat²¹. Ba al da ezer inork besteren aurka egin dezakeenik beste honek haren aurka egin ez dezakeenik? Entzuna duzue nola Herkules arrotzak akabatu zuen arrotzak hiltzeko ohitura zuen Busiris. Hamaika kartagotar harrapatu eta kateatu zuen Regulok gerran; baina laster luzatu zizkion garaitu zuenari eskuak hark lot zitzaizkion. Zer uste duzu, badutela inolako indarrik berek besteri egiten diotena bestek beraiei egitea galarazi ezin dutenik? Bestalde, ohore eta agintea beren izatez ondasunak balira, ez lirateke sekulan gaizkileen eskuetara helduko. Ez dira, izan ere, elkarren aurkako elementuak bateratzen, ez ditu naturak horrelako batasunak onartzen. Agintea, agerikoa denez, sarrien dongeen eskuetan egon ohi da; garbi dago, beraz, ez dela bere izatez ona gaiztoen eskuetara ere iritsi daitekeen gauza hori. Are gehiago pentsa daiteke hori aberastasunei buruz, inora baino ugariago biltzen baitira gaizkilerik okerrenen eskuetara. Beste ohar bat ere bada aberastasunei buruz egin beharrekoa: ez du inork ausardiaz beterik ikusten duen gizakia ausarta denik ukatuko, eta bistakoa da azkartasunez hornitutakoa azkarra dela. Musikak musikariak egiten ditu, medikuntzak sendagileak, erretrikak

hizlariak, gauza bakoitzak berez dagokiona egiten du, ez da gauza batzuen eta besteen eragina nahasten, are gutxiago elkarren kontrakoak direnean. Ondasunak, ordea, ez dira berek sortzen duten egarria asetzeko gai; aginteak ez du bere buruaren jabe egingo grina lizunek beren kateaz lotuta daukatenik inor; aginteak ere, gaizkileen eskuetara iristen denean, ohoredun egin orde, saldu egiten ditu eta haien gaiztakeria agerian jartzen du. Zergatik hori? Oso gogoko duzue gauzei ez dagozkien eta naturak berak azkar aski gezurtatzen dituen izen faltsuak ematea; ezin, bada, egiaz horrelako gauzei ondasun edo aginte edo ohore deitu. Eta gauza bera esan liteke Patuak dakartzan ondasun guztiez, argi baitago ez dutela ezer irrikagarri egingo dituenik edo berez ona denik; ez dira, izan ere, beti zintzoen eskuetan egoten eta beren jabeak ez dituzte zintzotzen.

VI

Badakizu nolako hondamendia ekarri zion Erromari lehendabizi anaia eta gero senatoreak hil eta ondoren hiriari su eman eta bere eskuak amaren odola isuriz zikindu zituen gaizkile hark. Amaren gorpuari begirada hotzez so egin zion, eta ez zitzaizkion begiak malkoz busti, ez; aitzitik, hilda zegoen edertasunaren epaile izatera ausartu zen²². Eta harekek gobernatzen zituen Febok sortaldean jaio eta urpean bere distirak gorde arte agurtzen dituen, zazpi izar hotzek beren mendean dauzkaten eta Noto bortitzak

bere lehorrean hondar beroz galdatzen dituen herriak. Gauza izan al zen hainbeste handiko agintea Neronen grina ero hura bere oneratzeko? A zer nolako zorigaitza ezpata gaiztoak eta eden ankerrak bat egiten dutenekoa!

VII

Nik esan nuen orduan: "Zuk badakizu munduko aberastasunen egarriak ez nauela inoiz bere mendean hartu; eta, nire ahalmenak motel ez zitezen, ezkutuan gordeta aritu nahi izan dut beti gobernuan". Eta berak: "Gauza bakarra da ondo jantzitako baina oraindik bertutearen gailurrera iritsi gabeko adimena limur dezakeena: errepublikaren aldeko ekintza handiek ematen duten ospearen egarria. Pentsa, ordea, zein hutsal eta funtsik gabea den izen handi hori: badakizu, astrologoek erakutsita, lurbira osoa zero handiarekin erkatuz gero, puntu txiki baten parekoa dela; hau da, hutsaren hurrengoa dela mundu zabalean Lurrak duen lekua. Ludi osoaren laurden batean bizi dira, Ptolomeok erakutsi zuen bezala, guk ezagutzen ditugun bizidunak oro. Kendu laurden horri itsasoak eta zingirek estalitakoa eta basamortuen eremu zabalak, gune extu bat besterik ez da geratzen gizakiaren bizilekutarako. Puntu txiki baten barruan inguratu eta hesitutako gunetxo batean zure izen ona eta ospea zabaltzeak kezkatzen al zaitu? Zenbatekoa da, bada, hain muga hertsien barruko ospea?"

Gainera, bizileku extu horren barrutian bada hamaika herri bata bestearengandik hizkuntza, ohitura eta bizimoduz erabat bereiziak direnak; bideen zailak, hizkuntza desberdinek, harremanik ezak oztopatu egiten dute gizabanakoen ospea ez ezik hirien entzutea ere batetik bestera iristea. Marko Tulioren garaian, berak pasarteren batean dioenez, Kaukaso mendia trabeskatu gabea zuen artean Erromako errepublikaren izenak, eta ordurako handia zen gero, eta errespetuz begiratzen zioten Partoek eta inguru haietako herriek. Ikusten al duzu zeinen meharra eta mugatua den zabaldu nahi duzuen ospe hori? Erromaren sona iritsi ezin den lekuetara iritsiko ote da, bada, Erromako gizonen ospea? Bestalde, herrien ohitura eta legeak hain dira desberdinak, batzuek ohoregarritzat daukatena besteek zigortu beharreko jotzen dutela. Beraz, ospearen zabalkundea atsegin duenak ere ezin hedatu du bere izen ona herri askotara. Pozik egongo da bere fama beretarren artean barreiatzearekin eta, gehienez ere, herrialde bakar bateko muge barruan geratuko da ospe hilezkorren argi hori.

Zenbat gizon uren beren garaian ospetsu izan zirenak ez daude orain erabat ahaztuta haietaz ezer idatzi ez zelako? Eta, egia esan, zertarako balio dute idazkiek berek ere? Beren egileak bezala, antzinatearen ilunpean geratuko baitira? Zuek, berriz, lortuko duzuen ospean pentsatzean, zeuron hilezkortasuna ziurtatuko duzuela uste duzue. Baina, betikotasunaren muga zabalak kontuan hartuta, ba al dago ezer zure ospearen iraupenaz poztera eramango zaituenik? Erka ezazu unetxo baten iraupena hamar mila urteren luzearekin; horien artean proportzio bat, txikia bederen, bada, biek baitute beren luze-zabala mugatua. Baina urte horien kopurua eta horiek halako beste askorena ezin konpara daitezke bukaerarik gabeko betikotasunarekin. Kopuru mugatuak, izan ere, elkarrekin pareka daitezke,

baina mugatua eta mugarik gabea ezin elkarrekin erkatu. Horregatik, ospea, luzarokoa izanda ere, amaierarik ez duen betikotasunean pentsatuta, ez da motza, hutsaren hurrengoa baizik. Zuek, ordea, herriaren estimazioa lortzeko eta herriaren berriketa hutsalen zaletasunagatik bakarrik dakizue zintzo ibiltzen eta, ongi eginaren kontzientzia baztertuz, besteen laudoriozko hitzerdixotan aurkitu uste duzue saria. Gogoan har ezazu nolako umorez egiten zion barre gizon batek horrelako harroskokeriari. Norbaitek, harrokeria hutsez eta ez filosofiaren maitasunez, bere buruari filosofo izena ematen zion sasi-filosofo bati eraso egin zion, pentsatuz azkar antzemango ziola filosofoa zen ala ez, aski zuela irainak otzantasunez hartzen zituen ala ez ikustea. Besteak lehenbizi pazientzia hartu zuen, baina gero, irainekin sututa, esan zion: "Sinisten al duzu orain filosofoa naizela?" Aurkariak orduan eztenkada mingotsez: "Sinestuko nukeen, erantzun zion, isilik geratu izan bazina." Zer geratuko zaie bertuteak dakarren ospearen bila dabiltzan handizkiei (horietaz ari bainaiz), gorputza heriotzak desegin ondoren, izen handi horretatik? Gizakia oso-osorik hiltzen bada -eta hori sineztezin bilakatzen dute gure arrazoibideek-, izen handia ez da ezer, izen horren jabea bukatu egiten baita. Baina espirituak, bere izatearen jakinaren gainean, lurreko gartzela deseginda zerura aske joatea lortzen badu, ez al ditu lurreko auzi-mauzi guztiak mespreziatuko hemengo gauzetatik libratuta zerukoez gozatzen denean?

VII

Ondasunik jasoena ospea delakoan haren bila bakarrik dabilenak beha bitza zeruko eremu zabala eta lurreko egoitza meharra. Lotsatu egingo da hain leku txikia bere izenarekin bete ezin duelako. Zergatik ahalegintzen dira harroak beren buruak heriotzaren uztarpetik askatzen? Norbaiten ospea, herriz herri zabalduta, urrutietan ere ahoz aho ibiliko da eta arbasoengandik datorkion izen handi jasoak distira emango dio, baina heriotzak ez du aintzat hartzen harroaren fama; apala eta kaparea ederki berdintzen ditu hark, behekoak bezala goikoak azpiratuz. Non daude egon Fabrizio leialaren hezurak? Zertan dira Bruto eta Cato zintzo haiek? Fama-apur bat badute oraindik, hizkitxo batzuez osatutako izen txiki horiek hainbatekoa. Eta, ospe handiko izenen berri izanda ere, ezagut al ditzakegu izen horien jabe izan ziren zenduak? Hortxe zaudete zerraldo zuen ez-ezagunean eta zuen izen handiak ez zaituzte guretzat ezagun egiten. Izen hilkorraren ospeak bizia luzatzen dizuela uste duzuen arren, egunen batean galduko da ospe hori ere, eta orduan bigarren heriotza etorriko zaizue.

VIII

Ez pentsa, ordea, Patuarekin borroka anker batean tematua nagoenik. Zenbaitetan gezurti horrek ere mesede txiki batzuk egiten dizkie gizakiei, den bezalakoa azaltzen denean alegia eta

bere jokabideak argitara ateratzen dituenen. Ez al duzu ulertzen zertaz ari naizen? Harrigarria da esan nahi dizudana eta, saiatu arren, apenas naizen hitzez adierazteko gauza. Uste baitut onuragarriago zaiela Patua gizakiei kontra daukatenean alde daukatenean baino. Izan ere, aldeko azaltzen zaienean, atzipetu egiten ditu zorion-plantarekin; aurkakoa denean, ostera, garbi erakusten du, bere gorabeherekin, zeinen aldakorra den. Lehenengo kasuan, iruzur egiten die; bigarrenean, irakatsi; lehenbizikoan, bere mendean lotzen du gizakia gezurrezko ongizatearen itxurarekin; bigarrenean, askatu, zorionaren hauskortasuna ezagutaraziz. Lehenengoan, erabat haizatuta, batera eta bestera ibiltzen ikusiko duzu kaskarin; bestean, berriz, neurritsu eta estu, bere gaitzaldiak berak zuhur bihurtuta. Zorionak gizona bide zuzenetik okertu egiten du bere leunkeriaz; zoritxarrak, gehienetan, bere arpoia sartu²³ eta benetako ondasunetara eramaten. Ez al zaizu aintzat hartu beharrekoa iruditzen zoritxar anker eta beldurgarri honek zure benetako lagunen jarrerak agerian jarri izana: ongi bereizi ditu

lagun leialak eta badaezpadakoak; alde egin dizunean, beretarrak berekin eraman ditu eta zureak utzi dizkizu. Zenbat ez zenuen ordainduko zeure onean eta zoriontsu zeundenean hori jakiteagatik? Orain kexu zabilta galdutako aberastasunengatik; baina ondasunik ederrena aurkitu duzu: lagunak.

VIII

Ludiak, bere egonkortasunean, aldiak ditu; elkarren aurkari diren izadiko indarrak beti bat harturik dabilta; Febok bere urrezko gurdian dakar egunaren argi gorria, gero bere arreba Febo Hesperoren gidaritzapean datorren gauaren

jabe egin dadin; itsaso erasokorrak bere olatuei muga jakinen barnean eusten die; lurak ez du zilegi bere eremua neurritz kanpo zabaltzerik. Hori guztia kateatzen duena maitasuna da, lehorra, itsaso eta gauzak oro bere mendean dauzkan maitasuna²⁴. Horrek galgak lasaituko balitu, laster hasiko lirateke elkarri kedarik gabe erasoka gaur elkar maite dutenak eta ahaleaginean saiatuko lirateke gaur, elkar harturik, hain molde ederrez darabilten munduko makineria apurtzen. Maitasunak biltzen ditu herriak ere, berak bateratzen ezkonduak lokarri garbiz eta berak arautzen adiskide leialen arteko harremanak. Zorionekoak zinatekete, gizakiok, zuen anima zerua bere mendean daukan maitasunak gobernatuko balu.

HIRUGARREN LIBURUA

I

Abestia bukatu zuenean, geldi-geldi geratu nintzen, liluratuta bainendukan musikaren goxoak. Beraz, handik gutxira, "O, esan nion, adorea galdutako animen suspertzaile hori; nola indartu nauten zuk esandakoaren goitasun handiak eta abestien gozoak! Halako eran, ze hemendik aurrera Patuaren erasoak jasateko gauza ikusten dudala neure burua. Horregatik, arestian zenion sendagai garratz haiek ez naute beldurtzen; aitzitik, haien berri jakiteko irrikatzen nago". Orduan hark: "Ohartu naiz, bai, nire hitzak adi-adi eta isilik entzuten egon zarena, eta espero nuen oraingo jarrera honetara iritsiko zinela; are gehiago, neronek ekarri zaitut. Izan ere, entzungo dituzunak halakoak dira, ahoratutakoan mingostu egiten dutela, irentsitakoan, ordea, barrena gozatu. Baina, diozun bezala niri entzuteko zaleturik bazaude, nolako egarria izango ote zenuke nora eramán asmo zaitudan bazeneki". "Nora, bada?" galdetu nion. "Benetako zorionera, erantzun berak, zure animak amesten

duen hartara. Baina hain dauzka itxurazko zorionak zure begiak liluratuta, ez zarela benetakoa ikusteko gauza". Nik orduan: "Hitz egizu, arren, eta azal iezadazu ahalik lasterren zein den benetako zorion hori". "Bai, azalduko dizut, pozik gainera, dizudan maitasunarengatik; baina, aurrez, ezagunago dituzun ezaugarriak azaltzen eta mugatzen saiatuko naiz; horiek ikusi eta kontrako aldera begiratzean, zorionaren benetako aurpegia ezagut ahal izan dezazun".

I

Luberrian erein nahi duenak lehenbizi sasiak garbitzen ditu higitaiaz Ceresi bidea egiteko, hau bere emari ugariez zamatua etor dadin. Erleen ezta gozoagoa da, aurrez ahoak gauza mingotsen bat dastatu duenean. Atseginagoa da izarren argia Notok ekaitzaren orroak isildu ondoren. Goizeko izarrak gaueko iluntasuna uxatu bezain laster iritsiko da egun distiratsua bere zaldi gorriei eraginez. Era horretan, zu ere, gezurrezko ondasunak ikusita, hasi lepotik esklabutzaaren uztarria kentzen; gero iritsiko da zure anima benetako ondasunetara".

II

Orduan, begiak geldirik eta bere animaren egoitza jasora bilduta bezala, honela hasi zen hizketan: "Gizaki guztien ardurak, hainbeste neke dakarkienak, helburu bakarra du, nahiz eta bide desberdinetan barrena ibili: zoriona. Zoriona benetakoa bada, gizakiak, behin hura lortuz gero, ez du beste ezeren irrikarik izango. On guztiak bere barnean ditu, bera izango da ondasun guztien erpina; zerbait falta balu, izan ere, ez litzateke ondasunik jasoena izango, hartaz kanpo ere izango bailitzateke zer irrikatu. Begien bistakoa da, hortaz, zoriontasuna ondasun guztien bilduma eta batasuna dela. Esan bezala, horixe lortzen saiatzen dira, era askotan saiatu ere, gizakiak oro. Berez baita benetako ondasunen zale gizakiaren gogo; baina uste okerrekin gezurrezko ondasunetara desbideratzen dute. Batzuk ondasunik handiena ezeren faltarik ez izatea delako ustean, aberastasunak pilatzen saiatzen dira; besteak, ondasuna gizarteko estimazioan dagoelakoan, ohoreak eskuratu eta herikideentzat itzal handiko izaten ahaleginduko dira. Zenbaitek agintearen indarrari erizten dio ondasunik jasoena; horrelakoek agindu egin nahi dute edo agintariei atxeki. Zorionik handiena izen handi baten jabe izatea dela uste dutenak beren sona gerraren edo honen ondorengo bakearen bidez zabaltzen lehiatzen dira. Askorentzat poz eta alaitasunean dago zorionaren neurria; atseginetik dator, horrelakoen iritziz, zorionaren betea. Batzuek aberastasuna, berdin da xede izan edo zio, agintea eta atsegina lortzeko nahi dute; edo agintea, aberastu eta goraiatuak izateko. Gauza horiek edo horien antzekoak eskuratzean jarriak daude gizonen gogo eta arreta; leinargia eta, horrek ematen duen izen handia dela medio, herriaren estimazioa desiratzen dituzte; emaztea eta seme-alabak hauengandik etorriko den pozarengatik nahi izaten dira. Adiskideak, berriz, gauza guztietan sakratuena, ez ditu halabeharrak ekartzen norberaren bertuteak baizik. Beste gauza guztiak botere edo atseginbide diren heinean bilatzen dira. Argi dago gorputzaren ongizatea ere aipatutako horien artean sar daitekeela.

Itxuraz, indarrak eta lerdentasunak sasoia ematen dute; edertasunak eta zalutasunak, izen handia; osasun onak, atsegina. Begien bistakoa da ondasun horien guztien bitartez zoriona lortu nahi dela, ez besterik ezer. Zeren, beste edozer baino nahiago dena huraxe da, ustez, gauza guztietan onena. Esan dugu zoriona dela ondasunik handiena. Beraz, nork egoerarik onena uste duen hura izango da harentzat zoriona.

Hauxek dituzu begien aurrean gizakien zorion-mota ia guztiak: aberastasuna, ohoreak, agintea, aintza, atseginak. Epikurok ez zuen besterik aintzat hartu eta, ondorioz, erabaki zuen beretzat ondasunik handiena atsegina zela; beste guztiek, dirudienez, animari poza ekarri besterik ez baitute egiten. Berrito gizonaren kezkatara itzuliz, animak, oroimena lausotua edukita ere, ondasunik handiena nahi du, baina mozkorren gisan, ez daki zein den etxera itzultzeko bidea. Zuri zer iruditzen zaizu: ezeren faltarik ez izaten ahalegintzen direnak oker daudela? Ez dago besterik ezer zorionaren betea ekar dezakeenik behar den guztiaren jabe izanik, ondasun guztietatik asko eduki eta besterenik ezer behar ez izatea ezik. Oker ote daude gauzarik onena denak errespetua eta jaiera harekek merezi duela pentsatzen dutenak? Ezta hurrik eman ere. Ez da gutxietsi eta mespreziaztekoa gizaki guztiek ahaleginean eskuratu nahi duten gauza hura. Ez al da, bada, boterea ondasunen arteko jo behar? Zer bada? Gauza guztien artean jasoena ahul eta indargea behar al du izan? Ez al da estimagarria aintza? Banandu ezinak dira, ordea, aintza eta boterea, gauzarik jasoena huraxe baita aintzatsuena. Esan beharrik ez dago, gauzarik niminoenen ere jabe izan eta horiekin gozatzea atsegin dugunez, zoriontasunak tristura eta arregurarik ez du eta ez dago oinazearen eraginpean. Horiexek irrikatzen ditu gizakiak,

eta aberastasunak, ohoreak, agintea, aintza eta atseginak helburu batekin nahi ditu, uste baitu horien bitartez bere premiak aseko dituela eta begirunea, agintea, sona eta poza lortuko. Zorionaren bila dabiltza, beraz, gizakiak hain bide desberdinetan barrena. Horrexetan ageri da argi aski izadiaren ahalmen handia: gizakiak, iritziz hain elkarren aurkakoak izanda ere, denak bat datoz helburu bat eskuratu nahian: zoriona.

II

Kantatu nahi nuke, lira lagun, nolako indarrez zaintzen duen izadi artatsuak munduaren martxa, zein nolako legez eusten dion ludi zabalari eta nola gauza bakoitza lotura askagaitzez kateatua daukan. Kartagoko lehoiak, nahiz katea dotorez lotuak egon eta inoren eskutik jateraino heziak eta, zigorrera jarrita daudenez, hezitzaile ausartaren beldur izan, odolak aho beldurgarri hura bustitzen dienean, aspaldi lokartutako grinak suspertuta, lehen bezalako orroez libratuko dira lepoko lokarrietatik eta hezitzaileak jasango du lehen-lehenik haien haginkada sarraskigilea. Zuhaitz-adar altuetan kantari ari den txoria kaiolako gartzelan sartzen dute katibu; alferrik eskainiko dizkio nagusi arduratsuak esku atseginaz janaria eta edari goxoak ugari;

itxituran saltoka ari delarik, maite duen basoko itzal hura ikusten badu, hankapean sakabanatuko du jatekoa; bere tristuran, basoa beste gogorik ez du eta basoari kantatuko dio ahots leunez. Lokarri batek indar handiz makurtuta daukan lizarra tinkatuta daukan loturatik askatzen bada, tente asko jarriko da berriro ere zerura begira. Febo arratsaldero murgiltzen da uretan; baina, bide ezezagun bat egin ondoren, berriro azalduko da goizean bere gurdian, ohi duen eran. Gauza guztiek beren jatorrirako joera dute eta hara itzultzea atsegin. Eta amaia hasierari lotuko ez balitzaio eta horrela behin eta berriz bere bira burutuko ez balu, ez luke ezarritako legeak iraungo.

III

Zuek ere, lurtarrok, oroimen ahulez bada ere, mantentzen duzue zuen jatorriaren gomuta eta zorionaren helmuga hartara begira zaudete; argi ikusi gabe ere, zeurenez haranzko joera duzue, nahiz eta zuen hutsegiteen ugariak helmuga horretatik urrutiratu egiten zaituzten. Azter ezazu ea gizakia gauza den berak harako bidea uste duen horretatik zoriona lortzeko. Diru, ohore eta antzekoek akatsik gabeko zorion betea ekar balezate, nik ere aitortuko nuke zenbait zoriontsu egiten dela horrelako ondasunak eskuratuz.

Baina, ondasun horiek agintzen dutena emateko gauza ez badira eta hutsune asko badituzte, ez al da garbi ageri gezurrezkoa dela horiek dakarten zoriona? Zuri zerorri galdetzen dizut, arestira arte aberastasun askoren jabe izan zaren horri. Hainbeste ondasunen artean ez al zuen zure anima ezein irainek eragindako ezinegonak asaldatzen?" "Egia da, esan nuen, ezin gogoratu dut inoiz inolako kezkarik gabeko lasaialdirik izan dudarik". "Zergatik? Nahi zenuen gauzaren bat falta zitzaizulako edo izaterik nahiko ez zenukeenen bat zenuelako, ezta?" "Halaxe da" orduan nik. "Bata eduki nahi zenuen eta bestea ez eduki". "Aitortzen dut" nik. "Desio dena falta izaten da, beraz?" "Bai, falta izaten da" nik. "Zerbait falta duena, ordea, zein neurritan dago bere baitan osatua?" "Ez dago" nik. "Eta zuk ere, ondasunez bete-bete egonda, huts hori nabaritzen al zenuen?" "Ezin dezaket uka". "Ondasunak, beraz, ez dira gauza gizonak ezer behar ez dezan eta bere baitan osatua egon dadin lortzeko, nahiz eta itxuraz hori agintzen duten. Beste hau ere ondo pentsatu beharrekoa iruditzen zait: diruak ez duela berez ezer kendu ezineko egingo duenik". "Hori ere aitortzen dut". "Nola ez duzu, bada, aitortuko egunero kentzen dio eta dirua bortxaz indartsuak eman nahi ez dionari. Nondik sortzen dira auziak indarrez eta jukutriaz diruaz gabetuak berea itzul dakiola eskatzen duelako baizik?" "Bai", nik. "Kanpoko zainpea eskatu behar, hortaz, bere dirua babestu nahi duenak". "Hori ez dago ukatzerik" esan nuen nik. "Ez luke zainpe beharrik gal dezakeen dirurik ez balu". "Hortan ez dago zalantzarik". "Beraz, gauzak orain azpikoz gain daude: bere burua diruaren bitartez osatu eta beteko zuela uste zuena besteren babes beharrean aurkitu da. Nola kendu, beraz, aberastasunari gabezia? Aberatsa ezin al daiteke goseak edo egarriak egon,

aberatsen gorputzak ez al du hotzik nabaritzen? Badute zerekin ase eta badituzte egarria eta hotza kentzeko moduak. Gabezia ondasunez arindu egin daiteke, baina erabat kendu ez. Izan ere, gabezia, etengabe, ahoa zabalik, zerbaiten eske dagoen gabezia, aberastasunez asetzen bada ere, beti izango da bete gabeko hutsuneren bat. Bestalde, naturak ezer gutxirekin aski du, baina diru-gosea ez da ezerekin asetzen. Hortaz, aberastasunak premiak kendu ez baizik sortu egiten baditu, nola pentsa dezakezu betetasuna eman dezakeela?

III

Diru-zale zikoitzak inoiz aseko ez duten aberastasunak pilatzen eginahalak egingo ditu, lepoa Itsaso Gorriko perlaz zamatuko du eta bere lur-sail oparoak ehundaka idirekin landuko ditu, baina, bizi deino, berekin izango du kezka garratza, eta, hildakoan, ez du hemendik ondasunik eramango.

IV

Baina ohoreek errespetu eta deduz janzten dute hartzen dituenak. Kargu publikoek ba al dute, ordea, indarrik horien jabeen buruetatik gaizkia uxatu eta bertutea ezartzeko? Ez dute, ez, gaizkia uxatzen, nabarmentzen baino; eta horregatik haserretzen gara askotan kargu horiek gaizkileen artean gaizkileen eskuetara etortzen direlako. Horregatik Katulok

Noniori, nahiz eta kurulean jarrita zegoen, gangarabil²⁵ deitzen zion. Ikusten al duzu zeinen izen txarra ekartzen dion aginteak dongeari? Honen gaiztakeria ez bailitzateke hain agerikoa izango ohoreek begien bistaratuko ez balute. Eta zu zeu ere zerk behartu zintuen zeure burua hainbeste arriskutan jartzera, Decorato bat, itxurajartzaile eta salatari gaizto bat zela jakinik, zeure magistratu-kidetzat hartuz? Burugabekeria baita ohorerik merezi ez duena karguek agurgarri egiten dutela uste izatea. Baina, inor jakinduriaz jantzia ikusita, pentsa al dezakezu hark ez duela ohorerik edo apaintzen duen jakinduria hura bera merezi? Ezta inolaz ere. Berea du bertuteak duintasuna, eta duintasuna berehala iristen zaie bertutedunei. Herriak ematen duen ohorea, berriz, ez da horretarako gauza, ez baitu berezkoa duintasunaren distira.

Bada hor beste ohar bat munta handikoa: gizon bat zenbat eta jende gehiagok mespreziatu orduan eta mespreziagarriagoa da. Karguak begi gehiagoren aurrean jartzen du gizona, baina ez du horregatik agurgarriago egiten; gaizkilea, ordea, are erdeinagarriago egiten du. Eta ederki nozitzen du gaizkileak, karguari ordainetan bere izen txarraren kutsua erasten baitio. Ezagut dezagun, ordea, benetako agurgarritasunak ez duela ohore zirtzil horiekin zerikusirik. Egin dezagun kontsul izandako bat halabeharrak lurralde barbaroetara daramala, haren lehengo karguek agurgarri egingo ote dute atzerritar haien begietarako? Agurgarri izatea karguen berezko saria balitz, kanpotarren aurrean ere bere horretan jarraituko luke; sua nonahi eta beti da beroa. Baina kargu eta ohoreek ez dute berez horrelako indarrik, gizartearen uste engainakorrak ematen die dedua eta, horregatik, dedu hori galdu egiten da kargu horiek aintzat hartzen ez dituztenen artera iristean.

Hori horrela da estranjerian; baina jaioterrian ere betirako irauten al du agurgarritasunak? Garai batean kargu handia zen pretura; gaur izen hutsal bat besterik ez, eta zama galanta senatore-zerga ordaindu behar duenarentzat²⁶. Herriaren horniduraz arduratzen zenak izen handia zuen garai batean, zer dago gaur ardura hori baino mespreziagarriagorik? Arestian esan bezala, berez agurgarria ez dena orain ospe handiko izango da eta gero ospe hori gabe geratuko da jendearen iritziaren pentzutara. Beraz, karguek agurgarri egiten ez badute, eta, gainera, gaizkileek zikintzen badituzte, denboraren joanak distira kentzen badie eta jendearen iritziak estimazioa, zer edertasun dute desiragarri egingo dituenik eta, are gehiago, zer eman diezaiokete gizakiari?

IV

Neronek, bere luxu iraingarrian, bere soina Tiriako purpuraz janzten zuen eta perlaz apaintzen, baina ez zuen inork ikusi nahi. Hala ere, bere gaiztoan, kurul zirtzilak esleitzen zizkien senatore ohoragarriei. Nork pentsa dezake, beraz, zorionbide direla horrelako alprojek emandako ohoreak?

V

"Baina erregeek eta erregeekiko ahaidetasunak emango dute boterea, ezta?" "Ez dut ezetz esango, aldionak beti irauten badu. Baina, lehen eta orain, askotan ikusi izan da erregeen zoriona zoritxar bihurturik. A ze indar distiratsua bere buruari eusteko beste ez dena! Eta errege-aginteak zoriona badakar, ez al da aginte hori ahultzen den heinean zoriona ere urrituko eta ondikoa etorriko? Agintea oso zabala izanda ere, herrialdeak eta herrialdeak geratuko dira errege bakoitzaren manupetik at. Zoriona lekarkeen zati hura falta zaien heinean hantxe izango dute ezina eta nahigabea; era horretan, beraz, erregeen zoritxarra beste inorena baino handiagoa da. Tirano batek, bere ankerkeriaren arriskuak dastatuak baitzituen, erregetzaren beldurra bere buruaren gainean zintzilik zegoen ezpata batean irudikatzen zuen. Zer indar-mota da kez karen harra eta beldurraren eztenkada uxatu ezin duen hori? Erregeek ere lasai eta kezkarik gabe bizi nahiko lukete, baina ezin dute, eta, hala ere, beren agintearekin harrotuta daude! Indartsua al da, zure ustez, nahi eta ezinean dabilena? Indartsu erizten al diozu zaindariz inguratuta dabilenari, agintea azalduko badu bere burua zerbitzarien eskuetan jarri behar du eta? Berari ikara diotenek berek izutzen dute. Zer esan dezaket erregeen tartekoei buruz, erregetza bera hain ahula dela azaldu ondoren? Errege-aginteak, osorik dagoenean ere, ez baititu beti babesten, eta, erortzen denean, berekin erreka-zuloratzen ditu. Nola hil aukeratzeraz behartu zuen Neronek Seneka bere ahaide eta maisua. Antoniok bere soldaduen ezpataz hil zuen Panpinoano, lehen gortesauen artean itzal handiko izan zena. Batak bezala besteak beren agintea utzi nahi izan zuten; Senekak bere ondasunak Neroni eman eta erretiratu nahi izan zuen. Baina gainean zeramaten zamak berak eraitsi zituen eta ezin izan zuten nahi zutena egin. Zer da, hortaz, agintea, eskuan dutenak beldurrak egoten baitira, eta horren bila dabiltzanak ez baitaude seguru, eta utzi nahi luketeenak ez baitaukate uzterik. Babesik ematen al dute ez norberaren merituek baizik eta asturuak inguratutako lagunek? Zorionaldiak ekarritako laguna etsai bihurtuko du zoritxarrak.

Ba al da kalte egiten amorratuagorik inor etxe barruko etsaia baino?

V

Indartsu izan nahi duenak hezi beza bere espiritua eta ez beza lepoa grina ankerren uztarpera eman. Izan ere, nahiz eta Indiako lurralde urrutiek ere zure eskubideak errespetatu eta zure agintea Thuleko azken mugetaraino iritsi, kezka gorriak eta arregura zirtzilak kendu ezina ez duzu indartsu izatea.

VI

Ospea zeinen gezurtia eta zatarra den askotan! Ez dira funtsik gabeak olerkari tragikoaren²⁷ hitz haiek:

Ω δοξα δοξα μυριοισι δη βροτων
ονδεν γεγωσι βιοτον ωγκωσαζ μεγαλν.

Askok, izan ere, bere izen ona jendearen iritzi faltsuari zor dio; zer izan daiteke hori baino zikinagorik? Gezurrezko ospea duenak horrelako laudorioekin lotsatu egin beharko luke. Ospea zuzen irabazia bada, ez du besterik behar izen ona

ez kaleko berritsukeriarekin baizik eta bere kontzientziako egiarekin neurtzen duenak. Norberaren ospea zabaltzea ondo baldin badago, bidezkoa da ez zabaltzeari gaizki dagoela eriztea. Baina, gizon bakar baten ospea herrialde askotara iritsiko ez denez, zuk izen handikotzat daukazuna, munduko jenderik gehienarentzat ezezagun bat izango da. Bestalde, ez dirudit herriaren onarmen hori aintzat hartzekoa denik, ez baita arrazoizkoa izaten eta ez baitu asko irauten. Nork ez du ikusten zeinen hutsal eta baliogabea den urentasunaren izen handia? Fama ematen du, bai, baina fama hori besterena da. Zer da, izan ere, urentasuna arbasoek irabazitako merituen ospea baizik? Ospea laudorioetatik baldin badator, laudorioak jaso dituztenak izango dira izen handiko. Berez argitsu ez denari, beraz, ez dio besteren argiak aintza handirik emango. Uren izateak ezer onik baldin badu, haxe bakarra du, nire ustez: uren direnak arbasoen bertutea andega ez dadin ahalegintzera behartzen dituela.

VI

Gizaki guztiek sorburu bera dute munduan: bakarra baita gauza guztien aita eta kudeatzailea. Hark eman zizkion argi-izpiak Febori eta adarrak ilargiari. Hark jarri zituen gizakiak luraren gainean eta izarrak zeruan. Berak inguratu zituen gorputzaz goiko egoitzaetik ekarritako espirituak. Sorreraz, beraz, gizaki oro da uren. Zergatik harrotu arbasoengatik edo jatorriarengatik? Guztien sorburua Jainkoarengan jartzen badugu, ez da inor sasiko, gaiztakeriak hondatuta, bere jatorriari uko egiten diona ezik.

VII

Zer esan dezaket gorputzaren atseginez, horien irrikak ezinegona besterik ez baitakar eta horiek lortzeak damu samina? Zenbateko gaitzak, nolako oinaze ikaragarriak ez dira etortzen gaizkiaz atsegin hartzearen ondorioz? Ez dakit horretan nolako gozamina lor daitekeen. Plazerren azkena beti goibela da, eta halaxe aitortuko du dastatu dituen edozeinek. Atseginak gizakiari zoriona ematen badio, zergatik ez esan abereak ere zoriontsuak direla, horien irrika guztia gorputzaren beharrak asetzea besterik ez da eta?²⁸ Emaztea eta seme-alabak izateak ematen duen poza ere oso zuzena da, baina batere gezurrik gabe esan ohi da zenbaiti bere borrarero atera zaizkiola umeak. Nik esan gabe ere ondotoxoa dakizu nolako buruhausteak ematen dituzten umeek edozein egoeratan, gaur egun ere zeure horiengatik kezkatuta baitzaude. Gai honetan, erabat onesten dut gure Euripidesek esandako hura: umerik ez duena bere zoritxar horrek berak egiten duela dohatsu.

VII

Honako haxe du atseginak oso berea: gozamenean daudenei zizt egiten die, erleak loreari bezala, baina, ezti gozoa atera bezain laster, alde egiten du, bihotza bere ziztadaz luzarorako minduta.

VIII

Zalantzarik gabe, horiek ez dira zorionerako bide zuzenak, ez dira agintzen duten pozetara eramateko gauza. Hitz gutxitan azalduko dizut zenbat gaitz daukaten ezkutaturik. Begira: aberastasunak bildu nahi dituzula? Dituenari kenduko dizkiozu. Karguen distira nahi al duzu? Eman ditzakeenari arrenka eskatuko dizkiozu eta, besteen aurrean ohoretsu azaldu nahi horretan, eskatzeak berak kenduko dizu duintasuna. Agintea nahi duzula? Beti egongo zara arriskuan, zeure burua menpekoen iruzurretatik ezin babesturik. Ospea eskatzen duzu. Bide aldapatsua egin beharrean zaude, eta beti izango duzu kezka lagun. Atseginezko bizitzari heldu? Nork ez du mespreziatu eta gaitzetsiko gorputza den bezain gauza hauskor eta ezerezaren jopu egiten dena? Izan ere, gorputzeko ongizatearen atzetik dabiltzanak ondasun txiki eta ahularen bila dabilta. Gauza izango al zara elefantearen handitasuna eta zezenaren indarra gainditzeko? Tigreari irabaziko ote diozu korrika? Begira zeru zabalari, ikus haren trinkotasuna, haren mugimenduen azkarra, eta ez aritu txikikeriak miresten. Zerua, bestalde, gauza horiengatik baino miresgarriago da gobernatzen duen adimenarengatik. Zeinen iragankor eta arina den edertasuna, udaberriko loreak baino ere azkarrago aldatzen baita. Aristotelesek dioen bezala, gizonak Linzeoren begiak balitu eta, bere begiradaz oztopo guztiak zulatuta, gizakiaren barrena ikusi, ez al litzaioke zeharo itsusia irudituko Alkibiadesen gorputz bikaina? Itxura ederra, beraz, ez du gizakiak berezkoa; ikusten duten begien ahuleriari zor zaio. Estima itzazu nahi adina gorputzaren dohainak, baina ez ahaztu aski dela hiru eguneko sukarraren bero motela edertasun hori oso-osorik jateko. Hauxe ondorio daiteke, hortaz, esandakoetatik: ondasunak ez direla agintzen dutena eskuratzeko gauza eta ez

dutela inoiz ere ongi osoaren betetasuna iristen, ez direla zorionerako bide eta ez dutela gizakia dohatsu egiten.

VIII

Jess! Nola okerbideratzen duen ezjakintasunak gizaki errukarria! Urrea ez duzue zuhaitz berdeetan bilatzen, ez dituzue pitxiak mahatsondoetatik biltzen, ezta ere sareak mendi goietan botatzen arrainak harrapatzeko, eta ez zarete ahuntzetara Tirreno itsasora joaten. Ezagunak dituzue olatuek ezkutaturik dauzkaten itsas leizeak; itsasoko perlak ugari non dauden eta purpura gorria non atzeman badakizue, baita arrain finak non bizi diren eta ostarren arantzatsuak zein harkaitzetan aurkitu ere. Baina itsututa zaudete, eta irrikatzen duzuen zoriona non dagoen ez dakizuela diozue. Lurrean arrastaka aurkitu nahi duzue zeruko izarrek baino haruntzago dagoena. Duinik ezer eska al diezaioket zuen adimen zoro horri? Irrika itzazue, bai, aberastasunak eta ohoreak eta, ahaleginaren ahaleginez gezurrezko ondasun horiek eskuratutakoan, iritsiko ahal zarete benetakoak non dauden jakitera.

IX

"Aski dugu honenbestez gezurrezko zorionaren zernolakoaz hitz egitetik; eta, hori garbi ikusi baduzu, benetakoa nolakoa den azaltzeko garaia da"29. "Ikusi dut, bai, esan nuen, ez dutela aberastasunek gogoia betetzen, aginteak ez duela inor indarrez osatzen, ez direla karguak aski agurgarritasuna emateko, sonak ez dakarrela izen onik eta ez dela atseginen bitartez benetako zorionik lortzen". "Jabetu al zara zergatik den hori horrela?" "Iruditzen zait zirriztu batetik bezala ikusten dudala, baina zuk argiago erakustea nahi nuke".

"Oso erraz ulertuko duzu. Berez bat eta zatigabea dena zatikatu egiten du gizonak bere erruz eta egitazkoa eta osoa denaren tokian gezurrezkoa eta osatugabea jartzen du. Ez al zaizu iruditzen ezeren faltarik ez lukeenak ahalmen oso-osoa izango lukeela?" "Bai horixe" nik. "Ondo diozu, zeren gizon baten ondasunen artean zerbait oso-osoa ez bada, gizon hori, falta duen horretan, besteren beharrean aurkituko da". "Halaxe da", esan nion nik. "Beraz, gauza bera da osatuta egotea eta ahalmentsu izatea". "Hala dirudi". "Zer iruditzen zaizu, horrelako izaki bat mespreziagarria dela ala guztien gainetik agurgarria?" "Horretan ez dago zalantzarik". "Gehi iezaezu osotasunari eta ahalmenari dedua, eta jo dezagun hiru horiek bat egiten dutela". "Bai, zuk esandakoaren egia aitortu beharrekoa da".

"Zer derizkiozu egoera hori ziztrina eta iluna dela ala distira eta argi guztiak berekin dituela? Kontuan har aitortu duzuna: inolako hutsunerik ez duela eta indarra eta ohoragarritasuna oso-osorik berekin dituela. Ez du, beraz, edertuko lukeenik ezer falta, hutsune horrek nolarebait beheeratu egingo bailuke".

"Horrelako egoeran dagoena ezin daiteke osperik gabe egon, hori ukaezina da". "Hortik ondorioztatzen dut ospearen eta lehen esandako hiru haien artean ez dagoela inolako alderik". "Ondorio ona" esan nuen. "Eta besterenik ezer behar ez izatea eta ospe handiko eta agurgarri izatea ez al da erabat zoriontsu izatea?" "Ez dut ikusten horrela dagoen bati inondik tristurarik sor dakiokenik". "Ezinbestean aitortu behar, beraz, arestian esandakoak egia badira, pozez beteta egongo dela. Arrazoi beraren indarrez, osotasuna, ahalmena, ospea, agurgarritasuna, poza izenez desberdinak dira, baina izatez gauza bera inolako alderik gabe". "Aitortzen dut". "Horra, bada: izatez bat zena gizonaren okerrak zatikatu egin du, eta, zatirik ez duena zatika lortu nahian, ez zatirik eskuratzen du ezta ere gauza bera osorik erdiesten, ez baitu osorik bilatzen". "Nola, bada?" esan nuen nik. "Txiro izateari ihes egin eta aberats izan nahi duena ez da boterea eskuratzear arduratzen; nahiago du apal eta ezezagun izan. Bestalde, gorputzak berezko dituen atsegin asko ukatuko dizkio bere buruari inguratutako dirua ez galtzearen. Baina horrela ez du betetasunik lortuko, bere gaitasunak alferrik galduko baititu, ezinegonak zirikatuko du eta goibeltasunaren ilun-

peak bere mendean hartuko. Boterea besterik nahi ez duenak, berriz, bere aberastasunak sakabanatu egiten ditu, atsegina mespreziatu egiten du eta hutsaren hurrengotzat dauzka aginterik gabeko ospea eta izen ona. Begien bistan dago, ordea, horek ere zenbat gauza falta duen. Zenbaitetan, behar duena ere ez du izango, kezkak janda biziko da eta, barruko artegasuna ezin baretu duenez, bere xede guztia zen boterea ere galdu egingo du. Gauza bera esan daiteke ohore, aintza eta atseginari buruz.

Izan ere, horiek guztiak gauza bat bera direnez, horietako baten bila dabilenak besteak bazter utzita, irrikatzen duen hura ere ez du lortuko". "Baina, esan nuen nik, denak batera nahi dituen?" "Horrexek opa dio zorionik handiena bere buruari, baina aurkituko ote du ondasun horiek agintzen dioten zoriona? Frogatu baitizut ezin dutela agindutakoa eman." "Egia da, bai". "Ez da, beraz, zoriona inolaz ere ustez banaka ematen duten gauza horietan bilatu behar". "Aitortzen dut, bai, eta nekez esan daiteke egia handiagorik". "Horixe duzu, bada, esan zuen, sasi-zorionaren itxura eta arrazoia. Jira orain adimena kontrako aldera; berehala aurkituko duzu, nik esan bezala, egiazko zoriona". "Hori, esan nuen,itsuak ere ikusteko modukoa da eta arestian erakutsi didazu, gezurrezko zorionaren zioak azaldu dizkidazunean. Oker ez banago, benetako zorion betea oso, indartsu, agurgarri, sona handiko eta alai egiten gaituena da. Eta, zuk esandakoaren muina ulertu dudala ohar zaitezen, inolako zalantzarik gabe aitortzen dut horietako batek ematen duena, denak bat bera baitira, huraxe dela benetako zorion osoa". "Ikasle dohatsua zu, iritzi horretakoa zarelako, baldin eta beste hau ere gogoan hartzen baduzu". "Zer?" galdetu nion. "Uste al duzu mundu honetako gauza iheskor horiek horrelako egoera bat ekar dezaketela?" "Ez dut uste, esan nion. Zuk argi azaldu didazu, eta ez dut beste argibiderik behar. Gauza horiek benetako zorionaren itxura besterik ez diote ematen gizakiari; ezin dute, orde, zorion bete eta egiazkorik eman". "Bat nator. Esan zuen. "Orain, beraz, badakizu zein den benetako zoriona eta zein gezurrezkoa; benetakora iristeko bidea jakitea falta zaizu". "Horixe jakiteko irrikaz nago aspaldian". "Hara: gure Platonek bere Timeo-n dioen bezala, gauzarik niminoenetan ere Jainkoaren laguntza eskatu beharrean gaudenez, zer iruditzen zaizu egin behar dugula zorion bete hori non dagoen jakiteko?" "Guztien aitari eskatu, esan nuen,

ez baitaiteke ezer taxuz hasi hartaz ahaztuta". "Ondo esana" berak. Eta honela kantatu zuen.

IX

Zuk, mundua betiko jakinduriaz gobernatzen duzun horrek³⁰, zeru-lurak egin zenituen horrek, zerrori higitzeke, denbora eta gauza guztiak higiarazten dituzun horrek, kanpotik inork bultzatu gabe antolatu zenuen materia erabagea, ontasun gorenaren tankera ezarriaz, inolako zerekeriarik gabe. Zuk gidatzen dituzu gauza guztiak goiko zuzendariaren ereduaz. Ederretan ederrena zaren horrek zeure adimenean daramazu eta zeure irudira egin duzu izadi ederra; eta, horrela, atal akasgabetan banatu duzu zeure edertasuna. Izadia zenbaki-legez lotuta daukazu, hotza eta beroa, ura eta lehorra elkarrekin orekan, su bizia zeru goietaraino irits ez dadin ezta ere lurra, gehiegi mardotuta, hondoratu. Zuk jarri duzu izadiaren barnean anima hirukoitza, gauza guztiak bateratuz denak mugitzen dituena, eta ludi osoan harmonian elkarlotuta dauden atal guztietan sentiarazten duzu anima horren eragina. Eta, horrela, bitan bananduta, bi biratan bildua du mugimendua: batetik, bere baitara itzultzen da, bere animaren barnea miatuz, eta, bestetik, zeruari berearen antzeko mugimendua ezarri dio. Jatorri berberetik sortzen dituzu espirituak eta beste izaki apalagoak eta, gurdi arinetan tolestuz³¹, zeru-lurretan banatzen dituzu; gero, lege bigun baten

gidaritzapean, zeuregana eramango dituzu berriro beren barneko suaren indarrez, beren iturburura daramatzan kemenez. Emaiozu, Aita, gure adimenari zure egoitza jasoraino igotzeko dohaina, eta, zure argia aurkituta, begi zoliak zugan finka ditzala, ongiaren iturburua ikus dezan. Uxatu lur honetako ilunpea eta zama lausoa eta egin argi zeure distiraz. Zu zara oreka, zu zintzoen atsedean eta lasaitasuna; zu ikustea da gure helburua, zu baitzara gure ibiliaren hasiera, euskarria, gidaria, bidea eta helmuga.

X

Ontasun bete-betea nolakoa den eta badaezpadakoaren tankera ere ezagutu dituzunez gero, bidezkoa da, nire ustez, orain zorionaren betea zerk dakarren azaltzea. Gai honetan haxe da lehenengo galdera: ea izadi osoan aurki ote daitekeen arestian esan bezalako ontasunik, irudimenak, gezurra egiaztat hartuz, atzipe ez gaitzan. Ukatu ezina da gisa horretako ontasun bat badela eta horixe dela ondasun guztien iturburua; zerbait osatu gabea dela osatua den beste zerbaitekin erkatu ostean esaten baita. Beraz, gauzaren bat arloren batean osatu gabea dela esateko, ezinbestean behar da beste zerbait arlo horretan bete-betekoa. Akasgabetasunaren ideia baztertzen bada, nondik sor daiteke akastunaren ideia, ez litzateke burutik pasatu ere egingo. Izadia ez da gauza txiki eta osatugabeetatik hasten; oso eta akasgabeetatik hasten da eta gero iritsiko da gauza osatugabe eta sinpleetara. Beraz, arestian azaldu dizudan bezala, ondasun hauskor batek dakarren zorion osatugabeko bat baldin bada, izango da, zalantzarik gabe, beste bat osatua eta sendoa". "Oso ondorio ziur eta zinezkoa" esan nion. "Pentsa ezazu, bada, zorion hori non dagoen. Gizaki guztiek aho batez aitortzen dute Jainkoa dela izaki guztietan lehenengoa eta onena.

Jainkoa baino hoberik ezer pentsatu ere ezin bada, nork jar dezake zalantzan beste ezer baino hobe den hori ontasuna bera dela? Beraz, adimenak Jainkoa ona dela frogatzen duenez, berarengan egongo da ontasunaren betea. Izan ere, horrela ez balitz, ezingo litzateke izaki guztietan lehena izan, izango bailitzateke hura baino osoagoko beste zerbait, eta hura baino lehenagokoa, begien bistakoa baita gauza perfektuak osatugabeak baino lehenagokoak direla. Baina, era honetako argudiotan bukaerarik gabe luzatzen ez aritzeko, aitor dezagun Jainkoa dela ontasunik handiena eta ontasun guztiez betea eta osatua dagoela. Esan dugu ontasunik handiena dela zorionik handiena ere. Jainkoarengan egongo da, hortaz, zorionik handiena". "Aitortzen dut, bai, esan nuen, eta ezin asma daiteke horren aurkako arrazoibiderik". "Ohar zaitez, arren, esan zidan, nolako ondorio santu eta tinkoetara iritsi zaren, Jainko gorena ontasun guztiez betea

dagoela esan baitugu". "Zein eratan, ordea? Ez pentsa gauza guztien aitak ontasun hori, hain betea duen ontasun hori, kanpotik hartua duenik edo, berezkoa izanik ere, Jainkoa zerizan bat dela eta beste bat hark duen zoriona". "Kanpotik hartutakoa duela uste baduzu, pentsa dezakezu badela beste bat, hartzailea baino maila jasoagokoa: eman diona, alegia. Lehen esan dugu, ordea, Jainkoa dela gauza guztietan aurren-aurrenekoa. Eta ontasun gorena harengan berez baldin badago, baina izatez hura bera ez baldin bada, nork uler dezake bi horiek zerk bateratu dituen. Azkenik, bi gauza elkarrengandik bereizita ikusten baditugu, ezin da bata bestea izan, harengandik bereizia baita. Beraz, izatez ontasun handienetik bereizia dena ez da ondasun handiena izango; ezin daiteke Jainkoaz horrelakorik pentsa, bera baino handiagorik ez baita ezer. Ez daiteke ezer bere sorburua baino hobea izan; hemendik ondoriotzen dut, arrazoi garbiaz ondoriotu ere, gauza

guztien sorburua dena bere izatez ontasun gorena ere bera dela". "Arrazoi oso-oso duzu". "Baina ontasunik jasoena zoriona bera da, hori lehen ere esana dugu". "Bai, egia da" nik. "Aitortu beharra dago, beraz, Jainkoa zoriona bera dela". "Bai, premisekin bat nator eta garbi ikusten dut haietatik zuzen-zuzen datorrela ondorioa".

"Ea, esan zuen berak, gauza hori bera beste era argiago batean azaltzen dugun. Ezin direla, alegia, bi ontasun gorenako, elkarrekiko desberdinak, batera izan. Garbi dago, desberdinak badira, bata ez dela bestea. Era horretan, ordea, ez bata eta ez bestea izango dira osoak, bata bestea duena falta baitu. Argi dago osoa ez dena ez dela gorena ere; hortaz, ezin dira izan bi ontasun biak gorenak eta elkarrekin desberdinak. Lehen esana dugu zoriona eta Jainkoa direla onenetan onenak; beraz, derrigorrean, zorion gorena denak Jainko gorena izan behar". "Ezin esan daiteke hori baino egia handiagorik, ezta arrazoibide trinkoago eta Jainkoarentzat duinagorik bururatu ere". "Horiek horrela, esan zuen, eta geometriarik ohi duten eran, frogatutako proposizioetatik, porisma³² deitzen duten bideari jarraituz, korolario bat azalduko dizut. Gizona zoriontsu zoriona lortzeak egiten duenez eta zoriona Jainkoa bera denez, begien bistakoa da jainkotasuna lortzeak egiten duela gizakia zoriontsu. Zuzentasuna iristeak zuzen egiten duen eran eta jakinduria lortzeak jakintsu, arrazoi berberaz, jainkotasuna erdiesten duenak jainko izan behar. Jainko da, beraz, zoriondun oro. Izatez Jainkoa bakarra da, baina ez bago inolako eragozpenik partaidetzaz jainko asko izan daitezen". "Oso polita eta ederra diozun hori, esan nion, nahiz porisma nahiz korolario deitu". "Bada beste gauza bat are ederragoa eta arrazoiaren kariaz aurrekoei erantsi beharrekoa". "Zer ote?" nik.

"Itxuraz, zorionak osagarri asko ditu; baina zorionaren betea atal askoz osatutako gorputz baten gisakoa ote da, ala zorionaren muina atal horietakoren bat da, beste guztiak bere mendean dauzkana?" "Ohartzen naiz zer arakatu asmo duzun; nahiago nuke gauzen oinarri-oinarritik azalduko bazenit". "Ez al dugu esan zoriona ondasuna dela?" "Bai, eta gorenetan gorenena". "Bada, ondasun guztiei dei diezaiezuke ontasun gorena, zeren betetasuna, ahalmena, ohoreak, ospea eta atsegina mailarik jasoenean edukitzea zoriona edukitzea adina da. Eta zer? Horiek guztiak, betetasuna, ondasunak, indarra eta beste zorionaren atal edo ote dira? Edo zorionaren gailurrerako bidetzat hartu behar ote ditugu?". "Ulertzen dut zer aztertzeke asmoa duzun, jakin nahi nuke galderari zein irtenbide ematen diozun". "Honela ulertu behar da gai hori: esandako horiek zorionaren zati edo atal balira, elkarrekiko besderdinak lirateke. Zatien izaera, berriz, desberdinen artean gorputz bat osatzea da. Gauza horiek guztiak bat eta bakarra direla esan dugu, ordea. Ez dira, beraz, atalak; bestela zoriona atal bakar batean legoke, eta hori ezinezkoa da". "Horretan ere ez dago zalantzarik, esan nion, baina esaidazu hortik aurrerakoa" "Argi dago guztia ongiarekin lotuta dagoela. Zergatik nahi da betetasuna? Ustez ondasuna delako. Hala berean boterea ere, horri ere ondasun erizten zaiolako; gauza bera esan daiteke ospeaz, agurgarritasunaz, pozaz. Irrika guztien xedea eta arrazoi bakarra ontasuna da. Izan ere, ez itxuraz ez izatez ona dena ezin da irrikatu. Alderantziz, berez onak ez diren gauzak, itxuraz onak direlako nahi izaten dira, onak bailiran. Hortik dator nahiera guztien arrazoi eta euskarria gauzen ontasuna dela uste izatea. Badirudi gauzaren bat zerbaitengatik nahi denean, zerbait hori desiratzen dela batipat. Esaterako, osasuntsu egoteko zaldiz ibiltzen denaren nahia ez da zaldiz ibiltzea,

horrek osasunean duen ondorio ona baizik. Bada, gauzak onak direlako irrikatzen badira, ez dira gauzak berak irrikatzen ontasuna baizik. Esan dugu gauzak zorionaren desioaz irrikatzen direla; beraz, zerbait nahi denean, zoriona bakarrik irrikatzen da. Garbi aski ageri da bat bera eta bakarra dela ontasunaren eta zorionaren zerizana". "Ez dut horren aurkako arrazoirik ikusten". "Azaldua dizut, bestalde, Jainkoa eta zoriona bat bera direla". "Bai" esan nion. "Ziur-ziur ondorio daiteke, beraz, Jainkoaren zerizana ontasunean bertan datzala eta ez beste ezertan.

X

Zatozte hona, denok batean, grina oker eta iruzurgileak katea gaiztoz lotuta zauzkatenok! Hementxe aurkituko duzue zuen nekeen atsedena. Hauxe duzue baretasunaren kaia, hauxe dohakabeek zabalik daukaten babesleku bakarra. Ez Tajok bere urrezko hareaz ez Hermo ibaiak bere ertz distiratsuez ez lurralde beroetako Indok, harri orlegi eta zuriak nahasian ageri dituenak, argituko dizkizuite begiak; aitzitik, lehendik itsu zeudenak beren ilunpean hondoratuko dituzte. Lurrak bere leize sakonetan sortu zuen animarentzat atsegina eta suspergarria den guztia;

zerua gobernatzen duen eta bizia ematen dion argiak gaizkatzen ditu animak ilunpeetako hondamenditik. Argi hori ikus dezanari ilunak irudituko zaizkio Feboren izpiak".

XI

"Bat nator zurekin, esan nuen. Guztia azaldu didazu, izan ere, arrazoi-indarrez ondo loturik". Berak orduan: "Zenbat estimatuko zenuke ontasuna bera zer den jakitea?" "Izugarri, esan nuen, aldi berean Jainkoa ezagutzeko aukera izango bainuke". "Argi eta garbi azalduko dizut, esan zuen berak. Gogoan hartu orain arte esandakoak". "Bai, hartuko ditut". "Ez al dugu frogatu gizakirik gehienek irrikatzen dituzten ondasunak ez direla benetako ontasun osoa, bata bat eta besteak beste bat nahi izaten dituztelako, eta bata beste falta dutenak ezin daitezkeela ontasun osoa eta gorena izan? Eta ontasun hori formaz eta eraginez denak batean biltzen direnean osatzen dela, eta, horrela, osotasuna den hura aldi berean indarra, agurgarritasuna, ospea eta alaitasuna izango dela? Hauek denak gauza bat eta bera ez badira, ez dute ezer irrikagarri izan daitekeenik". "Hori argi dago eta ezin daiteke zalantzan jarri". "Hortaz, bereiz daudenean beren izatez onak ez izanik, elkartutakoan on bihurtzen badira, ez al ditu bateratzeak on egiten?" "Hala dirudi" nik. "Aitor ezazu, beraz, arrazoi horrengatik gauza bera direla bat izatea eta on izatea. Zerizan berekoak dira, izan ere, berez ondorio desberdinik ez dutenak". "Ezin uka dezaket".

"Ezagutzen al duzu, hortaz, den guztiak bat den bitartean iraungo duela eta, bat izateari utziz gero, hondatu eta suntsitu egingo dela?" "Nola?" nik. "Animaliei begiratu besterik ez duzu: anima eta gorputza batean daudenean, horri animalia deitzen diogu. Baina, batasun hori, biak elkarrengandik bananduta, puskatzen denean, animalia hil egiten da, ez da jada animalia. Giza gorputzak ere bere atalak batean dauden bitartean irauten du; gizaki bezala ageri da. Baina, atal horiek banandu eta puskatzen badira eta batasuna desegiten, lehen zena izateari utzi egiten dio. Eta, beste izaki guztiei begiratuz, zalantzarik gabe ikusiko duzu gauzek bat direino irauten dutela eta, bat izateari uzten diotenean, galdu egiten direla". "Gauza bat eta beste aztertu ondoren, iritzi horretakoa nauzu ni ere". "Ba al da ezer, galdetu zuen, bizi izateko gogoia galduta, hil eta ezereztu nahi duenik? Begira abereei, badute nolahalako nahimena; ez dut horien artean bat ere aurkitu, kanpotik behartu gabe, bizi izateko gogoari uko egin eta bere gogoz heriotza bilatu duenik. Abere guztiak saiatzen dira beren osasuna zaintzen eta gaitzak eta heriotza ekiditen". "Zer esan, ordea, zuhaitz, landare eta animarik gabeko gauzez? Zalantzak dauzkat".

"Ez eduki zalantzarik zuhaitz eta landareei buruz. Ohartuko zara komeni zaien lekuan jaiotzen direla, berez ahal duten heinean behinik behin, ihartu eta hilko ez diren lekuan. Batzuk mendian eta landatan jaiotzen dira, beste batzuk zingiratan sortzen, zenbait harkaitz artean erretzen; batzuentzat lur oparoa da hondar lehorra, eta, inork beren leku haietatik aldatzen baditu, ihartu egingo dira. Bakoitzari zer komeni zaion huraxe

ematen dio izadiak eta bizitzeko gauza diren bitartean hil ez daitezen arduratzen da. Zer bada? Ez al dute landare guztiek beren elikadura zainetatik xurgatzen, ahoa lurrean sartua balute bezala, eta indarra enbor eta azalarte guztira zabaltzen? Ez al dute beren alderdirik bigunena, bihotza alegia, barru-barruan ezkutuan edukitzen, kanpotik egurraren gogortasunaz babestuta? Hortxe egongo da kanpoko azala eguraldiaren eraso guztiei gogor eginez. Zenbatekoa den izadiaren ardura bizidun guztiak beren hazia zabalduz heda daitezen! Nork ez daki hazi hori ez bakarrik denboraldi batean bizitzeko, baizik eta orohar betirako irauteko tresna bezalako bat dela? Eta ustez animarik ez duten gauzek ez al dute arrazoi berarengatik beren gisara nork berea bilatzen? Zergatik eramaten ditu gorantz sugarrak beren arintasunak, zergatik beheraka lurra beronen zama astunak, gauza batzuei leku batean egotea eta besteei bestean komeni zaielako baizik? Beraz, nori zer komeni zaion harexek zainduko du; eta, kaltegarri zaionak harexek hondatuko. Gauza gogorrak, harriak esaterako, oso trinkoak dira eta elkarri ondo lotuta dauzkate beren zati guztiak; nekez puskatuko dira, beraz. Likidoek, ura, haize eta horrelakoek ez diote gogor egiten banandu nahi dituenari, baina, bananduta ere, azkar itzuliko dira beren lehengo egoerara. Sua, berriz, ez dago puskatzerik. Ez gara orain jakinaren gainean eta nahita egiten diren mugimenduez ari, ez, naturak berez duen joeraz baizik: jandakoan, ohartu gabe liseritzen ditugu janariak, eta, lo gaudenean, jabetu gabe hartzen dugu arnasa. Abereei ere bizitzeko gogoa ez datorkie beren nahimenetik, izadiaren legeetatik baizik. Askotan nahimenak hiltzeko gogoa izaten du, berezkoak ez diren eta naturak higuin dituen kanpoko arrazoiren batzuek behartuta; bestalde, inoren nahimenak oztopatu egiten du ernalketa, nahiz eta hori den munduak iraun dezan izaki hilkorrei izadiak jarri dien modu bakarra. Norbere buruaren maitasun hori ez dator, beraz, animaliaaren gogotik;

berezko joera da hori. Probidentziak berak eman die bere sorkariei bizitzeko arrazoia, ahal duten bitartean irauteko joera; horregatik, etzazu zalantzarik eduki: diren guztiek berez dute irauteko grina eta kalte egiten dietena saihesteko joera."

"Aitortzen dut arestira arteko zalantzak joan zaizkidala. Iraun eta horregatik beragatik izaten jarraitu nahi duenak bat izateari eutsi behar dio; bat izate hori kentzen bazaio, ez du izaten jarraituko". "Egia da" nik. "Gauza guztiek, beraz, batasuna nahi dute". "Ados". "Esan dugu, ordea, bat dena ona dela". "Bai". "Gauza guztiak batasunaren bila dabilta; bestela esanda, ontasun bera da guztiek irrikatzen dutena". "Ezin zinezkoagorik ezer asma". "Zeren eta, gauza guztiak batasunaren inguruan biltzen ez badira, noraezean ibiliko baitira; baina, denak erakartzen eta batera biltzen dituenik ezer baldin bada, huraxe izango da ontasun guztietan onena". Eta hark: "Asko pozten nauzu, ikasle, erdiz erdi asmatu baituzu egia: oraintxe azaldu zaizu argi eta garbi arestian ez zenekiela zenion hura". "Zer?" galdetu nion. "Zein den gauza guztien helburua, guztiek nahi dutena, alegia; esan baitugu ontasuna dela izaki guztien guraria, aitor dezagun ontasun goren hori dela gauza guztien helmuga."

XI

Bere adimenaren sakonean egia bilatu nahi duenak gauzak inolako okerrik gabe eta zuzen jakin nahi baditu, kanpora ordeztul bitza begiak bere barnera eta begira biezaio bere baitako mugimenduen

luze-zabalari. Hantxe ikasiko du kanpoan aurkitu nahi zuena bere barruko altxo-rrean jasorik daukala³³; lehen iritzi okerren hodei beltzak ilunpean zeukana Feboren argia baino garbiago azalduko zaio. Ez baitu adimenaren argia erabat lausotu gorputz astunaren oldarrak. Hantxe dago barruan oraindik ere egiaren hazia, eta suspertuko da irakaskuntzak bizkortzen duenean. Izan ere, galdetzen zaizuenean, zergatik ematen dituzue zeuron kabuz erantzun zuzenak egiaren sua bihotzaren hondoan duzuelako baizik? Platonen Musak egia badio, ikastea ahaztuta zegoena gogoratzea da.

XII

Nik orduan: "Platonekin erabat ados nago; bigarren aldiz baitakarzkidazu gogora lehenbizi gorputzaren ikutuak eta gero tristuraren zamak ahaztarazitako gauza horiek". Eta berak: "Arestian adierazi dizkizudanak gogoetatzen badituzu, laster gogoratuko dituzu benbora luzean ezjakinean eduki dituzun gauzak". "Zein?" galdetu nion nik? "Zein lemaz gobernatua dagoen mundua" "Gogoan dut neure ezjakintasuna aitortu dudala, eta, zer esango didazun susmatzen badut ere, zure ahotik argi eta garbi entzun nahi nuke". "Arestian zenion ez dagoela zalantzan jartzerik mundu hau Jainkoak gobernatzen duela". "Eta horretan nago", nik. "Eta, nire ustez, ezingo da hori inoiz zalantzan jarri, eta motx-motx azalduko dizkizut hori esateko arrazoiak. Mundu hau ez zatekeen

helduko hainbeste zatitatik batasun bat osatzera, hain sakabanatuta zeuden puskek bat denak bildu ez balitu; eta bildutako zati horiek, berez hain elkarren kontrakoak direnak, desberdintasun horrek berak banandu eta sakabanatuko lituzke berriro, lotu dituenak berak bat eginik eutsiko ez balie. Izadiaren ordena ez litzakete hain sendoa izango eta denbora, gune eta efikazian hain ongi eratua egongo, aldaketarik gabe beti berdin irauten duen batek³⁴ gorabehera horiek guztiak maneiaturiko ez balitu. Sortutako guztiei iraupena eta mugimendua ematen dien horri, zein baita ere, Jainko izena ematen diot".

Orduan Filosofiak: "Zure iritzia hori denez gero, gauzatxo bat falta duzu, nire ustez, zeure aberrira onik eta zoriontsu itzultzeko. Baina azter ditzagun esandakoak. Ez al duzu esan betetasuna dela zorionaren baldintzetako bat, eta Jainkoa bera dela zoriona?" "Bai, halaxe esan dugu". "Ez du, beraz, kanpoko inolako tresnarik beharko mundua gobernatzeko; bestela, horren faltan, ez litzateke osoa izango". "Hala behar" esan nuen nik. "Berez eta berak bakarrik gobernatzen ditu, hortaz, gauza guztiak?" "Ezin hori uka". "Frogatua dugu, berriz, Jainkoa dela ontasun gorena". "Gogoan dut hori ere". "Ontasunez gobernatzen ditu, beraz, gauza guztiak, esan baitugu berez gobernatzen dituela eta bera ontasuna berbera dela. Hortxe duzu munduari osorik eta finko eusten dion lema". "Zinez aitortzen dut, esan nuen, eta banuen arestian susmoa, ahula bazen ere, horixe esango zenuela". "Sinesten dizut, bai, esan zuen, erneagotu baitzaizkizu begiak egia ikusteko; bestalde, lehengoa bezain argia da orain esatera noakizuna". "Zer?" galdetu nion. "Uste baduzu Jainkoak gauza guztiak bere ontasunaren lemaz gidatzen dituela

eta, irakatsi dizudanez, guztiek berez onerako joera dutela, ez dago zalantzarik beren gogoz direla gauza guztiak gobernatuak eta beren kabuz jartzen direla, bat hartuta bezala, gidariaren mendean?". "Halaxe da ezinbestean, erantzun nion, gobernu hori ez litzateke atsegina izango menderakaitz batzuei ezarritako uztarria balitz eta ez bere gogoz mendeko direnen salbamena". "Ez dago, beraz, ezer bere zerizanari aurka egin ezean Jainkoari kontra egingo dionik?" "Ezertxo ere ez". "Eta, hala guztiz ere, norbaitek hori egin nahiko balu, lortuko al luke ezer zorion eta indar oso-osea dela esan dugun haren aurka?" "Ezta ezertxo ere" nik. "Ez dago, beraz, ezer ontasun goren hari gogor egin nahiko dionik edo gogor egiteko gauza denik". "Ez, esan nuen, nire ustez". "Bera da ontasun gorena, gauza guztiak indar handiz eta leunkiro gobernatzen dituen". Nik orduan: "Zenbat pozten nauten arrazoirik handienaz esan dituzun hitzek, nire lelotasunaz, hainbeste handiko zaunkak egiten dituen lelotasunaz, lotsaraziz".

"Entzun izan duzu ipuinetan nola Erraldoiek zeruari eraso zioten; baina ahalmen leun hark haiek ere menderatu egin zituen, egoki zen bezala. Orain erkatuko al ditugu biok elkarrekin arrazoiak? Agian horrelako eztabaida batetik argi-izpiren bat jaulkiko da". "Nahi duzun bezala" nik. "Ez du inork ukatzen Jainkoa dela ahalguztidunetan ahalguztidunena, ezta?" "Ez, burutik eginda ez badago". "Ahalguztiduna baldin bada, ez dago ezer berak egin ez dezakeenik". "Ez horixe". "Hortaz, Jainkoak gaizkia ere egin dezake?" "Ezta inolaz ere". "Gaizkia, beraz, ez da ezer, ezin baitu guztia dezakeenak egin". "Nirekin jolasean al zabilta?, esan nion. Zure arrazoibide horiekin labirintu nahasgarri bat sortu duzu, sarbideak aterabide bihurtuz eta aterabideak sarbide.

Jainkoaren sinpletasun miragarria nahaspilatzen ari ote zara? Arestian zenion zoriona zela ontasunik handiena eta Jainkoarengan bakarrik zegoela; Jainko hori ontasunik gorena eta zorionik beteena dela esan duzu eta hortik ateratako ondorio bat eskaini didazu opari txiki baten gisara: ezin daitekeela inor zoriontsu izan jainko ez bada. Gainera esan duzu Jainkoaren eta zorionaren zerizana berbera dela, eta batasuna eta ontasuna, izadi osoak berez nahi duen ontasuna, bat direla; Jainkoak mundua bere onatasunaren lemaz gobernatzen duela, gauza guztiak haren esanetara daudela eta gaizkia ez dela; horiek guztiak bata bestetik ondoriotuz frogatu dizkidazu, barnekoak beste arrazoirik gabe".

Eta berak: "Ez naiz, ez, jolasean ari; Jainkoari eskatu eta hark emandako dohainez burutu dugu egitekorik jasoena. Jainkoaren zerizanari beraz kanpoko gauzetan ez xehetzea eta ez banantzea baitagokio eta, beraz, kanpoko ezer ez bereganatzea; Parmenidek dioen bezala,

Πάντοθεν ἐν κύκλῳ σφαίρῃ ἐναλινκίον ὄγκῳ

mundu birakari hau mugimenduan jartzen du bera batere mugitu gabe. Ez zaitez harri gauzak beren barneko argudioen indarrez, kanpotikako arrazoibiderik gabe, azaldu dizkizudalako; badakizu, Platonek esan zuen bezala, hitzek, esaten dugunak alegia, gauzeekin barne lotura behar dutela eduki.

XII

Zoriontsua ongiaren iturri garbia barrundatu ahal izan duena; zoriontsua mundu astun honetako kateak puskatzen dituen. Garai batean, Traziako poetak³⁵, emaztearen heriotzaz mindurik, bere kantuz ba-

soak mugiarazi zituen eta ibaiko ur azkarrak geldiarazi. Oreina, beldurra galduta, lehoi basatiaren ondoan etzan zen eta erbia ez zen ikaratu txakurra ikusita, abestiak baretua baitzeukaten; barruko suak bularra erretzen zion, ordea, olerkariari, mundua gozatu zuten abestiek ez baitzioten barrua lasaitu kantatu zituenari; eta, zerutarren errukirik eza deitoratuz, ifernura jo zuen. Han, bere ama jainkosaren ahotik ikasitakoak gogoratu zituen, liraren gozoa lagun kantatuz; negar egiten zuen bere ezinean. Maitasunak samina bi halakotzen zion, Tenaro zirraratzeraino, eta, ilunpeetako jaun handiei arrenka ari zitzaien otoitz samurrez. Abesti haiek entzunda,

harri eta zur dago hiru buruko atezaina. Malkoz bustirik dauzkate begiak errudunak ikaratzen dituzten jainkosa mendekatzailleek, gurpil azkarrek ez du jada Ixionen burua biratzen, Tantalori ere egarria kendu zaio eta ez du hain luzaroan irrikatutako uraren desiorik. Saia, musika harekin asebeteta, ez zaio jada Titiori gibela jaten ari. Azkenik, ilunpeetako erregek, errukituta, "Aski da, esan zuen, itzuli egingo diogu gizon honi emaztea, kantuz irabazi du eta; baina dohain honek badu bere baldintza: Tartarotik ateratzerakoan ez dezala atzera begira". Nork ezarri, ordea, agindurik maite duenari? Maitasuna du lege nagusia. Horra, bada: Orfeok, ia-ia ifernuko ateetara iritsia zenean, bere Euridizeri begiratu zion; eta hantxe galdu zuen emaztea, heriotzak kenduta. Egokia da alegia hau adimena zero goietara jaso duenarentzat. Gero amore eman eta bere begiak ifernuko zulora itzultzen dituenak, goiko ondasun guztiak galtzen ditu ifernura begiratzeagatik.

LAUGARREN LIBURUA

I

Filosofia, bere aurpegiko duintasuna eta seriotasuna galdu gabe gauza horiek leunkiro eta goxo abestu ondoren, solasean jarraitzera zihoan. Baina nik, barru-barruraino sartua neukan oinazea ahaztu ezinik, hitza kenduz, esan nion: "O, benetako argitara naramazun hori, orain arteko solasean argi eta garbi ageri da egia. Zalantza oro uxatu dute Jainkoaz egin duzun ikerketak eta eman dituzun arrazoien indarrak. Lehen ere ez nengoen erabat egiaren ezjakinean, egin zaidan zuzenkontrakoaren minak egia hori lausotua bazeukan ere. Baina hortxe bertan dago neure nahigabearen arrazoi nagusia³⁶: gauza guztiak gobernatzen dituen gidari on bat izanik, gaizkia ere izan daitekeela, eta, areago, gaizkileak ez duela zigorrik jasaten. Pentsa ea horrelako gauza bat ez den erabat harritzeko modukoa. Bada, gainera, beste gertaera larriago bat ere: gaiztakeria nagusi eta gailen den bitartean, ongiak ez duela inolako saririk jasotzen, are gehiago, dongeek hankapean darabilkitela, eta gaizkiak jasan beharko lukeen zigorra berak pairatzen duela. Ezin, beraz, aski harritu eta kexu izan,

guztia dakien eta ahal duen eta ongia bakarrik nahi dezakeen Jainkoaren erresuman horrelakoak gertatzen direla ikusita".

Berak esan zidan: "Egia diozu, bai, sor eta lor uzteko modukoa litzateke, eta mamu guztiak baino itxuragabekoagoa, zuk diozun bezala, hain jaun handi batek ardura osoz antolatutako etxean ontzi zatarrak jaso eta balio handikoak baztertzea; baina ez da horrela gertatzen. Zeren, arestian esandakoak aintzat hartzen badituzu, erresuma horren jabeak berak erakutsita, jakingo duzu onak beti indartsu direla, gaiztoak, berriz, gaitzetsita eta indarge daudela; gaiztakeriak beti duela zigorra eta beti saria bertuteak; zintzoei zoriona dagokiela beti, gaiztoei, berriz, zoritxarra; gisa horretako egia asko ikasiko duzu, arrengurak ahaztarazi eta ziurtasun sendoa emango dizuna. Eta ikasi berria baituzu, neronek erakutsita, nolakoa den eta non dagoen benetako zorientasuna, orain, aurrez argitu beharreko erizten diedan zenbait gauza azaldu ondoren, berriro ere zeure baitara eramango zaituen bidea erakutsiko dizut. Hegoak emango dizkiot zure adimenari goietara igotzeko gauza izan dadin eta, oraingo nahasmendu horiek argituta, nire gidaritzapean eta nire bidezidorretan gaindi zeure aberrira itzuliko zara neure gurdian.

I

Baditut nik zeru-goietara igotzeko hego arinak³⁷, eta adimen zaluak, hego horiek janzten dituenean, mespreziatu egiten du mundu gorrotagarria; egurats borobilaren handitasuna igarota, hodeiak atzean utzirik, eterearen mugimendu bizkorraz berotutako suaren zurrunbiloa gainditzen du. Eta, izarren egoitzara

iritsita, Febo lagun duela, Marteren gudari bihurturik, Saturno zahar hotzaren bidelagun izango da goiko bideetan; eta gauak astro ñirñirkarien birari azkena ematen dionean, argi sakratuaren jabe eginik, zeru-goia utziko ditu, haize arinaren gainean ibilki.

Hantxe dago jaun guztien jauna, errege-makila eskuan; bera da gauza ororen epaile argitsu eta irmoa eta, munduaren hedeak eskuetan hartuta, berak gidatzen du bere gurdi hegoduna³⁸. Orain ahaztuta daukazulako bila zabiltzan bidea aurkitzen baduzu eta hara iristen bazara, "hauxe da nire aberria, esango duzu, hementxe jaioa naiz eta bertan geratuko naiz betirako". Handik, utzitako lur ilunera begiratzen baduzu, erbesterratuak irudituko zaizkizu herri errukarriak beldurtuta dauzkaten zapaltzaile ankerrak.

II

Nik, orduan, "Ez dira nolanahikoak, alajaina, zure agintzariak! Eta ez dut zalantzarik horiek betetzeko gauza zarela; baina, itxaropena sortu didazunez gero, ez nazazu zain eduki". "Aitor ezazu lehenbizi, beraz, onak beti indarrean daudela, gaiztoak, berriz, erabat indargetuta, bata esateak bestea argitzen baitu.

Zeren, gaizkia eta ongia elkarren aurkakoak direnez, garbi dago ongia kementsu badago gaiztakeria ahulduta egongo dela eta, halaber, gaiztakeriaren ahuldadea agerikoa bada, begien bistakoa izango dela ongiaren sendotasuna. Baina esan dudan honi ziurtasun handiagoa emateko bi bide dauzkat, bata gaiztakeriatik abiatzen dena eta bestea zintzotasunetik.

Bi oinarriren gainean dago gizakiak egiten duen guztia: nahimena eta ahalmena. Bata edo bestea falta baditu, ez du ezer egingo. Gogorik ez badu, ez dio ezeri ekingo; baina, kemenik ez badu, alferrikakoa du nahi izatea. Inor ikusten baduzu lortu nahi zuena lortu ezinik, ziur dakizu ez dela izan nahi bere asmoak gauza". "Hori begien bistakoa da, esan nion, eta ez dago ukatzerik". "Era berean, inor ikusten baduzu nahi zuena lortzen, zalantzan jarriko al duzu ahal zuela?" "Ezta inolaz ere". "Beraz, gizakia dezakeen hartan da ahalmentsu; ahula, berriz, ezin duen gauzetan ahul". "Bai, egia". "Gogoan al duzu, esan zuen, lehen azaldutako arrazoietatik ondoriotu duzuna, gizakiaren nahimenak, era batean saiatu ala bestean, beti helburu bakarra duela: zoriona?" "Gogoan dut, bai, hori ere azaldu didazula". "Oroituko zara zoriona eta ontasuna bat bera direla eta zoriona nahi izatea ontasuna nahi izatea dela". "Ez dut gogoratzen saiatu beharrik, buruan iltzatua baitaukat". "Gizaki guztiak, beraz, zintzoak bezala gaiztoak lehia berdinez saiatzen dira ontasunera iristen?" "Jakina, esan nuen, hori bidezkoa da". "Eta orobat ontasuna lortzeak egiten duela on?" "Egia". "Lortzen dute, beraz, zintzoek nahi dutena?" "Hala dirudi". "Gaiztoak, berriz, nahi duten ontasuna lortzera, ezin gaizto izan". "Halaxe da". "Beraz, batzuek eta besteek ontasuna nahi

dutelarik, zintzoek lortzen badute eta gaiztoek ez, zintzoek ahalmena badute eta gaiztoak ahulak dira". "Hori ukatzen duena, esan nuen, ez da gauza egia atzemateko eta arrazoibideen ondorioak ikusteko". "Hortaz, egin dezagun bi izakik berez helburu bera dutela eta bata bere kabuz lortzen duela eta besteak, dituen ahalmenez zuzen baliatu ezinean, ez due-la helburua erdiesten, baina lortu-itxura egiten duela; zeinek du, zure ustez, ahalmen handiagoa?" "Zer adierazi nahi didazun barrundatzen dudan arren, gehixeago entzun nahi nizuke". "Aitortzen al duzu ibiltzea berezko gaitasuna duela gizakiak?"³⁹. "Bai horixe". "Eta ez duzu ukatuko oinen egitekoa hori bera denik?" "Ez, ez". "Beraz, dabilena oinez ibiltzeko gauza delako badabil eta beste bat, berezko gaitasun horretaz gabetua delako, eskuen laguntzaz ibiltzen bada, nork du bi horietan ahalmentsuen kontsideratua izateko eskubidea?" "Segi aurrera, esan nion, zure arrazoibide horretan, ezin baitu inork zalantzan jarri berez baliatzeko gauza dena ez dena baino ahalmentsuago dela". "Bada, ontasun gorena dute xede zintzoek bezala gaiztoek ere. Onak berezko bidetik sartzen saiatzen dira, bertutearenetik alegia; gaiztoek, berriz, be-

ren grinaren bitartez eskuratu nahi dute, eta hori ez da ontasunerako berezko bidea. Ala beste iritziren batekoa zaitut zu?" "Ezta inolaz ere, esan nuen, ageri-agerikoa baita ondorio hori, zintzoak ahalmentsuak eta gaiztoak ahulak direla aitortuz gero".

"Arrazoibide zuzena, esan zidan. Aurrea hartu didazu eta, sendagileek esaten duten bezala, seinale da suspertzen eta indartzen ari zarela. Eta, gauzak hain azkar ulertzeko prest

ikusten zaitudanez, orain arrazoi trinkoak botako dizkizut multzoan. Begien aurrean daukazu zenbatekoa den dongeen ahuleria, ez baitira beren berezko joerak gidatu eta bultzatzen dituen xedera iristeko ere gauza. Zer gertatuko ote litzaieke naturak bidea erakutsiz ematen dien laguntza ia jarkiezin hori emango ez balie? Pentsatu ondo zenbatekoa den gaiztoen ezina. Irrikatzen eta lortu ezin dituzten sariak ez dira hutsal eta jolasean eskuratzen diren horietakoak, ez, ondasun guztietan jasoena eta denen gailurra iritsi nahi dute, eta ez dute bereganatzen; gau eta egun gauza bakarraren atzetik dabilta eta ez dute erdiesten. Eta hortxe ageri da zintzoen ahalmena. Izan ere, norbait lurraren azken mugaraino iritsiko balitz, nondik aurrera joan ezin den, harixe iritziko zenioke ibiltaririk bikainena; hala berean, desira daitekeen xederik jasoena eskuratzen duena, huraxe izango da noski, zurekiko, ahalmentsuena. Hortik kontrakoa ondoriotu behar da: gaizkileek ez dutela inolako kemenik. Zergatik dabilta, bada, bertutea baztertuta, gaizkiaren atzetik? Agian ez dute zintzotasunaren berririk izango. Ba al dago ezer ezjakinaren itsutasuna baino erkinagorik? Irrikatu beharreko xedea ezagutu dute, baina beren grinek okerbidera lerratu dituzte. Zeinen indargeak diren beren neurriak ezean; ez dira gauza txarkeriari gogor egiteko ere. Onbidea jakinaren gainean eta nahita utzirik lerratu direla bide okerretara? Era horretan, kemena ez ezik izatea bera ere galduko dute. Beren izate osoaren helburua baztertu badute, izateari berari ere uko egingo diote. Agian baten bati harrigarri irudituko zaio guk gaiztoak existitzen ez direla esatea, asko ageri baitira; baina hori da egia. Nik ez diot gaiztoak gaizto ez direnik; badirela ukatzen dut, besterik ez.

Zenduari "gizon hila" deitzen diozu, baina ez "gizona" soilik; hala berean, gaiztoak badaudela aitortuta ere, direla ezin

aitor dezaket. Naturaren legeak betetzen dituen bada, baina lege horiei huts egiten dienak berez dena izateari ere utzi egiten dio. "Gaizkileek badute indarra" esango duzu, eta ez dizut nik hori ukatuko; baina indar hori ez datorkie ahalmenetik, ahuleriatik baizik. Txarkeriarako gauza dira, bai, baina ez lirateke horretarako gauza izango onerako gaitasunari eutsi izan baliote. Horrek berak azaltzen du garden aski ez direla ezertarako gauza. Zeren, arestian esan bezala, gaizkia deus ez bada, txarkeria besterik ezer egin ez dezaketenez, garbi dago ez direla ezertarako gauza". "Bai, hori bistan dago". "Eta, ahalmen hori zertara mugatua dagoen uler dezazun, gogoratu nola arestian esan dugun ez dagoela ezer ontasun gorena baino ahaltsuagorik". "Hala da, esan nuen". "Horrek, bada, ez dezake ezer txarrik egin". "Ez, ezin du". "Ba al da munduan inor gizakiak guztia dezakeela uste duenik?" "Zororen bat ez bada, besterik inor ez". "Baina gauza dira gizakiak txarkeriak egiteko". "Nahiago nuke ahalmen hori ez balute". "Beraz, ongia dezakeena bakarrik da ahalguztiduna; baina txarkeria ere egin dezakeenak ezin du dena egin; garbi dago, hortaz, gaizkia egiteko gauza direnek gutxiago dezaketela. Azaldua dizut, bestalde, ahalmenak oro ondasun desiragarrien artean daudela eta desiragarriak oro ongiarekin lotuta, hau baitute bere berezko gailurra. Ezin da, ordea, ongiarekin lotu gaizki egiteko ahalmena. Ez da, beraz, desiragarri. Ahalmenak oro dira baina desiragarri. Horrenbestez agerian dago gaizkileen gaiztakeriarako gaitasuna ez dela ahalmen. Horrek guztiak garbi azaltzen du onen ahalmena, eta zalantzarik ez edukitzeko moduan gaiztoen ahuleria, eta nabarmena da Platonek esandako haren egia: "Zuhurrak bakarrik direla nahi dutena egiteko gauza eta gaiztoak atseginetan ibiltzeko gauza direla, baina ez benetan nahi dutena lortzeko".

Zernahi egingo dizute, izan ere, atsegin ematen dienaren bitartez zoriona eskuratuko dutelakoan; ez dute, ordea, iristen, gaizkia ez baita zoriontsu izateko bidea.

II

Ikusten dituzu errege handiak beren jauralki jasoetan eseririk, purpuraz jantzita apain eta arma ikaragarri inguratuak, beren begirada zorrotzei mehatxua dariela eta bihotzean amorruren ezinegona dutelarik; handizki horiei jaiera hutsalaren estalkiak kentzen dizkienak aise ikusiko du barruan katea estuz lotuta daukatela⁴⁰. Grina asekaitez pozoia isurtzen die bihotzean, amorrazio bareezinak astintzen eta zigortzen die burua; tristurak bere mendean dauzka batzuetan eta itxaropen iheskorrek bakea kentzen die besteetan. Begien bistakoa da hainbeste nagusi gaiztoren menpean gatibu dagoen gizon bakarrak ezingo duela nahi duenik egin.

III

Ikusten al duzu nolako lokatzetan zilipurdika dabilen gaiztakeria eta nolako argiz dagien distira ongiak? Horretantxe ageri da onei ez zaiela inoiz saririk falta ezta ere sufrikariorik gaiztoei. Zerbait egiten denean, ekintza horren xedea lortzeki sari eriztea ez da bidegabekeria; horrela, estadioan korrika ari denarentzat koroa da xede eta sari. Azaldu dizut nik zoriona dela ekintza guztietan nahi den saria. Gizonaren ekintzari ematen zaion saria, beraz, ontasuna da. Ezin zaio onari ontasuna kendu. Zuzenkontrakoa litzateke ontasunik gabekoari on deitzea; horra hor zergatik ez den ongi egitea inoiz saririk gabe geratzen. Gaizto bitez nahi adina gaiztoak, zuhurraren koroia ez da eroriko, ezta ere ihartuko. Besteren gaiztakeriak ez baitio zintzoari ohorea kentzen. Ohore hori kanpotikakoa balu, eman dionak edo besteren batek kendu ahal izango lioke; baina, ohorea norberaren zintzotasunak ematen baitu, zintzo izateari uzten diona saririk gabe geratuko da. Azkenik, saria ondasun-ustean nahi izaten denez, nork pentsa dezake ontasunaren jabe dena saririk gabe dagoela? Eta nolako saria? Denetan jasoena eta ederrena. Gogoratu lehen aipatu dizudan egia garrantzizko hura, eta atera ondorioak: ontasuna eta zoriona gauza bera direnez, argi dago on guztiak dohatsu izango direla onak izate hutsagatik. Zoriontsuak, bestalde, jainko ere badira. Zintzoen saria, beraz, urteen joanak andegutzen ez duena, inork urri ez dezakeena, inoren txarkeriak histuko ez due-

na, jainko izatea da. Eta, horiek horrela direlarik, zuhurrak ziur daki gaiztoak ezinbestean daudela zigorra jasatera behartuak. Ongia eta gaizkia, saria eta zigorra elkarren aurkakoa direnez, derrigorrean, zintzoarentzat sari denaren aurkakoa izango da gaiztoen zigorra. Onaren zintzotasuna bera sari den eran, gaiztakeria bera izango da gaiztoaren zigorra. Izan ere, nahigaberen batek jotzen duenak badaki gaizkiak eraso egin diola. Beraz, gaiztoek, beren buruari begiratuta, nola pentsa dezakete zigorrik gabe daudela txarkeria guztietan txarrenak joak ez ezik menperatuak ere badauzka eta? Jar itzazu parez pare zintzoaren saria eta honen aurkakoa, gaiztoen zigorra. Arestian ikasi duzu izaki oro batasuna eta ontasuna bera dela; ondorioz, den guztia ona da, eta ontasunetik at dagoen guztiak izateari uzten dio; eta gaiztoek lehen zirena izateari utzi egin diote.

Gizakiak ziren, bai; hori adierazten du oraindik ere berekin duten giza itxurak. Horregatik, gaiztakeriari eman diotenean, gizatasuna galdu egin dute. Baina, gizakia gizatasunaren gainetik bertuteak bakarrik jaso dezakeen eran, gaiztakeriak giza mailatik eraitsi egiten ditu dongeak. Beraz, bere txarkeriak hondatutako gizakiak ez du giza izenik merezi. Besteren ondasunen egarri den lapur ankerra ez al da otsoaren pareko? Beti auzitan dabilen gaizto mingain makurra ez al da txakurraren antzeko? Nori ziria sartuko dabilen iruzurgilea, isilpeko joko zikinarekin gozatzen dena, ez al da azeriaren kide? Amorrua menderatu ezin duen basatiak ez al du lehoiaren kastako ematen? Beti beldurak aidean dagoen herabea ez al da oreina bezalakoa? Motel eta burugabea ez al da astoaren irudiko? Kaskarinari, gaur gauza baten eta bihar beste baten atzetik dabilenari, ez al zaio txoriburu esaten? Grina likits itsusietan zilipurdika dabilena txerriaren neurriko atseginetan dabil. Horrela, beraz, ongiari bizkar emanda, gizaki izateari uzten diona, ez da jainko bilakatzera iristen, abere huts bihurtzen baizik.

III

Eguzkitik sortutako jainkosa ederra bizi den uhartera bota ditu Eurok itsasoan sakabanaturik zebiltzan Ulisesen ontziak, eta sorgindutako edalontziak prestatu dizkie jainkosak arrotz etorri berriei. Era askotan antzaldatu ditu belarren erabileran

hain iaioa den bere eskuz. Bati basurde-itxura eman dio; besteari, Marmarako lehoiarena, bere hortz eta atzapar luze eta guzti; hau otso bihurtu du, eta negarrez ez dagoenean uluaka ari da; beste hura, Indiako tigrearen pare, apal-apal dabil etxetik etxera. Arkadiako jainko hegodunak, ordea, buruzagia hainbeste nahigabez inguratuta ikusirik, kupituta, babestu egin du jainkosaren txarkeriatik. Arraunlariek, oster, ahoratu dute edari pozoitua, txerri bihurtu dira eta, Zeresen garia bazter utzirik, ezkurrez bazkatzera doaz. Hitza eta giza gorpuzkera galdua dute eta erabat antzaldatu dira. Adimenak bakarrik jarraitzen du bere onean, sorginkeriak eraso dioten arren, eta negarrez dago. O esku arinegia! O belarren indar ahula! Gauza dira gorputza aldatzeko, bai, baina ezin dute bihotza irauli. Goi-indarra barruan dago, bere gotorlekuan ezkutaturik. Badira indar handiagoko edenak. Hauek bai kaltegarriak! Gizakiaren barren-barrenera sartzen dira eta, gorputzari kalterik egin gabe, piko mingarria egiten diote animari.

IV

Orduan nik esan nion: "Aitortzen dut eta ez da zuzenkontrakoa esatea gaizkileak kanpotik giza itxurari eutsita ere, animaz abereen mailaraino erortzen direla. Baina ez nuke nahi horien gaiztakeria basak zintzoei opa dien kaltea egitea haizu izaterik". "Eta ez du haizu, esan zuen berak, bere garaian azalduko dizudan bezala; baina, itxuraz duten kemen hori kenduko balitzaie, gainean daramaten zigorraren zama handia ere kendu egingo litzaieke. Zeren, zenbaiti sinestezin irudituko zaion arren, gaiztoak dohakabeagoak dira irrikatzen dutena lortzen dutenean eskuratu ezin dutenean baino. Gaizkia opa izatea negargarria bada, are negargarriago okerra egiteko kemena edukitzea, hori gabe ez bailitzateke nahikeria makurraren fruitua lortuko. Beraz, ahalmen hauetako bakoitzak: txarkeria nahi izatekoak, ahal izatekoak eta egitekoak, zoritxarra badakar, gaiztoa zoritxar hirukoitzak jota dago". "Hala da, esan nuen, eta zorigaizto horretan luzaro egon ez daitezen, txarkeriarako ahalmen hori ken dakien nahi nuke". "Zuk nahi eta beraiek uste baino azkarrago kenduko zaie, esan zuen. Bizitzako une labur honetan, ez da ezer gertatzen animak, bereziki hilezkorrak, luzaroan itxoin duela uste izateko bezain berandu; gaiztoen itxaropena eta txarkeriarako duten makineria arranditsua askotan bat-batean eta usterik gutxiena dutenean desegiten da, eta horrek mugatu egiten die zorigaitza.

Izan ere, gaiztakeriak zoritxarra badakar, zenbat eta txarkerian luzaroago iraun, orduan eta dohakabeago dira; eta, nirekiko, zeharo zoritxarreko litzateke dongea, gaiztakeriari heriotzak

azken muga ipiniko ez balio. Gaiztakeriak dakarren zoritxarrari buruz, egia esateko, gauza jakina da zoritxarretan txarrena betikoa dela". Nik orduan: "Ondorio harrigarria eta nekez onartzeko modukoa; baina lehen esandakoen haritik datorrela aitortu behar". "Ondo esana, erantzun zidan, baina, nire arzoibide hori zuzena iruditzen ez bazaizu, lehenbizi frogatu beharko duzu egia ez den zerbait esan dudala edo aurrekoen kateamenduak ez dakarrela ezinbestean ondorio hori; bestela, aurrekoak onetsiz gero, ez dago ondorioa zalantzan jartzetik. Orain esatera noakizun hau are harrigarriagoa irudituko zaizu, baina, lehengoak aitortu dituzunez, ezingo duzu hau ukatu". "Zer da?" nik. "Zoriontsuagoak direla gaizkileak zigorpean daudenean justiziaren zigorrik jasaten ez dutenean baino⁴¹. Eta ez diot, une honetan, gogoak edonori emango liokeen hori, alegia, zigorrak txarkeria zuzentzen duela eta beldurrak zuzentasunerako bidea erakusten, eta besteak zigorpean ikustea gaizbidetik ihes egiteko eskarmentua dela. Nik uste dut, besterentzako eskarmentuak eta zuzentasunerako bi-deak bazter utzita ere, beste arrazoi batengatik dela zorritxarragoko gaizkilea zigorpean ez dagoenean". "Zein da, bada, arrazoi hori?" Eta berak: "Ez al duzu esan onak zoriontsu direla eta gaiztoak dohakabe?" "Bai, halaxe esan dugu". "Eta, zoritxarrean dagoenari gauza onen bat ematen bazaio, ez al da inolako pozik gabeko zoritxarra besterik ez duena baino alaiago egongo?" "Hala dirudi". "Zer esan ezer onik ez duen dohakabeari lehenaz gain beste nahigaberen bat erasten bazaio? Ez al da ondasunen bat jasota zoritxarra arindu zaiona baino dohakabeago?" "Ondo, hala ere" nik. "Gaiztoek, beraz, zigorra ezartzen zaienean, zerbait ona badute, zigorra bera, alegia, justiziaren aldetik ona baita; baina, zigorrik gabe geratzen direnean, lehendik zuten zoritxarrari beste gaitz bat erasten zaio, zigorrik eza; eta

zerorrek aitortu duzu hori txarra dela zuzenkontrakoa delako". "Ezin dut ukatu" nik. "Askoz zoritxarragokoak dira, beraz, gaiztoak zuzenkontra zigorrik gabe geratzen direnean zigor justua jasaten dutenean baino. Argi dago, bestalde, gaiztoak zigortzea zuzena dela eta zigorrik gabe uztea zuzenkontrakoa". "Nork uka dezake hori?" "Beste hau ere ez dago, bada, ukatzerik: zuzena dena ona ere badela eta, alderantziz, zuzenkontrakoa, txarra". Nik orduan: "Bai, horiexek dira lehen esandakoen ondorioak.

Baina galdera bat: zure ustez, ez al dute animek inolako zigorrik jasan behar gorputza hil ondoren?" "Bai, eta ez nolanahikoa, esan zuen. Nire ustez, zigor batzuk, gogorrenak, ordainetakoak dira, besteak, errukiak leuntzen dituenak, animak garbitzeko ezarriak⁴². Baina ez dut orain gai hori jorratzeko asmorik. Nire xedea orain arte hauxe izan da: ezagut dezazula hain haserretzen zaituen gaiztoen ahalmen hori deus ez dela eta ikus dezazula, zuk besterik uste izan arren, ez dela gaiztakeria inoiz apentzarik gabe geratzen, eta jakin dezazula lehenbailehen amai zedila eskatuz deitoratzen zenuen txarrerako ahalmenak ez duela asko irauten; zenbat eta luzaroago iraun orduan eta zoritxar minagoa dakarrela, eta zoritxar hori erabatekoa izango litzatekeela beti iraungo balu; azkenik, zigor justurik gabe dauden gaizkileen zoria apen zuzenaren mendean daudenena baino txarragoa dela. Ondorioz, zenbat eta beren burua zigorpetik askeago ikusi, orduan eta sofrikario handiagoak dituzte".

Nik orduan: "Zure arrazoibideak entzunda, ez dut uste egia handiagorik esan daitekeenik. Baina, gizakien iritzia begiratzuz gero, ba ote da inor hori sinets dezakeenik, are gehiago, entzutea merezi duela pentsatuko duenik ere?" "Halaxe da, bai, esan zuen. Ilunpetan ohitutako begiak ez dira egiaren argi zabalari eusteko gauza, gauak ikusmena argitu eta egunak lausotzen dien hegaztien antzekoak dira; gauzak berez diren bezala ikusi ordez, beren grinei begira daude eta uste dute zoriona gaiztakeriarako ahalmenean edo zigorrik ezean dagoela. Begira, ordea, betiko legeak zer daukan erabakia: zeure bizitza zintzoenen

erara antolatzen baduzu, ez duzu sarituko zaituen epailearen beharrik izango, zerorrek emango diozu zeure buruari saririk bikainena. Aitzitik, gaiztakerizale bazara, ez ibili borrero bila, zerorrek botako duzu zeure burua amildegian behera. Aldizka behin zerura eta gero lur zikin honetara begiratzen baduzu beste guztiak ahaztuta, batzuetan lokatzetan murgilduta zaudela irudituko zaizu eta besteetan goiko izarren artean. Baina jendeak ez die horrelako gauzei jaramonik egiten. Zu, ordea, abereen pareko ikusi ditugun horietara hurbilduko ote zara? Norbaitek ikusmena galdu eta inoiz ikusteko gauza izan zela ere ahaztuta, gizaki oso izateko ezer falta ez duela pentsatuko balu, hori dela medio, guk, ikusten dugunok, itsuaren iritzi berak izango ote genituzke? Bada, hori bezain indar handiko arrazoitan oinarritutako beste esaldi bat ere ez luke aitortuko jende arruntak: zoritxarragokoak direla gaiztoak hauen txarkeria jasaten dutenak baino". "Pozik entzungo nituzke zure arrazoi horiek". "Ez duzu ukatuko gaizkile orok merezi duela zigorra?" "Ez horixe". "Begien bistakoa da, era askotan gainera, gaiztoen zoria txarragoa dela". "Bai, hori hala da". "Ez al duzu uste zigorra merezi duena dohakabea dela?" "Ados" esan nion. "Jo dezagun zu epaile zarela; zure aburuz, nor zigortu behar da, gaiztakeria egin duena ala jasaten duena?" "Zalantzarik gabe azken honen alde egingo nuke eta kaltegilea zigortuko". "Zori txarragokoa irudituko litzaizuke, beraz, iraina egin duena jasan duena baino?" "Hori esan gabe doa", nik. "Horregatik eta hari bereko beste zenbait arrazoirengatik, gaiztakeriak zoritxarra berez dakarrenez, dohakabea ez da txarkeria jasaten duena, egiten duena baizik". "Gaur egun, ordea, esan zuen, horren kontrako bidetik dabilta legegizonak. Epaileen errukia txarkeria larri eta mingarriren bat jasaten dutenen alde suspertzen saiatzen dira ahaleginean, zinetan errukarriena gaizkilea den arren; salatzaileek ez lukete gaizkilea epailearen aurrera amorruez eramane behar, errukiz eta kupituta baizik, gaixoa sendagilearengana bezala, zigorrak erruaren gaitza senda diezaion⁴³; horrela, defendatzailearen egitekoa erabat murriztua geratuko litzateke edo, bere bezeroari lagundu nahi izatera, defendatzaile izan ordez, salatzaile bihurtuko litzateke.

Gaizkileak berak ere, galduta daukaten zintzotasunaren izpiren bat zirrikituren batetik ikustea emango balitzaie, ohartuko lirakete zigor eta nekeen bitartez beren gaizkiaren zikinetatik garbituko liratekeela eta ez lituzkete oinazetatzat hartuko, zintzotasuna erdiestearen ordaintzat baizik; eta, defendatzaileen laguntzari uko eginez, salatzaile eta epaileen eskuetan jarriko lukete oso-osorik beren burua. Horregatik, zuhurraren bihotzean ez du herrak lekurik. Izan ere, nork gorroto izango ditu onak? Eta, aldi berean, ez dago gaiztoak gorrotatzeko arrazoirik. Ahuldadea gorputzaren gaitza den bezala, gaiztakeria animaren gaixotasuna da, eta, gorputzez gaixo daudenak gorrotagarri ez baizik errukarri jotzen ditugun era berean, anima edozein erkintasun baino mingarriagoa den gaiztakeriaren mendean daukanak ez du erasorik merezi, errukia baizik.

IV

Zergatik zabiltzate bazterrak nahasten eta Patuaren pausuak azkartu nahian? Heriotzaren bila al zabiltzate? Bere kabuz etorriko da zaldia eta hegaztiak baino arinago. Sugeak, lehoiak, hartzak, basurdeak harrapatu nahi zaituzte eta, gainera, zeuron buruari erasotzen diozue ezpataz. Ohitura elkarren kontrako edo desberdinak izatea beste arrazoirik gabe erasotzen al diete elkarri gizakiek gudari-taldeak bildu eta gudu ankerretan elkar hiltzeko? Ez al dago ankerkeria hori zentzatuko duen arrazoibiderik? Nori berea opa al diozu? Maite izan zintzoak eta erruki gaiztoak.

V

Nik esan nion: "Ikusten dut zoria bakoitzaren egite on edo txarretan dagoela ezarria. Baina zori horren gorabeheratan, jendeak ulertzen duen eran, alde onak eta alde txarrak atzematen ditut. Egiatan, apenas izango den zuhurrik erbestean, behartsu, mespreziatu eta laidopean egotea, bere herrian aberats, ohoretsu eta agintean egotea baino nahiago

izango lukeenik. Zuhurtasunak argiago eta onarmen zabalagoz betetzen du bere egitekoa agintarien zoriona, era batera edo bestera, herriarenganaino iristen denean. Eta, gainera, herio-zigorra eta legeak jarritako beste zigorrak kaltegileentzako sortuak dira bereziki eta haiei ezartzen zaizkie. Sor eta lor geratzen naiz, beraz, gauzak alderantziz gertatzen direla ikusita: gaiztakeriaren kalteak zintzoak nozitzen ditu eta gaiztoak jasotzen du zintzotasunari dagokion saria, eta jakin nahi nuke zein den horrelako nahasmendu bidegabearen arrazoia. Gutxiago harrituko nintzateke nahasmendu hori asturuaren fruitu dela pentsatuko banu, baina ezin ulertu dut nola mundua gobernatzen duen Jainkoak, askotan onei zoriona eta gaiztoei zoritxarra ematen dien arren, zenbaitetan hauei zigorra eta haiei saria esleitzen dien; eta, horren arrazoia ikusten ez dudanez, zerk bereizten ditu Jainkoa eta asturua?" "Ez da harritzekoa izadia gobernatzen duten legeen arrazoiak jakin ezean, zerbait bidegabea eta nahasgarria iruditzea. Baina zuk, izadiaren antolamendu jaso ulertu ezean ere, badakizu Jainko onak gobernatzen duela, eta zaude ziur zuzen dabilela.

V

Harritu egingo dute goiko zero-legeek Arturo konstelazioko izarrak poliki-poliki goiko poloaren inguruan jiraka dabiltzala ez dakiena edo ulertzen ez duena zergatik Itzainak, bere gurdia patxadaz gidatuz, argia itsasoan hain berandu ezkututzen duen, goizean goiz berriro azaltzeko. Ilargiari adarrak ilundu egiten zaizkio gauaren mugetara iristen denean eta Febek bere aurpegiko distiraz ostendutako izarrak berriz azaltzen dira hura ezkututzen denean; ezjakintasunak aztoratu egiten du jendea eta tupikizarata izugarriak eginarazten dizkio⁴⁴. Ez du inor miresten Cororen hatsak olatuen orroaz itsasertzari eraso egiteak edo Feboren beroak, udan, hotzak hormatutako elurra urtzeak. Jakinak baitira gertaera horien arrazoiak. Gutxitan edo bat-batean jazozen denak harritzen du jende hunkibera. Desegin bedi ezjakintasunaren hodei iluna eta laster amaituko dira mirariak.

VI

"Halaxe da, esan nion. Baina ezkutukien arrazoiak azaltzea eta ilunpetako lausoan daudenak argitzea zuri dagokizunez, azal iezadazu, arren, mirari hori, erabat nahastua bainauka". Orduan berak, barre txikia eginez, "Gauzarik zailena galdetu didazu, esan zuen. Hondoak nekez harrapa dakioke gai horri. Halakoa da, izan ere, zalantza bati erantzuna aurkitu orduko beste asko, zenbatu ezin ahala, jaiotzen direla, Hidraren buruak bailiran; eta horiei gaina hartzeko modu bakarra espirituaren argi biziak bideak ixtea da⁴⁵. Arlo horretan, Probidentziaren sinpletasuna, Patuaren bideak, bat-bateko gertakizunak, Jainkoaren jakinduria eta predestinazioa eta hautamen askea izan ohi dira galderagai; zerorrek ikusten duzu zein galdera zailak diren. Baina, gauza horiek ezagutzea zuretzat sendabidearen zati bat denez gero, asti handirik ez badut ere, saiatuko naiz argibide batzuk ematen. Beraz, bertsoen doinu atseginak gozatzen bazaitu, utzi geroxeagorako gozamen hori eta entzun hurrenez hurren elkarri lotuta eskainiko dizkizudan argibideak". "Nahi duzun bezala" esan nion.

Orduan, pentsakeraren haria aldatuz bezala, esan zuen: "Gauza guztiek, higikorren mugimenduak eta era batera edo bestera aldatzen den orok Jainko aldaezinaren adimenean du iturburua eta handikakoak bere arrazoiak eta pleguak. Jainkoak erabaki du bere sinpletasun finkoaren gaztelutik izaki guztien bilakaera. Lege horiei, Jainkoaren adimen garbian daudenean, Probidentzia derizte; dakartzaten mugimenduen eta hauen ondorioen ikuspegitik, berriz, Patua deitu zieten antzinakoek. Patua eta Probidentzia gauza bera ez direla garbi ikusiko du bata eta bestea aztertzen dituenak. Probidentzia Jainkoaren adimena bera da, gauza guztiak gobernatzen dituen eta guztien gainetik dagoena; Patua, berriz,

gauza aldakor horien baitan ezarritako ordena da, horren bitartez jartzen baitu Probidentziak izaki bakoitza bere lekuan. Probidentzia izaki guztietara iristen da aldi berean, oso desberdinak eta zenbaezinak diren arren. Patuak izakiak banan-banan jartzen ditu martxan, bakoitzari dagokion leku, denbora eta eraren arabera; horrela, beraz, denboraren barruan garatzen diren izaki horiek guztiak Jainkoak batean eta aldi berean hartzen ditu bere begiradapean; honi Probidentzia deituko diogu. Baina batasun hori denboran zehar zatikatzen denean, horri Patua esango zaio. Horrela, Probidentzia eta Patua, beren artean desberdinak izanik ere, bata bestearen baitan daude. Patuaren hurrenez hurrengo gertakizunak Probidentziaren sinpletasunetik datoz. Artegileak lehenbizi bere lanaren itxura buruan ikusten duen bezala eta gero hura gauzatzeko behar diren ekintza guztiak burutzen, hala be-rean, Jainkoak bere Probidentzian erabaki eta xedatzen du gauza bakoitza egitea, baina Patuaren bitartez burutuko ditu gauza horiek, bakoitza bere garaian eta dagokion eran. Beraz, Patuak zenbaitetan, Probidentziak bere menpean dauzkan izpiritu batzuen bitartez beteko du bere egitekoa⁴⁶; bestetan, aldiz, animak eta izadia osorik bere esanetara dauzkalako, edo zeruko izarren mugimenduz edo aingeruen indarrez edo deabruaren abilezia emankorrez edo indar horien guztien edo horietako batzuen bitartez. Dena den, egia haxe da: Probidentzia gertatzen den guztiaren forma higigaitz eta bakarra dela eta Patua, oster, Probidentziak erabakitako gauzen lotura higikorra denboran zehar. Horregatik, Patuaren mendean dagoen guztia Probidentziaren eskuetan dago, Patua bera ere haren manupeko baita; gauza batzuk, ordea, Patuaren gainetik daude eta Probidentziaren mendean bakarrik: Jainkoaren egonkortasunetik hurbil egonik, egonkortasun aldaezinean itsatsita daude, Patuaren aldeketen gainetik. Demagun, esaterako, hainbat zirkulu ardatz baten inguruan biraka dabiltzala, barrenengoa hurbilago dago erdiko puntuaren batasunetik, eta kanporago daudenen jirabiren ardatza edo da; kanpokoak, berriz, bira handiagoa egin beharko duenez, zenbat eta erdiko puntu bakarretik urrutiago egon, orduan eta guene zabalagoa igaroko du. Erdiguneko batasun hartatik hurbilago eta hari lotuta dagoena erdiko puntuarekin bat da eta ez du mugimendurik egingo, eta ez da sakabanatuko. Era berean, zenbat eta izaki bat adimen nagusitik gehiago urrutiratu, orduan eta estuago lotuko du Patuak bere lokarritz, eta, aitzitik, gauza guztien ardatzetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta Patuaren eskuetatik askeago egongo da.

Adimen gorenari inolako aldaketarik gabe irmoki lotuta dagoena Patuaren legeetatik aske dago. Arrazonamendua adimenarekiko dena, edo sortua berez denarekiko, edo denbora betikotasunarekiko, edo zirkulua bere erdigunearekiko, horixe da Patuaren bilakaera higikorra Probidentziaren sinpletasun higigaitzarekiko. Patuak mugitzen ditu zeru-lurrak, hark mantentzen du izakien arteko oreka, aldaketen indarrez orain itxura bat eta gero beste bat harrarariz. Berak berritzen ditu biziak eta hilak, animalia eta landare, bata bestearen ondoren elkarren antzeko izakiak sortuz. Haren araupean daude orobat gizakien egintzak eta zoria, kausen arteko lotura askaezinaren kariaz; kausa horiek, bestalde, aldagaitzak izan behar dute, iturburu duten Probidentzia aldagaitza den bezalaxe. Era horretan, bikaina da munduaren gobernua, Jainkoaren adimeneko batasunak sortzen baitu puskatu ezin den kausen hurrenkera. Ordena horrek eusten die sortutako gauza aldakorrei; osterantzean, batera eta bestera ibiliko bailirateke inolako araurik gabe. Horregatik, nahiz eta zuei, lege horiek ulertzeko gauza ez zaretelako, guztia nahasia irudit, badu gauza bakoitzak bere araua, bide onetik eramaten duena. Ez da ezer gaizkia egite aldera bakarrik egiten. Gaiztoak ere, era askotan azaldu den bezala, ongiaren bila dabilta, eta irizpide makurrak okerbideratzen ditu; izan ere, ontasun gorenetik datorren ordenak ezingo luke inor jatorriz dagokion bidetik okertu.

Zein izan daiteke, esango duzu, jende onari zoriona nahiz ondikoa etortzea eta, hala berean, gaiztoei ere batzuetan nahi dutena eta bestetan gorroto dutena gertatzea baino nahasmendu zuzenkotrakoagorik? Zer iruditzen zaizu: gizakiak on ala txar erizten diona derrigorrean berak uste duen bezalakoa izango al da?

Hain betea al da gizakiaren burua? Elkarren kontrakoak izan ohi dira gizakien iritziak, batek urliak saria merezi duela uste duenean, horrek berak zigortua izan beharko lukeela uste du beste batek. Baina demagun bat edo bat onak eta gaiztoak bereizteko gauza dela; gai izango al da, gorputzari buruz esan ohi den hitz bat erabiliz, animen tankera atzemateko? Hori mirari ere balitzateke, medikuntzarik ikasi ez duenak osasun onean dauden batzuei gauza gozoak eta besteei mikatzak zergatik komeni zaizkien asmatzearen pareko; edo zergatik gaixo batzuk sendagai leunekin eta beste batzuk zakarrekin sendatzen diren ulertzea bezala. Hori jakinekoa da medikuarentzat, bai baitaki gaitzaren eta osasunaren itxura eta irudia nolakoak diren. Eta zertan datza animaren osasuna zintzotasunean ezik? Eta zertan gaitza okerbidean ezik? Eta nork eusten die onei onbidean eta nork du gaiztakeria aizkatzen animen gidari eta sendagile den Jainkoak ezik? Berak, bere Probidentzia gorenetik begiratuta, ondotox daki nori zer komeni zaion; eta huraxe ematen dio. Horra zertan den Patuaren mirari sonatua: dakienak egiten dituela ezjakina sor eta lor uzten duten gauza horiek. Jainkoaren sakontasunaz giza adimenak atzeman dezakeenera mugatuz, hauxe esango dizut: dena dakien Probidentziak beste era batean ikusten duela zuk zintzo eta zuzenetan zuzenen jotzen duzun hura. Lukano gure adiskideak esan zuen bezala, "Garailearen jarreraren aldeko ziren jainkoak, baina garaituarena hobesten zuen Catonek". Beraz, zerbait zuk uste ez bezala gertatzen ikusten duzula? Hori izadiko legeen arabera gertatu da; zure iritzia zegoen oker. Jo dezagun gizon bat zintzoa dela eta bere hurkoaren eta Jainkoaren estimazioa berekin duela, gizon horri, espirituz ahula izanik, ezbeharren bat gertatuko balitzai, agian onbidea utzi egingo luke eta ezingo luke zorionean iraun. Zaindu egingo du Jainkoaren jakinduriak horrelakorik gerta ez dakion, ezbeharrak gaiztotu egingo bailuke; horregatik, ezin eramango lituzkeen nekeak urrutiratu egiten dizkio. Beste bat bertute guztiez apainduta dago eta bere santutasunean Jaikoarengandik hurbil; Probidentziari ez zaio beharbada irudituko horri inolako ezbeharrik gertatzea komeni denik, eta ez du gorputzeko gaitzak ere joko. Baina, ni baino jakintsuago den batek esan zuen bezala:

Ἀνδρὸς δὴ ἱερὸν δέμας αἰθερὲς ὠκοδομήσαν 47

Askotan gertatzen da herriko agintea zintzoen eskuetan jartzea, gaiztoen gehiegikeriei galga ezar diezaieten. Beste batzuei Probidentziak ona eta txarra nahasian bidaltzen dizkie, segun eta nolako kozkorra duten; batzuei oinazea ematen die, zorionaldi luzeegian lokar ez daitezen; zenbait bortizki astindua izan dadin uzten du, eraman-senak eta pairamenak bertutea indar diezaioten. Batzuk oso beldurtuta egoten dira eraman ahal izango lituzketen ezbeharren aurrean; beste batzuek, harrotuta, mespretxuz begiratzen diete eraman ezingo lituzketen oinazei; Probidentziak sufrimenduaren bidetik eramango ditu horrelakoak beren buruak ezagutzera. Zenbaitek betirako izen handi bat erosi du bere heriotza aintzatsuen ordainez. Beste batzuek, oinaze izugarriak jasanez, ongi aski erakutsi dute ez duela zorigaitzak bertuteari gaina hartzeko kemenik. Zalantzarik ez dago gauza horiek aurrez ezarritako lege batzuen arauz gertatzen direla, eta gertatu zaizkien onerako. Arrazoi horregatik berarengatik etortzen zaizkie dongeei aldizka ezbeharrak eta aldizka pozaldiak. Ez da inor harritzen nahigabea datorkienean, denon ustean horixe merezi baitute. Horrelakoen zigorrak besteak gaiztakerian erortzetik salbatzen ditu eta zigortuak berak onbideratzen; horrelakoen zorionak, berriz, arrazoibide zuzena erakusten die zintzoei, badakite nolako juzgua merezi duen askotan gaiztoengan ageri den zorion horrek. Gai horretan beste gauza bat ere gertatzen da: zenbait hain direla izatez erorkor eta aldrebesak, txirotasunak gaiztakerian amilduko lituzkeela; ondasunak emanez sendatzen die Probidentziak gaitz hori. Horrelakoak, beren barrua bekatuz zikindua ikusita eta aldi berean ondasunez

beteak daudela ohartuz, hain atsegin zaiena galtzeak beldurtu egingo ditu agian, eta beldur horrek

beren ohiturak aldarazi egingo dizkie eta gaizpidea utzi egingo dute. Merezitako hondamendian behera amiltzen du zenbait bere zorionaz ondo baliatu ezak. Batzuei besteak zigortzeko eskubidea eman zaie, onak haztatuak eta gaiztoak zigortuak izan daitezten. Zintzoak eta gaiztoak bat hartu ezin duten eran, dongeak ere ez dira elkarrekin bat egiteko gauza. Nola, izan ere? Horiei guztiei beren okerren harrak kontzientzia zulatzen baitie eta beren buruarekin borrokan baitaude; sarri askotan okerren bat burutu orduko ohartzen dira zilegi ez dena egin dutela. Bide horretatik, askotan egin izan du Probidentzia gorenak mirari handi bat: gaiztoek on bihurtu dituzte beste gaizto batzuk. Donge batzuk, euren antzeko beste alproja batzuek egiten zizkieten txarkeriak ikusita, gorrotoz beterik, onbidera itzuli izan dira begien bistan ikusi ezin zituztenen antzekoak ez izateagatik. Jainkoak bakarrik baitu gaizkia ere ongi bihurtzeko ahalmena, txarkeriatik, zentzuz baliatuz, ondorio onen bat ateraez. Bai baita izaki guztiak mendean dauzkan lege bat, zerbait bere bide zuzenetik okertzen denean, ordena berean, beste lekuren batean gera dadin;

Ἀρχαλέον δε με πάντα θεὸν ὡς πάντ' ἀγορεύειν

Ezin mintza naiteke, ordea, gauza horietaz Jainkoa banintz bezala. Gizakiak ez baitu zilegi jainko-lanaren eraketa ez ulertu ez hitzez azaltzea. Aski izan bekigu guztien sortzaile den Jainkoak gauza guztiak onerako eratu eta gidatuak dauzkala jakitea; eta, berak sortutako izaki guztiak bere antzeko mantentzen dituen bezala, kaltegarri daitekeen oro bere erresumatik kanpora botatzen duela Patuaren bitartez. Horregatik, ohartuko zara arras zabaldua dagoela iruditzen zaizun gaiztakeria ez dela inon ageri, Probidentziak ezarritako ordena kontuan hartzen bada. Baina ohartu naiz, arrazoibide hauen zamaz nekatuta eta azalpenaren luzeaz aspertuta, bertsoen gozotasunaren zain zaudela. Har ezazu, beraz, ahokada bat, indarberrituta aurrera jarrai dezazun.

VI

Trumoiaren jabe denaren legeak adimen argiz ulertu nahi badituzu, begira zeru-goietara. Han izarrek, aspaldiko hitzarmena betez, lehengo armonia berean jarraitzen dute. Ez dio Eguzkiak, bere argi distiratsuak harrotuta, Febe jelatuaren ibiliari oztoporik jartzen. Eta mugimendu arinez munduaren muturrari bira ematen dion Hartza, inoiz mendebaldeko uretan murgildu ez dena, nahiz eta beste izarrek murgiltzen ikusi, ez da bere sua itsasoan itzali zale. Arratsaldeak beti iragartzen du, hutsik egin gabe aldi berdinetan iragarri ere, gaueko iluna, eta orobat Goizeko izarrek egunaren argi ongilea. Horrelaxe berritzen du izarrek elkarri dioten maitasunak beren etengabeko ibilia; arrotza baita gudua eta gorrotoa horien erresuman. Elkartasun horrek gobernatzen ditu elementuak, nori bere aldiak ezarritz; lehorteak euriari utziko dio txanda; hotzak eta suak elkar hartuko dute eta, gar arinak goietara igotzen direlarik, lur astuna bere lekuan kokatuko da. Horregatik, Udaberriaren epelak loreak ekarriko ditu eta urteko lurrinaldia etorriko da; Uda beroak lehertuko ditu gariak eta igaliz zamatua iritsiko da Udazkena; gero euriak Negua bustiko du.

Ludian arnasa duen oro hotz-bero honek ekarri eta elikatzen du, eta, arnas hori kenduta, berak ostentzen ditu guztiak heriotzean murgilduz. Bitartean, bere egoitza jasoan dago Egile gorena eta eskuan dauzka izaki guztien hedeak, bera da Jaun eta Jabe, Iturburu eta Sortzaile, Lege eta Epaile zuzen; bere mugimenduan alde egin nahi lukeena gerarazi egiten du eta egonkaitza finkarazten. Izan ere, orain ordena egonkor batean daudenak, zuzenean joateko joeraren aurka beren orbitetara behartuko ez balitu, beren iturburutik urrutiratuta, porrokatu egingo lirateke. Guztiek jaiera bat dute eta ontasuna den harenganako zaletasuna, ezin baitute iraun izatea eman dien harengana, maitasunak eramanda, berriro itzuli ezean.

VII

"Ikusten al duzu orain esandako guztien ondorioa?" "Zer ondorio?" galdetu nuen nik. "Zori oro ona dela, alegia". "Baina nola liteke?" nik. "Hara, zoriak, atsegina izan ala nahigabezkoa, edo zintzoak saritu eta haztatzea edo gaiztoak zigortu eta zuzenbideratzea du helburu; gauza jakina da, bestalde, zuzen edo baliozko den guztia ona ere badela". "Egia baino egiago zuk diozun hori; eta, arestian Probidentzia eta

Patuari buruz azaldu dituzunak aintzat hartuz gero, oinarri sendoa duena. Baina, ondo baderizkiozu, sar dezagun lehen iritzi onartezin deitu dituzun haien artean". "Zergatik?" galdetu zuen. "Ahoz aho dabilen esakunea delako zenbaiten asturua txarra dela". "Hurbil gaitezen, bada, hala nahi baduzu, jendearen esanetara, gizadiaren iritzietatik urrutiegi nabilela eman ez dezan". "Nahi duzun bezala". "Ez al zaizu iruditzen baliagarri dena ona ere badela?" "Halaxe da" nik. "Haztatu eta zuzenbideratzea baliozkoa al da?" "Bai". "Ona, beraz". "Zergatik?" "Horixe da bertutean ondo oinarrituta ezbeharren aurka borrokan ari direnen zoria edo, gaizbidetik apartatuta, onbidean sartzen direnena". "Hori ezin uka dezaket". "Eta onari ematen zaion sariari jendeak zoritxar irizten al dio?" "Ez inolaz ere; aitzitik, ona da, eta denetan onena dela aitortzen du". "Eta on irizten al diote zoritxarrari honek gaiztoa honek ondo merezia duen sufrikarioaz zentzutzen duenean?" "Ezta alderatzeko ere, izan daitekeen txarrena baizik". "Horra, bada, jendearen aburuari jarraiki, ez gara pentsamendu onartezinetara iritsi". "Zergatik?" galdetu nion. "Hara, aitortu dituzunetatik ondoriotu dugu onbidean abiatzen edo aurrera doazenen edo helmugara iritsi direnen zoria, dena delarik, beti ona izango dela, eta beren gaiztakerian tematzen direnena, berriz, txarra". "Hori egia da, aitortzera inor gutxi ausartzen bada ere". "Horregatik, zentzuduna ez bedi haserre Patuarekin borroka egin behar duenean, gizon bulartsua gudurako deia entzunda haserretzen ez den bezala. Larrialdiak berak ematen baitie aukera batari bere ospea zabaltzeko eta besteari bere bertutea sendoagotzeko. Horregatik, aldi txarraren erasoei ahaleginean gogor egiteari bertute deitzen zaio⁴⁸.

Zuek ere, onbidetik zabiltzatenok, ez zoazte lizunkeria edo atsegin ustelen bila; asturu onarekin eta txarrarekin borroka latzean ari zarete. Ez zaitzatela txarrak goibel ezta ere onak ustel; eutsi sendo orekari⁴⁹. Erdigune horretara iristen ez denak edo harantzago doanak ez du ez alaitasunik izango ezta ere bere ahaleginaren saririk jasoko. Eskura daukazue, beraz, nahi duzuen zoria izatea; txarra dirudienak ere, haztatu eta zuzentzen ez duenean, zigortu egiten baitu.

VII

Atridesen semeak hamar urte luzetako gerratean Frigia txikituz mendekatu zuen anaiari hondatu zioten ezkontza. Greziako bela-ontziei bideak zabaldu nahian, odolez erosi zituen haizeak; aitatasuna baztertuz eta apaiz bihurtuta, alaba errukarriari lepoa moztu zion, eta jainkoei eskaini. Itakarrak negar egin zuen Polifemok bidelagunak bere leize ezkutuan irentsi zizkionean. Baina ikusmena galtzearen amorruak negar bihurtu zion erraldoiari alaitasuna. Herkulesen neke-lanak sona handikoak dira: Zentauro harroak menderatu zituen; lehoi ankerrari atzaparretatik kendu zion harrapakina; geziz jo zituen hegaztiak, hutsik egin gabe; eskuak betean kendu zion urrea bere gordailua zaintzen ari zen herensugeari;

hiru kateaz lotu zuen Zerbero txakurra; jauntxo bihozgabe bat zaldiei eman zien janari; Hydra akabatu zuen, haren pozoia sutan errez; Akelao ibaiak kopeta lohitu zion, bai, baina, gero, bere bukaeran, lotsaren lotsaz, bere ertzen artean ezkutatuta galdu zen, Anteo eraitsi zuen Libiako hondartzan, Evandro lasaitu zen Kakoren larrutik mendekua hartuz, eta mundu osoaren zama eraman behar zuten sorbaldak lerdez zikindu zituen basurdeak; azkeneko lana bizkarra makurtu gabe zeruari eustea izan zen, eta zeru hura bera izan zuen bere lanen sari. Zuek ere, gizaki ausartok, ibili eredu handi horrek erakutsitako bidetik. Zergatik, alfertzarrok, ematen diozue bizkar ikasbide horri? Gaina hartu lurrari eta zerua emango zaizue sari.

BOSGARREN LIBURUA

I

Honela hitz egin ondoren, bere solasa beste ildo batetik bideratzear zegoen, beste gauza batzuk azaldu asmoz. Nik orduan esan nion: "Oso aholku onak zure horiek eta zure itzal handiaren neurrikoak. Zuk arestian esan didazu Probidentziaren gai hori beste askorekin lotua dagoela, eta neronek ere badakust orain. Hauxe da, ordea, nire galdera: zure ustez, halabeharra ba al da? Eta zer dela deritzozu?" Berak, orduan: "Berehala ekingo diot, agindutakoa betez, zuri aberrirako bidea zabaltzeari. Galdera horiek, alabaina, nahiz eta horien erantzuna jakitea oso onurakorra izan, apur bat desbideratu egingo gaituzte, eta beldur naiz ez ote zaren, desbide horretan nekatuta, helmugarako bide zuzena burutu ezinean geratuko". "Ez izan horrelako beldurrik. Atseginik handiena ematen didaten egiak jakitea atsedengarri izango baitzait. Bestalde, zure hizketaldiaren alderdi guztiak ziur eta ondo josita geratzera, ondorioak ezbairik gabekoak izango dira". Berak esan zidan: "Amore emango dut",

eta hizketan hasi zen: "Norbaitek esan dezake halabeharra bere kasa eta arrazoiak loturarik gabe gertatzen den hura dela; nik horrelakorik ez dela diot eta hitz horrek ez duela bere barruko esanahiaz aparte inolako funtsik. Izan ere, Jainkoak gauza guztiak ordena baten barruan baldin badauzka, non dago halabeharraren lekua? Ezerezetik ez dator ezer⁵⁰; ez du hori gure aurrekoetako inork ukatu, nahiz eta hori ez zuten sortzaileagatik esaten, sortutako materiagatik baizik, hau da, sorkari guztiei buruz ziotsaten hori. Zerbait kausarik gabe sortzen baldin bada, hori ezerezetik sortutakoa dela pentsa daiteke; baina, hori ezinezkoa denez, lehen esan dugun erako halabeharra ere ezin daiteke izan". "Ez dago, beraz, ezer halabehar edo asturua izena eman dakiokkeenik? Ala bai ote da, nahiz eta jendeak jakin ez, izen hori merezi duen zerbait?" "Aristoteles neure ikasleak halaxe zioen Fisikan, eta egiantz handiko definizio motx bat eman zuen". "Zein?", galdetu nion. "Zerbait xede batekin egiten denean, eta, dena delako arrazoiengatik, uste ez zen zerbait gertatzen denean, horri deitzen zaiola halabeharra; esaterako, lur-sailen bat landu asmoz aitzurrean ari denak lurrazpian altxorren bat aurkitzen duenean. Gertaera hori halabeharrez gertatutakotzat eduki ohi da, baina bene-benetan ez da ezerezetik sortua. Baditu horrek bere arrazoiak, eta kausa batzuk ustegabeen bateratu izanak ekarri du halabeharreko hori. Izan ere, aitzurketariak lurra harrotu ez balu, eta aurrez besteren batek bere dirua han lurperatu, ez zatekeen altxorra aurkituko. Horiexek dira ustegabeko aurkikuntza horren arrazoiak; hori ez da egileak hala nahita gertatu, era jakin batean bat etorri diren kausen indarrez baizik. Ez aitzurketariaren ez lurperatzailearen gogoak zen urre hura lurpean aurkitua izan zedin, baina, esan bezala, gertaerak batera etorri ziren eta batek altxorra ezkutatu zuen lekuan aitzurtu zuen lurra besteak.

Zilegi da, beraz, esatea zerbait lortu nahian zer edo zer egin

eta, kausak bateratu direlako, ustegabeen gertatzen den hura dela halabeharra. Kausak bateratze hori, ordea, sorburua Probidentzian duen eta gauza guztiak beren leku eta uneetan jartzen dituen ordena ezinbesteko hari zor zaio.

I

Akemeniako mendietako harkaitz artean ihes zihoan etsaiari jarraitzen zitzaion gudariaren bularra gezi arinak jo zuen lekuan, iturburu batetik jaiotzen dira Tigris eta Eufrates ibaiak⁵¹, baina laster banantzen dira eta azkar apartatzen bataren eta bestearen urak elkarrengandik. Baina gero, berriro bat eginda, bide beretik doaz eta hantxe azalduko da bata eta besteak dakartena: ontziak elkarrenganatu egingo dira eta orobat urak bere gainean jauzika darabiltzan enborrak, eta batera eta bestera ibiliko dira nahasian olatuak. Alabaina, itxuraz inolako araurik ez duten mugimendu horiek ere lur gaineko aldapak eta ur-zorrotonak gobernatzen dituen ordenaren mendean daude. Horrela halabeharra ere, galgarik gabe batera eta bestera dabilela ematen duen arren, legepean eta hedez lotua dago.

II

Nik esan nuen: "Ulertzen dut bai, eta aitortzen, diozun hori egia dela. Baina batzuk besteekin bat datozen kausa horien hurrenkeran ba al du gizakiak askatasunik, ala honen ekintzak ere ezinbestearen kateak lotuta dauzka?" "Bai, askatasuna badu.

Gizakiak ez luke arrazoimenik izango askatasunik gabe. Zeren, bere izatez arrazoimenaz baliatzeko gauza denak komeni dena aukeratzeko argia badu buruan. Bere kabuz bereizten ditu saihestu beharrekoak eta atxiki beharrekoak. Egiantan, gogoko derizkiona aukeratu egingo du eta arbuiatu beharreko derizkiona baztertu. Beraz, arrazoimena duenak badu gauzak nahi izateko ala ez izateko askatasuna ere. Ez dut, hala ere, uste denek askatasun-maila bera dutenik. Izaki goren jainkozkoek adimen argia, nahimen betea eta beren nahia betetzeko ahalmen osoa dute. Giza animek, berriz, zenbat eta jainkozko jakituria gehiago arakatzen duten, orduan eta askatasun-maila jasoagoa izango dute; gorputzetaraten diren heinean, ordea, askatasun gutxiago; eta are gutxiago lur honetako gorputz lurtarren atalei itsasten zaizkienean. Mirabetasunik hertsiena gaizkiaren atzaparretan erorita arrazoimena ere galtzen dutenekoa izango da. Izan ere, azkar lausotuko dituzte ezjakintasunaren hodeiek eta grina kaltegarriek dardaratuko gauza guztien gaineko egiatik lurreko ilunpeetara okertzen diren begiak. Horrela, beren joera makurrei amore emanez eta grina horiek onetsiz, beren burua gatibuago egingo dute eta askatasunean bertan aurkituko dituzte kateak. Alabaina, betidanik begira daukate guztia ikusten duen Probidentzia eta, batzuk besteengandik bereiziz, nori berea ematen dio, aurrez erabakita dagoen bezala, bakoitzak merezi duen heinean. Jainkoak dena ikusten eta entzuten du⁵².

II

Παντ εθοραν και παντ επακουειν

Homerok kantu gozoak abestu zizkion Feboren argi distiratsuari. Ezin, ordea, Eguzkia bere errainu ahulen argiaz lurraren erraietara edo itsasoaren hondoraino iritsi. Beste era bateko indarrak

ditu munduaren Egileak. Ezin dio lurrak, bere handian, goitik begira daukan hari ezer ezkutatu; ez da haren begientzat oztopo gau beltzaren iluna, begirada bakar batean ikusten baititu lehena, oraina eta geroa. Hark bai merezi duela Eguzki deitzea, gauza guztiak ikusten dituen bakarra bera baita⁵³.

III

Nik esan nion. "Berriro ere zalantzan nago eta oraingo zalantza hau lehengoa baino handiagoa da". "Zein da, bada, zure zalantza hori?, galdetu zidan. Badut susmoa zein izango den". "Oso elkarren aurkakoak eta uztartu ezinak iruditzen zaizkit Jainkoak gauza guztiak aurrez jakitea eta hala ere gizakiak askatasuna izatea. Zeren eta, Jainkoak gauza guztiak ikusten baditu, oker ezin egon daitekeenez, ezinbestean gertatu behar du Jainkoak gertatuko dela aurrez ikusi duena. Jainkoak gizakien ekintzak ez ezik hauen pentsamendu eta asmoak ere betidanik ezagutzen baditu, ez du gizonak inolako askatasunik, hutsegin ez dezakeen Probidentziak aurrez dakizkien egintzak

eta erabakiak besterik ezer ezin baita gertatu. Gauzak hark ikusiz beste era batean gertatzerik balego, etorkizunari buruz ez luke ziurtasunik izango, nolahalako ustea baizik; eta ez dirudit Jainkoaz hori esatea zilegi denik. Baina ez dut onesten bere ustez korapilo hori askatzeko gauza den zenbaiten arrazoibidea. Gauzak ez direla, alegia, gertatzen Jainkoak aurrikusi dituelako; alderantziz, zerbait geroan gertatzeko dagoenean ezin zaiola Probidentziaren begiei ezkutatu. Era horretan arazoa azpikoz gaineratu besterik ez da egiten, esanez derrigorrezkoa ez dela aurrikusitakoa gertatzea, baina bai gertatuko dena aurrikustea. Auzia ez baita aurrejakintza gertakizun daudenen ezinbestearen arrazoia den ala, alderantziz, gertakizunen ezinbestea aurrejakintzarena. Nik beste hau frogatu nahi dut: gauzen antolamendua edozein delarik ere, ezinbestekoa dela aurrikusitako gauzak gertatzea, gauza horiek aurrez jakiteak gertakizun daudenak derrigorrezko egiten ez dituen arren. Jo dezagun norbait eserita dagoela, hura eserita dagoela dioen judizioa nahitaez egiazkoa da; alderantziz, eserita dagoela dioen judizioa egiazkoa baldin bada, hura ezinbestean dago eserita. Bietan ageri da, beraz, ezinbestea; batean, eserita egotearena, bestean egia izatearena. Baina ez dago eserita judizioa egiazkoa delako, alderantziz baizik, judizioa egiazkoa da hura eserita dagoelako. Horregatik, judizioaren egiak funtsa ekintzaren egian duenean ere, bietan dago ezinbestea.

Horixe bera da Probidentziari eta etorkizuneko gertaerei buruz ere pentsatu beharrekoa. Zeren eta, gertatuko direlako aurrikusten dira, eta aurrikusten direlako gertatzen ez badira ere, Probidentziak berdin-berdin ezinbestean aurrikusiko ditu gertatuko direnak, edo berak aurrikusitakoak ziur gertatuko dira; eta aski da hori askatasuna ezabatzeko. Baina denboran gertatuko direnak betidaniko aurrejakintzaren eragileak direla esatea ere! Ez al da gauza berbera Jainkoak gertakizunak gertatuko direlako aurrikusten dituela pentsatzea eta Probidentzia gorenaren eragileak lehenean gertatutakoak direla esatea? Alde horretatik, zerbait badela dakidanean gauza hori ezinbestekoa den era berean, zerbait geroan gertatuko dela aurrez dakidanean, ezinbestean gertatuko da zera hori. Ezinezko da, beraz, aurrez jakina den zerbait ez gertatzea. Azkenik, gauzak direnez beste era bateko usteak edukitzea ez da jakintza,

uste ustela baizik, jakinduriaren egiaik oso urruti dagoen zerbait. Beraz, gauzaren bat gertatzekoa izanik ere, hura gertatuko dela ezinbesteko eta ziurra ez baldin bada, nork jakin dezake aurrez gauza hori gertatuko dela? Zeren, jakinduria gezurrarekin nahastu ezin bada, hark mamitu duena ezin izan aurrikusi duenaren aurkakoa. Hauxe baita aurrejakintza gezurrik gabekoa izatearen arrazoia: gauzak ziurtasun horrekin aurrikusi diren gisakoak direla ezinbestean. Zer, bada? Zein eratan dakizki Jainkoak ziurtasunik gabeko gertakizunak? Gertatzeke gera daitekeena ezinbestean gertatu beharreko jotzen baldin badu, oker dago; eta hori Jainkoaz pentsatzea edo esatea birao garbia da. Bestalde, gauzak gertakizun diren heinean bakarrik ezagutzen baldin baditu, hau da, gerta daitezkeela ala ez jakiteko bestetarako gauza ez baldin bada, zer-nolako aurrejakintza da ziurrik eta behin-betikorik ezer ezin atzeman duen hori? Ez al da hori Tiresiasen aurrikuspen barregarri haren antz-antzekoa:

Nik esango dudan guztia gertatu egingo da ala
ez da gertatuko⁵⁴.

Eta zertan litzateke Probidentziaren aurrikuspena gizakiarena baino zorrotzagoa, hark ere ziurtasunik gabeko gertakizunei buruz ziurtasunik gabeko judizioak egingo balitu. Baina gauza guztien ziurtasuna den haren baitan ziurtasun gabekorik ezer ezin izan bada, ziurra da hark irmoki aurrikusten duena gertatu egingo dela. Beraz, gizakiaren uste eta ekintzek ez dute inolako askatasunik; Jainkoaren adimenak, inolako okerrik gabe guztiak aurrikusiz, denak lotu eta gertarazten baititu. Hori aitortuz gero, garbi ageri da zer-nolako porrota datorren hortik gizakiaren bizitzan. Alferrikakoa da zintzoei sariak eta gaiztoei zigorrak ezartzea, animak bere erabaki askeaz merezi ez baditu. Horrela, bada, gaiztoak zigortzea eta onei saria ematea, orain gauzarik justuena iruditzen zaiguna, huraxe izango da zuzenkontrakoen, gizakia ez baitu horrelako jokabideetara bere gogoak eramaten, gauzen ezinbestean gertatu beharrak baizik. Eta bertutea eta bizioak ez lirateke ezer izango, era guztietako egiteen nahasmendua baizik. Ezin, ordea, hori baino gauza makurragorik pentsatu; munduaren antolamendua Probidentziarengandik baldin baletor eta gizakiaren ekimenak horretan inolako eskurik ez baldin balu, gure gaiztakeriak ere gauza guztien egileari egotziko genizkioke. Ez legoke ez itxaropenerako ez otoitzerako arrazoirik. Zer espero izan dezake inork eta zer eskatu, gure desio guztiak ezinbestean gertatu beharrekoen zerrendan baldin baleude? Ondorioz, Jainkoaren eta gizakien artean dagoen harreman bakarra ere, eskatu eta itxarotekoa, alegia, ezabatua izango litzateke⁵⁵. Zeren, egoki den bezala, geure buruak beheratzearen ordainetan merezi ditugu Jainko on-beraren dohainak; hori da, antza, gizakia Jainkoarekin hizketatzeko eta otoitzaren bitartez argi iristezin hartara hur-biltzeko era bakarra. Baina, etorkizuna ezinbestean bete beharrekoa dela onartzen baldin badugu eta, beraz, gure otoitzak eta itxaropenak ezertarako indarrik ez dutela, zerk lot gaitzake gauza guztien nagusi gorenarekin? Gizadia, beraz, lurjota legoke eta bere jatorritik eten eta bananduta, arestiko kantuan zenion bezala.

III

Zein da elkarrekin lotuta dauden gauzak banantzen dituen haserrearen arrazoia? Zein jainkok ezarri du hainbesteko borroka bi egiaren artean, bakarka argi ageri baitira, baina ezin baitira inolaz ere bateratu. Agian ez dira egia horiek elkarren aurkakoak izango, eta bete-betean

bat etorriko dira. Beharbada gure arrazoimenak, gorputz itsuaren zamapean, argirik ez baitu ikusten, ezingo ditu gauzen arteko lotura zingleak atzeman. Baina zergatik ahalegintzen da hain suharki egiaren aztarna ezkutuak bilatzen? Konturatzen ote da hainbesteko lehiaz irrikatzen duen hori badakiela? Zergatik nekatu dakiena ikasi nahian? Nola ibili, ordea, itsu-itsuan ez dakienaren bila? Nork irrikatuko du badenik ere ez dakiena?⁵⁶ Nor da ezagutzen ez

duen zerbaiten atzetik ibiltzeko gauza? Eta, aurkitzen baldin badu, nola ezagutu hura dela ezjakinean bilatu duena? Ez al zituen arrazoimenak, adimen jaso hura ikusten zuenean, gauza bakoitza eta guztien batasuna ezagutu? Orain, gorputzaren hodeiek lausotuta daukatelarik ere, ez du bere lehena erabat ahaztu eta, gauza bakoitzaren oroitzapena galduta ere, gogoan dauka guztien batasuna. Beraz, egiaren bila dabilena erdi-bidean dago: ez daki guztiaren berri, baina erabat ez-jakina ere ez da. Horrela, zeru-goietan behatutakoa suspertzen denean, lehen ikusitakoa gogora ekarriz, aurrez buruan zeukanari ahaztuta zeukana erasten dio".

IV

Filosofiak esan zidan: "Aspaldikoak dira Probidentziaren aurkako arregura horiek. Marko Tuliok sakon jorratu zituen Asmagintzaz ariki⁵⁷, eta zu zeu ere luzaroan aritua zara

gai hori aztertzen; baina gaurdaino ez die zuetako inork kezka horiei irtenbide finko eta arretatsurik aurkitu. Hauxe duzu iluntasun horren arrazoiak: gizakiaren arrazoimena ezin daitekeela Jainkoaren aurrejakinduriaren sinpletasunera iritsi. Izan ere, zuek hori ulertzeko gauza bazinate, bukatuak zenituzkete zalantza guztiak. Saiatuko naiz iluntasun hori argitzen; aurretik, ordea, zuk duruduzatzen zaituzten ezbaiak kenduko ditut. Nire lehenbiziko galdera da ea zergatik aintzat hartzen ez duzun irtenbide hau: alegia aurrejakintzak ez dituela geroan gertatuko diren gauzak gertarazten eta, beraz, ez duela inolaz ere askatasuna galarazten. Zein argudiotatik ondoriotzen duzu geroan gertatu beharrekoen ezinbestea, aurrez jakina denak derrigorrean gertatu beharko duelakotik ezik? Beraz, aurrez jakiteak geroko gertakizunak derrigorrezko egiten ez baditu, eta horixe zenion zerorrek ere arestian, zerk egingo ditu ezinbesteko norbaitek nahita gertatuko diren gauza horiek? Ondoren datozenak uler ditzazun, egin dezagun aurrejakintzarik ez dela. Era horretan, gogo aske baten baitan dauden gertakizunak ezinbestean gertatuko al lirateke? Ezta inolaz ere. Jo dezagun orain aurrejakintza badela, baina ez duela gertakizunak ezinbesteko bihurtzeko ahalmenik; oso-osorik egongo litzateke nahimenaren askatasuna.

Baina, erantzungo didazu, aurrejakintzak gertakizunak ezinbesteko egiten ez baditu ere, horiek ziur gertatuko diren seinale da. Eta horrela, aurrejakintzarik izan ezean ere, irmoki finkatua egongo litzateke gertakizunen ezinbestea. Seinaleak ez du adierazten duena eragiten, azaltzen baizik. Beraz, aurrejakintza ezinbestearen seinalea dela agerian uzteko, zerbait ezinbestean ez bada ez dela gertatuko frogatu behar da.

Bestela, ezinbesterik ez bada, aurrejakintza ezingo da izan ez den gauza baten seinale. Gauza jakina da, bestalde, zerbait irmoki frogatu nahi baldin bada, ez dela seinaleen eta kanpotikako argudioen indarrez frogatu behar, barruko eta derrigorrezko arrazoiz baizik. Baina nola daiteke gauza bat gertatuko dela jakin eta ez gertatzea? Hori horrela litzateke Probidentziak gertatuko direla dakien gauzak gertatuko ez direla uste izango bagenu; baina nik uste dudana beste hau da: gertakizun horiek jazotzen badira ere, berez ez dutela gertatzera behartzen dituenik ezer. Oso erraz ulertuko duzu diodana. Gertaera asko gure begien aurrean gertatzen dira, guk ikusten ditugula; esate baterako, gurtzainak bere koadriga gidatu eta birarazteko egiten duena eta horrelako beste gauza asko. Gertaera horietan ba al da batere era batean edo bestean behartuta gertatzen denik? Ezta ale bat ere. Alferrikakoa litzateke abildadea mugimendu guztiak behartuak balira. Gertatzen ari den bitartean ezinbestean gertatzen ez dena ezinbesterik gabeko gertakizun zen gertatu aurretik. Beraz, badira gauza batzuk gertatuko direnak, baina gertatzeko inolako beharpenik gabe. Ez dut uste inor izango denik orain gertatzen ari dena gertatu aurretik gertakizun zela ukatuko duenik. Gertaera horiek, hortaz, nahiz eta aurrez ezagutuak izan, askatasunez gertatzen dira. Gure aurrean gertatzen diren gauzak jakiteak inolako beharpenik ez dakarren bezala, geroan gertatuko direnak aurrez jakiteak ere ez du horrelakorik ekartzen. "Horixe da, ordea, zalantzan dagoena, esango didazu, ea ezinbestean gertatuko ez diren gertakizunen aurrejakintzarik izan ote daitekeen". Hor kontraesan bat dagoela dirudi, zeren, gure ustez, aurrikusitakoak baldin badira, berekin dute ezinbestea; ezinbesteko ez badira, ez dira aurrez jakingo, ezagutzaren barruan gauza ziurrak bakarrik sartzen baitira; eta gertatuko direla ziur egon eta gero ez gertatzea iritzi okerrean egotea da, eta ez ezagutzaren ziurtasunean. Gauzei direnez beste era batera eriztea jakinduria osotik urruti dago gure ustez. Hauxe duzu errakuntza horren iturria:

edonork uste duela dakien hura gauzen zerizanean eta berezkotasunean oinarritua dela; baina erabat alderantziz gertatzen da. Gertaerak ez baitira berauen zerizanaren arabera ezagutzen, ezagutzailearen ahalmenaren arabera baizik. Adibide xume batekin argituko dut: gorputz baten borobiltasuna era batean atzematen du ikusmenak eta beste batean ukimenak. Begiak urrutitik eta oso-osorik ikusten du igortzen dituen izpiei esker; ukimena, ordea, eskua gorputz borobilari erantsiz eta ukituta eta inguruan mugituz, atalka-atalka ohartzen da borobiltasunaz. Gizakia bera ere era desberdinean ikusten dute zentzumenak, irudimenak, arrazoimenak eta adimenak. Zentzumenak, gauzaren tankera, azpian dagoen materiaren arabera atzematen du; irudimenak kanpoko itxura bakarrik, materiari gabe, atzemango du; arrazoimenak, berriz, hori ere gainditu egiten du eta, ikuspegi orokorrean, banakakoetan espezie espezifikoak atxikiko. Adimenak horiek baino ikuspegi jasoagoa du. Orokortasunaren mugen gainetik eta pentsamenduaren indar hutsez, forma bera ikusten du bere sinpletasunean.

Puntu honetan egin beharreko ohar garrantzizkoa da ahalmen nagusiak bere baitan daukala apalagoa, baina ez alderantziz, behekoa ez baita inolaz ere goikoaren mailara iristen. Zentzumenak ez du materiaren harandian indarrik, ezin ditu irudimenak espeziean ideia orokorrak atzeman ezta ere arrazoimenak forma sinpleak; baina adimenak, horiek baino goragotik so, forma atxikitzen duenean, hortik beherako guztiak ezagutzen daki, aldi berean beste ahalmenek ezin atzeman zuten forma sinplea bera ezagutzen. Arrazoimenaren mundua eta irudimenaren irudiak eta zentzumenaren materia ezagutzen ditu, ez arrazoimenaren edo irudimenaren edo zentzumenaren bitartez, baizik adimen-kolpe batez, nolarebait esateko, gauza guztiak ikusiz. Arrazoimenak ere, ideia orokor bat ekoiztu duenean, ez ditu irudimenaren eta zentzumenaren alorrekoak irudimenaren eta zentzumenaren indarrez atzematen.

Arrazoimenak, ideia orokor bat sortuz, honako definizio hau ematen du: "Gizakia animalia arrazoimendun bi hankakoa da". Ideia hori orokorra denez, edonork daki irudimenezko eta zentzumenezko nozioak ere berekin dituela, baina badakigu ez dela irudimenaren eta zentzumenaren emaitza, arrazoimenarena baizik. Irudimena ere zentzumenek ikusi eta aurkezten dizkioten gauzen tankeratik abiatzen da, baina zentzumenik gabe ere gauzak atzematen ditu, bere indar hutsez. Ikusten duzu, beraz, gizonak gauzak bere ezagumenaren indarrez ezagutzen dituela eta ez gauza horien izatetik. Eta ez arrazoirik gabe, zeren juzguak oro egile baten ekintza diren heinean existitzen direnez, bidezkoa da egileak zerbait dagienean, bere ahalmenaren indarrez egitea, ez kanpoko ezeren eraginez.

IV

Garai batean Portikok zahar ezezagun batzuei buruan sartu zien irudiak kanpoko gauzetatik zetoziola irudimenari eta hantxe geratzen zirela itsatsita, orri hutsean luma azkarrak zizelkatuta uzten dituen hizkien gisara⁵⁸. Baina ulermenak bere ekimenez ezer atzematen ez badu eta gauzek kanpotik bidalitako irudiak ispilatu besterik egiten ez baditu, nondikakoa du adimenak gauza guztiak ikusteko kemen hori?

Nondik gauzak banan-banan ikusi eta ikusitakoa atalka sailkatzeko ahalmena? Atalka daudenak batean hartuz, badaki azalekoei eta sakonekoei heltzeko bidea aukeratzen, eta bere argi hutsez egia eta gezurra bereizteko gauza da. Kanpoko gauzen ezaugarriak islatzekoa baino askoz indar handiagoa da hori. Baina, animaren kemena suspertuko bada, gorputzaren zentzumena behar aurretik. Argiak begia jotzen duenean eta hotsa belarrietara iristean, orduantxe piztuko da ulermenaren ahalmena; bere baitan dituen forma espezifikoak mugitzeko deika kanpotik datozkion zantzuei ezarriko dizkie eta, oraingoak lehengoei gehituz, bere barruan ezkutuan zeuzkan formak irudiarekin lotuko ditu.

V

Zentzumenak, kanpoko gauzak ezagutzeko, gauza horien zantzuak behar ditu, eta ulermenak, bere lanea hasteko,

gorputzean nabaritutakoaren eragina behar du. Eragin horrek suspertuko baitu ulermena eta ernaraziko baititu barnean lotan zeuden formak. Ulermenak, diodan bezala, kanpoko gauzak ezagutzean, gorputzak izandako sentrazioa ere, materiarekiko menpekotasunik gabe, bere indarrez atzematen badu, materiaren menpean ez daudenek arrazoi handiagoz ezagutuko dituzte gauzak beren adimenaren ahalmenez, eta ez kanpoko ezeren eraginez. Horregatik, ezagutzeko era asko daude kanpoko gauzak ere desberdinak diren heinean. Zentzubidezko ezagumena bakarrik dute, eta ez besterik, animadun mugimendurik gabekoek, hala nola itsasoko maskorrek eta arroketan itsatsita bizi diren lapa eta antzekoek. Animalia higikorrek irudimena ere badute, eta agertzen dituzte beren irrikak eta arbuioak. Gizakiak bakarrik du, ordea, arrazoimena, adimena Jainkoak bakarrik duen bezala; beraz, ahalmen hau besteen gainetik dago, berez ezagutzen baitu, ez bakarrik berari dagokiona, baita beste ezagumenen baitan dagoena ere. Zer gertatuko litzateke, ordea, zentzumena eta irudimena arrazoimenaren aurka jarriko balira, arrazoimenak ustez ikusten dituen ideia orokorrak ezer ez direla esanez?⁵⁹ Zeren, irudimenaren eta zentzumenaren objektua ezin izan daiteke unibertsala; beraz, edo arrazoimenaren judizioa egiazkoa da eta zentzumenaren objektua ez da existitzen, edo, arrazoimenak bere judiziorik gehienak zentzumenaren eta irudimenaren baitan daudela aitortzen baldin badu, alferrikakoa litzateke arrazoimenak bakar eta zentzumenaren objektu dena orokortzeko burutzen duen egintza. Arrazoimenak horri erantzuten badio berak zentzumenaren eta irudimenaren objektuak era orokorrean atzematen dituela eta irudimena ez dela ezagutza unibertsalak atzemateko gauza, bere ezagumen-arloa gorputzaren irudietara mugatua dagoelako, eta esango balu, gainera, horrelako eztabaida batean ezagumen ziurrena eta jasoena dela nagusi, guk, arrazoimena, zentzumena eta irudimena ditugunok, ez al genioke arrazoia arrazoimenari emango?

Berdintsu gertatzen da giza arrazoimenak uste duenean, berak ikusten ez duelako, Jainkoaren adimenak ere ez duela etorkizuna ezagutzen. Hauxe da, izan ere, zure arrazoiketa: ezin daiteke aldeztetik gertakizun baten berri izan gertakizun hori ezinbestean eta ziur gertatuko ez baldin bada. Horrelako aurrejakintzarik ez dago, eta badagoela esatea gertakizun horiek ezinbestean gertatuko direla esate beste da. Baina guk, arrazoimena dugun bezala Jainkoaren adimenean parte bagenu, pentsatuko genuke, arrazoimenak zentzumenari eta irudimenari gaina hartzen diela ikusi dugun bezala, gizakiaren arrazoimena Jainkoaren adimena baino apalagoa dela; eta zuzen egongo ginateke. Igo gaitzen, beraz, ahal badugu, adimen jaso haren gailurreraino eta hantxe ikusiko dugu arrazoimenak beregan atzeman ez dezakeena: Jainkoaren aurrejakinduriak ezagut ditzakeela ziur eta zehazki ezinbestean jazo beharrekoak ez diren gertakizunak ere; eta ezagutza hori ez dela uste hutsa, jakinduriarik jasoena eta neurri gabea baizik.

V

Zenbat eratako abereak dauden lurraren gainean! Batzuek gorputz luzea dute eta arrastaka dabilta hautsetan beren ibili ahalegintsuan ildoak urratuz. Beste batzuk batera eta bestera doaz beren hego arinez haizeari eraginez eta hegaldi zaluaz igarotzen dute egurats zabala; beste batzuk lurgainean tinko daude beren oinen gainean, landa orlegietan eta basoan ibiltzeko gauza dira. Ikusten duzunez, itxuraz desberdinak direla guztiak; baina denek daukate muturra lurrera begira eta horrek kamustu egiten die zentzumena. Gizakiak bakarrik dauka burua tente eta gorputza zuzen.

Goitik behiti begiratzen dio mesprezio lurrari. Gizona, munduak erabat txoratu ez bazaitu, zure itxurak berak erakutsiko dizu. Kopeta altxatuz, aurrez aurre begiratzen duzun horrek, jaso anima ere goietara; ez dadila, materiaren zamapean, gorputza baino beherago geratu.

VI

"Arestian esan dugu gauzei buruz dugun jakintza ez dela gauza horietatik bertatik sortua, gure ezagumenetik baizik; azter dezagun, beraz, ahal den neurrian, nolakoa den Jainkoaren izatea, haren jakinduria nolakoa den jakiteko. Jainkoa betikoa dela, hori arrazoimena duen orok dio. Ikus dezagun betikotasuna zer den. Horrela jakingo dugu aldi berean zer den Jainkoaren zerizana eta Jainkoaren jakinduria. Betikotasuna da amaigabeko bizia batean eta bete-beteaz edukitzea⁶⁰. Argiago azalduko zaigu hori gauza amaikorrekin erkatuta. Denboraren barruan bizi dena, une honetan, lehenetik gerora doa; ez dago denboran bizi direnen artean ezer bere bizitzako gune guztiak instante batean har ditzakeenik. Izan ere, biharko eguna ez du oraindik eskuratu, baina atzokoa joan zaio eskuetatik. Gaurko egunean ere unetxo iragankor eta motx batean bizi zara. Beraz, denborarenpean dagoena, Aristotelesek munduari buruz uste zuen bezala, hasiera eta bukaerarik gabea izan daiteke, baina, bizitza mugarik gabe luzatuko balitzaio ere, ez litzateke betikotzat hartzekoa izango. Ez bailuke betiko bizitzaren luze-zabala batean atxikiren;

oraindik ez dauka geroa eskuartean eta iragana joan zaio. Bizitzaren osotasun mugagabea dena batean, lehena galdu gabe geroa berekin duela, harrapatzen duena huraxe da egiatan betikoa; horrelako batek oraina ezinbestean eta bete-beterik dauka berekin, eta, orain horretan, denboraren aldi guztiak⁶¹. Batzuek entzuna dute munduak, Platonen iritziz, ez zuela hasierarik izan eta ez duela bukaerarik izango; horregatik uste dute mundua betikoa dela, bere sortzailea den bezala. Baina oker daude. Gauza bat da bukaerarik gabeko bizitza eramatea, eta hori dio Platonek munduaz, eta beste bat bukaerarik gabeko bizitza oso-osorik une batean atxikitzea; garbi baitago azken hau Jainkoaren adimenari dagokiola. Jainkoa ez baita sortutako gauzak baino lehenagokoa denboran bakarrik; aitzitik, bere zerizan sinplean da lehenagokoa. Denboraren menpeko gauzen mugimendua mugimendurik gabeko bizitza beti gaurko haren antzekoa da; haren mailara eta izatera iritsi ezin denez gero, mugikaiztasunetik mugikortasunera erori da, betiko oraingotasun sinpletik lehenean eta geroan mugarik gabe zatituta egotera; eta, bere bizitza batean eta osorik-osorik ezin atzeman duenez gero, badirudi, era batean edo bestean irauteari utzi nahi ezean, nola edo hala, bete-beteen lortu ezin duen haren antzeko izaten lehiatu dela, unetxo txiki batzuen oraingotasun iragankorrari helduz. Honek betiko oraingotasun haren antz-apur bat badu, eta berak ematen die bere iraupeneko unetxo horiei betikotasun haren nolabaiteko itxura. Baina gauza horiek, iraunkorrak ez direnez, mugarik gabeko denboraren bideetan barrena ibiliko dira, eta, era horretan, higitzeke lortu ezin duten bizitzaren osotasuna uneka-uneka atzemango dute. Horrela, Platoni jarraituz, gauza bakoitzari dagokion izena eman nahi izatera, Jainkoa betikoa dela esango dugu, mundua, berriz, betirakoa. Ezagumen orok bere izaeraren arabera ezagutzen ditu dagozkion gauzak:

Jainkoa izatez betikoa denez eta beti orainean dagoenez, haren jakinduriak ere bere sinpletasunaren presentzian dirau beti denborazko muga guztiak gaindituz eta lehenaren eta geroaren luze-zabalera mugarik gabeak batean atzemanetz; eta une honetan gertatzen ari bailiran ikusten ditu gauza guztiak. Ez pentsa, beraz, guztia oraingotasunean ezagutze hori gero gertatuko denaren berri aurrez jakitea denik, hutsik gabe guztia beti bere aurrean daukanaren ezagutza baizik. Horregatik ez zaio Aurrikusmena deitzen Probidentzia baino, zeren, munduko gauza nimino ororen gainetik egonik, guztiak munduaren gailurretik bezala ikusten baititu. Zergatik esan, hortaz, ezinbestekoak direla Jainkoaren argiak aurrikusi dituen gertakizunak? Gizakiak ere ez du derrigorrezko egiten ikusten duena. Zuk aurrean ikusten duzuna beharrezko egiten al duzu ikuste hutsarekin? Ezta inolaz ere. Beraz, Jainkoaren eta gizakiaren oraingotasuna elkarrekin erkatzea zilegi bada, zuk une bateko orainaldian gauza batzuk ikusten dituzun bezala, hark guztiak ikusten ditu bere betiko orainean. Jainkoaren aurrejakintzak ez ditu gauzen zer-nolakoak aldatzen, eta geroan gertatuko diren bezalaxe ikusten ditu orain bere aurrean; bere adimenaren so batean inolako okerrik gabe ikusi ere bai ezinbestean gertatzekoak bai ezinbesterik gabeak. Zuk aldi berean ikusten dituzu gizon bat lurraren gainean dabilela eta eguzkia ateratzen ari dela; baina, gauza horiek biak begirada bakar batean ikusita ere, elkarrengandik bereizi egiten dituzu eta badakizu bata nahita egina dela eta bestea ezinbestekoa. Hala berean, Jainkoaren begiradak dena ikusten du, baina horrek ez du gauzen izaera aldatzen; hark beti bere aurrean badauzka ere, denboraren joanean gertatuko dira. Horrela, Jainkoak duena ez da ustea, benetako egian oinarri duen ezagutza baizik; badaki zerbait gertatuko dela, baina baita ezinbesterik gabe gertatuko dela ere. Zuk zera esango didazu: Jainkoak gertatuko dela ikusten duenak gertatu beste aukerarik ez duela; eta

izatea beste aukerarik ez duena ezinbestean gertatzen dela. Ezinbeste hitz horrekin estu-estu hartzen nauzu, eta hori egia baino egiago dela aitortuko dizut; baina nekez atzeman dezake egia hori Jainkoari buruzko gogoetak egitera jarria dagoenak ez bestek. Eta ihardetsiko dizut geroan gertatuko dena ezinbestekoa dela Jainkoaren jakinduriari dagokionez, baina gertakizunaren izaerari dagokionez, askea eta inolako beharpenik gabekoa. Bi eratako ezinbesteak daude, izan ere: bata sinplea, esate baterako, gizaki guztiak hilkorrak direla; bestea baldintzapekoa, esaterako, gizon bat ibili dabilela baldin badakizu, nahitaezkoa da hura ibiltzea. Ezinezkoa baita dakigun gauza bat dakigunez beste era batera izatea. Baina baldintza honek ez du arestian esandako beharpen sinple haren eiterik. Beharpen hau ez baitator zerizanetik beretik, erantsitako baldintzatik baizik. Bere gogoz dabilen gizona ez du ibiltzera ezerk behartzen, nahiz eta dabilenean ibiltzea derigorrean gertatu. Era berean, Probidentziak bere orainean gauza bat gertatzen ikusten badu, hori ezinbestean gertatzen da, baina berezko beharpenik gabe. Horrela, Jainkoak bere orainaldian ikusten ditu gero askatasunean gertatuko direnak. Gertakizun horiek, beraz, Jainkoaren begietarako ezinbesteko izango dira, Jainkoaren jakinduriak era horretan baldintzatzen dituelako; baina, beren izatearen aldetik, ez diote aske izateari uzten. Gertatu egingo dira, bai, zalantzarik gabe gertatu ere, Jainkoak gertakizun aurrikusi dituenak, baina gertakizun horietako batzuk askatasunetik sortuak izango dira; hauek, gertatzen direnean, ez dute berez duten izaera galtzen, gertatu aurretik ez gertatzea ere bai baitzitekeen. Baina zer ajola dio berez ezinbesteko ez izateak, nolanahi ere, Jainkoaren jakinduriak baldintzatuta, ezinbestean bezala gertatzen badira? Zeren, arestian jarri dudan adibidean, eguzkia ateratzea eta gizona ibiltzea ezin dira ez gertatu gertatzen ari diren bitartean; bata, ordea, gertatu aurretik ere ezinbestean gertatu beharrekoa zen, bestea ez inolaz ere.

Horrela, Jainkoak bere orainean ikusten dituenak ez bairik gabe existitzen dira; baina batzuk gauzen berezkoetik datoz, eta beste batzuk egiten dituenaren ahalmenetik. Zuzen esana dago, beraz, hauek Jainkoaren jakinduriarentzat derrigorrezkoak direla; baina beren baitan ezinbestearen lokarrietatik aske daudela. Horrela, zentzumenak nabaritzen duena unibertsa da arrazoimenari dagokionez, berez, ordea, singularra. "Baina, esango didazu, erabakiak aldatzea neure esku badaukat, ezereztu egiten dut Probidentzia; hark aurrez dakiena aldatu egingo baitut beharbada". Hona erantzuna: bai, zuk alda dezakezu erabakia, baina Probidentziak zuk ahalmen hori duzula ere badaki eta baita, aldatzera, norantz aldatuko zaren ere; ezingo diozu, beraz, haren aurrejakintzari ihes egin. Aurrez aurre daukazun begiaren soari ihes egin ezin diozun bezala, nahiz eta, aske zarelako, orain ekintza batzuk eta gero beste batzuk burutu. "Eta, galdetuko duzu, Jainkoaren jakinduria aldatu egingo ote da, bada, nire erabakien kariatz, orain hau eta gero bestea nahi dudalako hura ere bere ezagupideetan aldatuz?" Ezta inolaz ere. Jainkoaren begiradak aurrea hartzen die gertakizun guztiei eta guztia ekarri eta biltzen du bere ezagumenaren orainera. Ez ditu, zuk uste bezala, ezagupideak txandatz, orain bat eta gero bestea aurrikusiz; beti batean iraunez, begirada bakar batean aurrikusten eta atzematzen ditu aldaketa guztiak. Gauzak orainean atzeman eta ulertzea ez datorkio Jainkoari gero gertatuko denetik; bere sinpletasunetik baizik. Hortatik ondorioztatzen da ez dela egokia lehen esan duzuna; ez dira zure geroko ekintzak Jainkoaren ezagutzaren sortzaile. Ezagutza oro orainean bere baitan duenak berak ezarri die gauzei izaera; ez die gero gertatzekoei zorrik. Horiek horrela, inolako akatsik gabea da gizaki hilkorren askatasuna. Eta ez dira zuzenkontrakoeak beharpen guztietatik aske dauden borondateei sariak eta zigorrak ezartzen dizkieten legeak.

Jainkoa hantxe dago guztien jakitun goitik begira, eta haren betikotasun oraingoak bere aurrean dauzka gure geroako egintzak, eta onei sariak eta gaiztoei zigorrak banatzen dizkie. Ez dira, ez, alferrikakoak Jainkoarengan jarritako itxaropena eta hari egindako otoitzak; ondo eginak direnean ez baitira ondoriorik gabekoak izanen. Gorrota itzazue, beraz, gaiztakeriak; zaindu bertutea; jaso itxaropen zuzenetara gogoak; egin otoitz apalak goikoari. Zeuron buruak atzipetu nahi ez badituzue, har ezazue zintzo bizitzea eginbehar nagusitzat; gauza guztiak ikusten dituen epailearen aurrean egiten baituzue egiten duzuen guztia.